



BIZKAIKO EUSKARAREN ESALDI ETA TESTU EREDUAK GIDA LIBURUA



61'282

BIZKAIKO EUSKARAREN ESALDI ETA TESTU EREDUAK GIDA LIBURUA

Iñaki Gaminde
Juan Luis Goikoetxea
Iñaki Sarriugarte



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

GAMINDE, Iñaki

Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak : gida liburua / Iñaki Gaminde, Juan Luis Goikoetxea, Iñaki Sarriugarte — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2002

or. ; cm. + 1 CD-ROM — (Glotaldidaktika-lanak ; 61)

ISBN 84-457-1937-8

1. Mendebaldeko euskara. I. Goikoetxea, Juan Luis. II. Sarriugarte, Iñaki. III. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. IV. Izenburua. V. Bilduma 809.169-087(460.152)

Argitaraldia:	1.a 2002ko abendua
Ale-kopurura:	500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net
Egileak:	Iñaki Gaminde Juan Luis Goikoetxea Iñaki Sarriugarte
Fotokonposaketa:	Composiciones RALI, S.A. Particular de Costa, 8-10, 7.ª - 48010 BILBAO
Inprimaketa:	Estudios Gráficos ZURE, S.A. Carretera Lutzana-Asua, 24-A Erandio-Goikoa (Bizkaia)
I.S.B.N.:	84-457-1937-8
Lege-gordailua:	BI-78-03

AURKIBIDEA

0. Sarrera	7
0.1. Hasierakoa	9
0.2. CDaren antolamendua	9
1. Oinarri teorikoak	13
2. Edukiak	29
2.1. Esaldi eredu orokorrak	31
2.2. Testu ereduak	41
2.3. Lexikoa	88
3. Ariketak	95
3.1. Esaldi ereduak: entzun eta laukiak betetzeko	97
3.2. Ulermena: testuen gaineko itaunak	112
3.3. Kontaketa: berba egiteko ariketak	122
3.4. Hiztegi ariketak	123
Bibliografia	129

0. SARRERA

0.1. HASIERAKOA

Euskalkiaren eguneroko erabilera biziuz gainera, marko teoriko sendoa ere esku-ratu dugunean hasi gara *Esaldiak eta Testu Ereduak* izeneko materiala gizarteratzen. Euskaldunen testuok inoiz galduko ez diren ahots bihurtu gura izan ditugu CD hone-tan, biziuz joan etorrian belaunaldi gazteek arteragokoen berbotsa senti dezaten. Zer ez genukeen ordainduko beste batzuek Frai Bartolomeren sermoiak edo Albretoko Jo-anaren ele sutsuak entzuteagatik!

Hemengo grabaketen antologia Iñaki Gaminderen hogeitun urte baino gehiagoko euskararen bilketatik hautatutakoa da; marko teorikoa zein didaktizazioa Juan Luis Goikoetxeari dagokio; euskara idatziaren kalitatea Iñaki Sarriugartek jagon du.

Material honek argia ikustean, geure eskerrik beroenak eman beharreko gara, ba-tetik, hain testu zoragarriak kontatu dizkiguten gizonezko eta andrazkoei, bestetik, Bizkaiko Diputazioko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari nahiz Mendebalde Kultur Alkarteari ere. Batzuen berbak eta besteen diru edo baliabideak izan ez bagenitu, ezingo genuen burutu uste baino ahalegin neketsuagoa eskatzen duen lan hau.

Irakaslearen liburua, ikaslearena eta CDa atondu ditugu, edonorentzat ere erabat baliozko materiala den arren, geure xede nagusia irakaste/ikaste jardunean ipini du-gulako. CDan agertzen den eduki guztia ez da paperera atera, horregatik landu behar dira Eskualdeka eta Herrika sailetako Juntagailuak nahiz Menperagailuak CDtik, pa-perezko euskarri barik.

0.2. CDAREN ANTOLAMENDUA

Edukien aldetik, zati nagusi bi ditu: Esaldi Ereduak –Juntagailuak eta Menpera-gailuak –eta Testu Ereduak. Esaldi Ereduen atalean bizkaieraren barruan Juntagailuak eta Menperagailuak egiteko jaso diren moldeen adibideak batzen dira 51 herritan. He-rrri bakoitzeko esaldi batzuk hartzen dira –denetara 2100 inguru- eta informazio hori, gramatiketan legez, herrika, eskualdeka eta lurralde osoaren arabera aurkezten da. Era honetara, bizkaieraren gramatika ez eze, eskualdeetako eta herrietako gauza-tzeko abian paratzen gara.

Testu laburrak 71 herritan jasotakoak dira, beti ere eskualdeka antolatuta. Gehie-nak 85etik 89ra bitarteko urteetan batu ziren eta balio linguistikoaz gain, kasu asko-tan, oso balio kultural handikoak ere badira.

CDa sei ataletan banatuta agertzen da: Esaldi Ereduak, Eskualdeka, Herrika, Tes-tuak, Ariketak eta Hiztegia.

Esaldi Ereduak: Juntagailuak eta Menperagailuak

Erakusten diren esaldiak Bizkai osokoak dira, bizkaieraren gramatikako oinarri.

Juntagailurik juntagailu doa edo menperagailurik menperagailu. Idazkerarako bizkaiera goi mailakoa da, azpian eta parentesien artean euskara batua dela. Honela dator:

OSTERA:

(Bizkaieraz) Txakurra baltza da, katua, ostera, zuria. (Forua)

(Batuan) Txakurra beltza da, katua, ostera, zuria.

FORUA berbaren gainean sakatuez gero, entzun egiten da, jatorrizko testua, ikusi, ordea, bizkaiera literarioan eta euskara batuan idatzia.

ATZERA hitzaren gainean klikatuez gero, hasierara joaten da.

Eskualdeka

Eskualde bakoitzeko herrietako materialek osotzen dituzte esaldi ereduok.

Agertzen diren eskualdeak: Uribe-Kosta, Mungialdea, Busturialdea, Lea-Artibai, Durangaldea, Arratia, Txorierrri, Hego Uribe.

Eskualde bakoitzean herriak. Esate baterako Hego Uriben: Buja, Basauri, Zaratamo, Zollo, Arrankudiaga, Orozko.

Herriaren gainean klikatuez gero, mapa eta herri horretako JUNTAGAILUAK eta MENPERAGILUAK eskaintzen dira.

Herrika

Herrian batutako esaldietan bertako ezaugarriak islatzeko, bizkaiera literarioa erabiltzen da. Euskara batua ez da oraingoan erabiltzen.

Eskualdeak eta eskualde horretako herriak jartzen dira. Herrian klik eginez gero, herri horretako JUNTAGAILUAK eta MENPERAGAILUAK agertzen dira. Esate baterako, Uribe-Kostako sopelan klikatu eta mapa, JUNTAGAILUAK eta MENPERAGILUAK agertzen dira.

Testuak

Honetan, mapa eta eskualdeen izenak azaltzen dira. Txorierrin klikatuez gero, mapa eta zortzi herriak bistaratzen dira. Sondikan klikatuez gero, testua agertzen da bizkaiera literarioan eta euskara batuan. Bertoko ENTZUN klikatzen bada, jatorrizko testua entzuten da.

Ariketak

Hemen jartzen ditugun ariketek entzutea dute oinarri, betiko euskaldun-euskaldunak entzutea. Hala eta guzti, idatziari leku garrantzitsua eskaintzen zaio.

Lau multzotan banatu ditugu ariketok:

Esaldi ereduak: entzun eta laukiak betetzeko

Juntagailuak eta Menperagailuak agertzen dira sail honetan. Ikasleak euskara baturko perpausa izango du begien aurrean eta Esaldi Ereduak –Sarrerakoa, ez Ariketakoa- entzunik bizkaieraz beteko du hutsarte.

Ulermena: testuen ganeko itaunak

Testuen gaineko itaunak eskualdeka antolaturik eta herrian herrikoak. ENTZUN berbari sakatu eta testu osoa entzunik itaunari erantzuteko dira.

Kontaketa:berba egiteko ariketak

Izendaturiko herrietako Esaldi Ereduak –Sarrerakoak- entzun eta lantzeko dira. Atalean bertan azaltzen da zelan baliatu.

Hiztegia: hiztegi ariketak

Ariketaren helburua bereizten ikastea da, zein berba den bizkaierarako bakarrik, zein baturako bakarrik eta zein bietarako. Hiztegiaren hasieran agertzen dira lantzeko jokabideak.

1. OINARRI TEORIKOAK

Atal honetan, Lewin-en “There is nothing so practical as a good theory”, Lewin (1948:7) hartu dugu gogoan, ezen ezinbestekotzat jo baitugu eskura dugun oinarri teorikoa finkatzea: euskalkia heteronomoa dela edo euskara batua eta euskalkia ukipean direla edo ikasgelan atxikitze-eredua eta murgiltze-eredua bereiztu behar ditugula edo Curriculumaren diseinua zein baliabideen nolakotasuna nahiz jardueren balioa zertan dautzan. Dena ere labur, halabeharrez.

1.1. ERITASUNAREN KAUSA ETA SENDABIDEA

Gure eskoletako neska-mutilen euskara zergatik den murriztua badakigu. Eritasunaren kausa ezagutzen dugu. Eskuetan osorik ez daukaguna sendabidea da. Hala ere, geuri dagokigu konponbidearen bila jardutea. Iñaki Martínez de Lunak (2001:106) diosku: “...beste hizkuntza nagusi batekiko meneko egoeran dagoen hizkuntza gutxituaren ahuleziak ohi dira gehienbat”. Geroxeago autore berak baieztatu digu, hiztun berriek euskararen biltzeko arazoa euskarak eta erdarek gizartean ditzuten ospe eta distira ezberdinetan datzala –estaturean-, ez erabiltzen den euskararen kalitatean –korpusean-.

Badakigu, honenbestez, hiztuna erkidego trinko eta osasuntsuko partaide petoia izanez gero, hizkuntza jatorra erabiltzea dela berezkoena, baita “hizkuntza pobrezia hori egunerokoan erdara nagusitzen den giroetako euskaldunen –titikoen nahiz berrien- ajea dela (Iñaki Martínez de Lunak 2001:107)”

Hala ere, korpusean hobera egiteko estatusak ere osasuntsu izan behar duela onartu arren, ezin lagako dugu corpus hori bertan behera. Batetik, gure D ereduko ikaslearen artean hainbeste direlako behar besteko euskara mailarik ez dutenak, batez ere euskararen erregistroan, egokitasunean erabat ahul direnak, bestetik, euskaldun berrien eta euskaldun zaharren corpora gorpuzterakoan, metodologia desberdinez baliatzea merezi duelako.

Hori horrela, aipaturiko ikuspegiok oso gogoan harturik taiutu dugu CD hau.

1.2. INGELESA VERSUS EUSKALDUN ZAHARREN EUSKARA: JARRERA

Ingelesaren ispiluan begiratuko bagenu, ikusiko genuke, euskararena ez den bigarren jarrailan gatzaitzkiola ikasterakoan. Euskara ikaslearen artean ingeleserako metodoa plagia bagenez, herri euskaldunak, euskaldunen familiak euskara ikasleak beteterik aurkituko liriteke. Gertatzen ez dena. Akademietara eta akademietatik Ingalaterra, Irlanda nahiz Ipar Ameriketara ehunkak joan ohi dira, behin elkarrizketarako mailaz jabetu direnean, eskolan ikasia praktikatzeko. Harridurarako, Londresera heltzerakoan ez du Oxford Street-eko berbeta ulertzen. Uda bukaeran horko hizkerara ohitu denean, Támesis hegoalderantz gurutzatu eta Brixton-ekoekin elkartzen denean, berriro ere ez duela aditzen konturatzen da. H-a ez dutela ahoskatzen, silabak jaten dituztela, bokalak aldatu, fonetikako sistema desberdina erabili, berea ulertzen diotela, baina berak ez euren. Hor apur baten bizirik egokitu denean, Manchesterre-

ra badoa, hangoa ere ez hasieran. Hala ere, ingeleseko ikasleak ez dio errurik ingele-sari egotziko berak ez ulertzeagatik, ekin egiten dio harik eta jakitea lortzen duen arte. Basterretxea (1984)

1.3. D EREDUETAKO EUSKALDUN ZAHARRAK ETA EUSKALDUN BERRIAK

“Behin betikoz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukatela konpetentzia, eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik”. Erramun Baxok (1986: 10)

Euskaldun zaharrak euskaldun irautea hain garrantzitsua bada, euskara batuaren ondoan euskalkia ere irakatsi egin beharko da, eta behin euskalkia irakatsiez gero, ez zaizkio maila berean irakatsiko Larrabetzuko neskatilari bizkaiera eta zuberera.

Izan liteke uste duenik euskara batua ikasita bizkaieran ere alfabetaturik geratuko dela ikaslea, ezen euskara bakarra denez, euskalkia aldaera baino ez baita euskara batutik ere honenbeste baino aldentzen ez dena. Irakaskuntzan burutu ditugun inkestetako emaitzek, ordea, ezetz dioskute.

D eredua—hala deitu edo ez euskaraz ikasten den ereduaz ari gara- bikoiztu egiten da: lehen hizkuntza euskara duten ikasleentzat atxikitze-eredu bihurtu behar luke —eta erdialdeko euskalki-gune batzuetan hala gertatzen da, besterik da euskara estandarretik urrundurik direnetan, esate baterako bizkaieran-; lehen hizkuntza gaztelera edo frantsesa dutenentzat, aldiz, murgiltze-eredu bihurtzen da.

CD honetan, atxikitze-ereduko ikasleak euskaldun zaharren testuak entzuten dituzte eta dakitenetik ez dakitenerako metodologian ari dira. Metodologiaren izenari Labayru Ikastegiak eman dio ospea 1970. urtetik gaur egunera artekoan. Jokabide hori guk Ausubelen ikasketa esanguratsuaren barruan kokatuko dugu.

Hezkuntza psikologia guztia printzipio bakarrean bildu behar banu, honelaxe enutziatuko nuke: ikasketan eraginik handiena duen faktorea, ikasleak badakiena da. Iker bedi hori eta irakats dadila kontsekuenteki Ausubel eta lg. (1993: 1)

Ikasleari euskarako aldaera hori —dela Mungiakoa, Bermeokoa zein Lekeitiokoa— ez zaio arrotz gertatzen, nahiz eta bere osotasunean ezagutu ez. Dakienetik abiatzen da, beraz.

Murgiltze-eredukoa, ostera, ohiko ez zaion mintzamoldearen aurrean topatzen da — DBHko ikasleaz eta batxilerrekoaz ari gara-. Honek ez dezake hasieran testu osoa ulertu —ulermena eta ez mintzamina eskatuta ere- gai izan arren galdetzen zaizkion arlo eta itaun jakinei erantzuten.¹

Edonola ere, aipatuz gatozena gaurdainoko egoerarik gehienetarako bada ere, ez da zertan hala gertatu geroan jokabideak aldaturik, zeren metodologia hau Haur es-

¹ Erdaldunek euren lehen hizkuntzako maila — 2. hizkuntzan murgiltze-ereduari esker lortuko dutena— bermatuta dago, bai eskolaz kanpoko inguruagatik, baita 2. hizkuntzan jasotako ikasketen transferentziagatik.

kolatik beretik jarriez gero abian, beste jokaleku batekin aurkituko baikinake DBH-ko bigarren zikloan zein batxilerrean. Adin hartarik erabili izan baziren atxikitze-erdukoentzat eta murgiltze-eredukoentzat estrategia desberdinak, euskalkiaren jabe-kuntza normalizaturik aurkituko zatekeen, beti ere murgiltzera datorren umearen aldamenean den etxetiko euskalduna, uretan baitabil familia erdaldunekoa murgiltze-ra datorrenean.

1.4. CDKO TESTUAK AHOZKOAK DIRA

Ezin ahaztuko dugu, CD honetara batu diren testuak ahoz jasoak direla, eta nahiz eta idatziz ere jarri, ahoz eraikitakoa eta idatziz eginikoa berezitasun desberdinetakoak direla, bai testuari dagokionean –ahozkoan errepikapenak, idatzian ez; ahozkoan etenak, digresioak, idatzian ideia ordenatuak; baita kontestuari dagokionean ere –ahozkoan entzutekoa, idatzian ikustekoa, ahozkoan hitzik gabeko kodeen garrantzi handia, idatzian oso txikia eta abar.

Atxikitze-ereduko neska-mutilei dagokiena da, batetik, ulertzea eta, bestetik, berba egitea, jakinik, berba egite horretan berak etxetik dakarren moldea erabiltzea dagokiola, entzundako testuetatik dakarrena aberastuz.

Murgiltze-eredukoa, bere aldetik, CDko testuen gainean zuzentzen zaizkion itaunak erantzuteko gai izango da, baita ikaskideek gelan erabiliko duten ahozko euskalkiko jarduera osoaz jabetzeko ere, eta erabileran berak dakien euskara batura euskalkiko elementuak jasotzen ere jakingo du –hiztegia, esaera eginak, azentua...-. Adibiderako, ikasiko du bizkaieran badela euskara batuko *lastoaz gainera galtzua*, edo euskara batuan ohikoena den *bi etxe* bezain jatorra dela *etxe bi*, eta halakoak bizkaiera dakienak ez badarabiltza euskaratik desagertu egingo direla.

Hori horrela, murgiltze-eredukoak ahozkoan ere eredu nagusia euskara batua izango du, beti ere, bizkaiera nagusiki ulertu eta aberastasunak atxikirik. Ikasketetik landa, bizitzan zehar, euskaraz bizi bada, inguruko azpieuskalki hori gero eta bereago bilakatuko zaio, seguru asko euskara batuko erregistroari deusola euskalki sundako beste bat eraikiz.

1.5. EUSKARA: HIZKUNTZA ETA KULTURA

CD honetan altxorrik preziatuena hizkuntza da, lekukoen berbeta, lur honetan preindoeuropeoen garaietatik entzun izan dena. Zeozelan esateko, hemen entzuten diren ahotsak –behin betiko gordeak- euskaldun ia elebakarrenak dira, ura euskara izan duten arrainenak. Euskalduna -arraina uretan legez- bizitzako egoera guztietan bizi izan da euskaraz, gaztaroan, zahartzaroan, ezkontzan, hil aginean, adiskidetasunean, lanean zein sineskeretan. Gaztea, aldiz, ez adinagatik, ez eta erdal inguruagatik ez da halako euskal osotasunean topatzen. Eurok dira gure zalantzak argitzeko nor, gramatikarien, hiztegegileen kontsultarako eredu. Irakasle eta ikasleoi ere ezer badagokigu, entzun eta ikastea da, euren taldekide bilakatzea. Hauen osteko euskaldunetarik askok –alfabetatuak izanik- hemengo eta hango euskarak ikasi ditugu, gaitz egiten

zaigu ikasia eta berezkoa bereiztea. Zalantza uneak badatoz, idazle handiengana eta euskaldun betiko fidagarriengana jotzea dugu bidea.

Kultura da, gainera, -hizkuntza eta kultura heuristikarako baino ez ditugu bereizten- CDak bete-betean eskura jartzen diguna. Kultura aurreindoeuroparra, mundu zabaleko biztanleei eskaintzeko daukagun aberastasuna, balio kulturala, agian geuk ere gutxietsi izan duguna. Sineskeriak, idiak uztartzeko teknika, ospakizun kantak..., mi-resgarriak dira begi zuhurretarako, harrigarriak belarri zolientzako.

1.6. HIZKUNTZA UKIPENA: EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIA

Ukipenean dira euskara batua eta euskalkia, euskalki literarioa eta azpieuskalkia pertsona berak txandaka darabiltzanean, eta gizabanakoa da ukipen gunea. Weinreich-en hizkuntza ukipenaren teoria berdin erabil genezake berbeta biren arterako nahiz hizkuntza eta dialektoaren arterako. Euskara batua eta bizkaiera hitzunarengan daude elkar ukitzen, behin batua behin bizkaiera darabiltzanarengan.

Bestalde, ukipenean bizkaiera eta batua diglosiako egoeran dira bata bestearekiko, Ferguson-en irakatsiei jarraitzen bagatzaizkie, sortu ere diglosia hizkuntza eta dialektoaren arteko harremanak azaltzeko sortu zuen eta.

Gainera, pertsonarengan badira ukipenean euskara batua eta euskalkia, koherenteena Ausubel-i jaramon eginik, hezkuntza-prozesuko unitate legez ikaslea hartzea da eta ez ikasgela, praktikarako ere gela berean direla jakinik atxikitze-ereduko ikasleak eta murgiltze-eredukoak.

1.7. EUSKALKIA HETERONOMOA DA

Euskalkiak zer nortasun dauka euskara berbeta bakarra izanik? Euskalkia ez da, dakigunez, beste berbeta bat —eta eskolan ez da elebitasun planteamenduz irakatsi behar- baina hala ere, bizkaierak nortasuna dauka, entitatea. Nortasun horretatik dator- kio euskara baturako ekarriak egin ahal izatea ere —*jausi egin da!*—*jausi da* bereiztea- esate baterako. Bizkaiera heteronomoa da, euskararen euskalkietariko bat, adar bat gainerakoan artean.

Horrexegatik ez dugu hartu CD honetan bizkaiera nozio absolutu legez, erlatibo gisara baino. Bizkaiera ez da eskolan izango H4, H1 (ama-hizkuntza), H2 (bigarren hizkuntza) eta H3 (frantsesa edo ingelesa) diren sisteman.

1.8. BIZKAIERA ETA IRAKASKUNTZA

CD honetako testuen bidez daukaguna dakiguna bilakatu gura da, behin dakigu- nez gero euskara batura ere ekarria egin dezagun.

Irakasleak indartu egin behar du haurrak etxetik ongi dakarrena, oker dakarrena zuzendu eta hutsuneak osatuz joan; umearen ezaguera-gaitasunetatik urrun dagoen eredurik ezar- tzen saiatzeak berekin duen arriskuaz, etxetiko euskararen eta euskara batuaren zilborres-

tearen etetearenaz, jabetzea garrantzitsua da Hezkuntza Sailaren ustean (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1982.).

Hiztunak bere burua identifikatzen duen hizkeratik abiatuak, euskara batuagazko atxikimendua ere bilatzen da, zeren bizkaieradunen bihotzean euskara batua txertatzeko, on baita ikasgeletan batukotzat jotzen diren –eta badiren- forma asko XVII. menderarte bizkaierarenak ere bazirela irakastea, *etor*, *ibil* aditz erroak kasurako. Baita XXI. mendean bizkaiera idatz lezanak kontuan har dezan, *gintzazan* idazten duenean ez XVI, ezta XVII, ez XVIII. mendean ez dela dokumentatzen, bai, ordea, *ginan* edo *ginean*.

Edozelan ere, bizkaiera literarioak eskaintzen digun ahozko euskararen azalpen-rako tresnatasuna ezin gutxietsi genezake, bestela nekez lortuko genuke eta euskalki-ko aberastasunak euskara batuan txertatzea, euskara batutik bizkaierako hiztuna alfabetatzea, eta, ondorioz, bizkaierako lexikoa, joskera, morfologiaren ekarria euskara batura jasotzea, ezen berba bera hogeitaka formatan sartu gurako baikenuke euskara batuan. Horretara, batasunik ezak galaraziko luke bizkaiera azpieuskalkitua Euskal Herri osorako altxorrera igarotzea, zeren pasa dadin tradizioa jo behar da, idatzira lehenik –eta idatzia bizkaiera literarioa da batik bat-, ahozkoa gero, eta ahozko hori ere bizkaierakoon artean adostua, eta adostea zer dea bizkaiera literarioa gaur berreraikitzea besterik.

1.9. CURRICULUMAREN DISEINUA

CD honetan, eskolako curriculumak ikaslearen premia berezietara eta testuinguru-ra egokitu ditugu, curriculum irekiko ereduak hautatuz. Jartzen ditugun jardun edukatiboek landa, irakasleari inizatiba zabala uzten zaio.

Gure ustez, curriculum irekiek abantaila bikoitza dute: alde batetik, aplikazioko testuinguru desberdinak aintzat hartzeko bermea, bestetik, irakaslea bere eginbide profesionalean sortzaile gisa inplikatzeko. Lana, ordea, handiago eskatze du, ezen irakasleei ahalegin eta formazio maila askoz handiagoa eskatzen baitie.

CD hau ikasgelaratzean, gure xedea curriculum irekia osatu beharrak eskatzen duen programazio-tresna egokia eskaintzea da.

Bizkaiera –bizkaiera literarioa eta azpieuskalkia- garatzerakoan, ikasleen ahalmen komunikatiboa gehitzea da gure nahia. Baina ahalmen hori indartzeko hizkuntzaren erabilpena eta horren gaineko hausnarketa dira bide aproposak. Zeren guk badakigu berbeta batez ez dela jabetzen hiztuna berriaz ikasteko ahaleginak egiten diharduenean bakarrik, baizik eta, batez ere, komunikazio-egoera erreal batean murgildurik aurkitzen denan. Hizkuntzaz jabetzearen prozesu inkonszientea jakinaren gaineko ikaskuntza konsziente eta gogoetatsuekin batera gertatzen da. Horren ondorio modura esan daiteke, hizkuntza gizarte emaitza dela, komunikazioaren bitartez transmititua eta erabileran garatua, eta horrexegatik doaz Hizkuntza eta Kultura elkarri guztiz loturik. Bizkaierak, gure ustez, komunikazio egoera erreala nahiz kultura ezaugarri aberatsa eskaintzen dizkio irakaskuntzari.

Hizkuntza Arlo honi loturik beti adierazi beharko da lenguaia, bere funtzio irudikatzailean, garapen kognitiboari josirik dagoela, eta kontzeptualizazioa, kontzeptuen arteko harremana, munduaren irudikapena posibilitatzen dituela, horrela pentsamenduaren garapenari lagunduz.

Eskolak Hizkuntza Arloan duen lehen eginkizuna ikasleek zer jakin behar duten eta zertarako seinalatzea da. Horretarako, baina, aurre-aurrean eduki behar da berberta irakaskuntza-ikaskuntza guztiaren euskarri dela. (...) nahi nuen irakaspide den euskara, ikastoletan eta ikastoletarik gora erabiltzen den euskara, ez daiteke izan, eta ez da, inoren amaren hizkuntza. Hizkuntza nolarebait batua da, nahiz batasun hori herri batekoa izan, eskualde batekoa edo Euskal herri osokoa. *Mitxelena (1970: 26)*

Eskolara iristean –hiru urtegaz- umeen lehen hizkuntzaren lorpen-prozesua aurreratuta dago, eta H1 lortzearen prozesua errefortzatu egiten da eskolatze sasoi osoan. Edozelan ere, eskola-sisteman sartzean haurrek daukaten abiapuntua, hizkuntzari dagokionean, ez da homogenea, zeren familia giroan –bizkaiera dakitenen kasuan- ezagututako hizkuntzaren esperientziak markatzen baititu lorpen diferentziak. Eskolaren helburua, hizkuntza arlo honetan, giro soziokultural eta familiakoan jasan diren eskasiak konpentsatzea da. Konpentsazio hori, ordea, oker bideratu da gehienetan, ezen etxeko ideolekto eta eskolako berbakeraren artean jauzi handiegia egon baita. Ahozkoan handia da jauzia, baldin euskalkia dakiena eskolan berba egiten ikasten jaritzen badugu, ezer ez baleki moduan.

Eskola kultur euskarri bat da ikaslea gizarteratzeko. Euskarri hori hizkuntza aldaera idatzietan eta ahozko maila jasoan oinarritzen da, eta aldaera horietako trebetasunak eta gaitasunak jorratzen ditu bereziki. Baina, hala ere, hizkuntza jokabide gehienak ez dira aldaera formal horietara mugatzen. Garbi dago eskolak ezin duela bere gain hartu ez dagozkion aldaera funtzionalen sustapena, hala nola, izpiritu, bihotz eta intimitatearen esparruetakoak. Horregatik, hizkuntza batzuek bizirik irauteko, behar-beharrezkoa dute euren erabilera areagotzea, bai eskolara joan aurretik bai eskolaz kanpo bai eskola garaia bukatu ondoren ere. *Fishman (2000: 11)*

Bera, aintzat hartu beharreko ondorioa izango da, irakasle, gela eta metodoei eskatzen zaien zubi lana –etxeko eta eskolako hizkeraren artekoa-, baita ostean ikasle berberari eskatuko zaiona, hau da, eskola eta familiaren artekoa. Horretan hizkuntzako irakaslea ezezik irakasle guztiak dira hizkuntza irakasle.

Mintza ekoizpena eta hizkuntzaz kanpoko errealitatea lotzen dituen lan batek baino ez dezake hobe erabilpena. Erabilpen hauei buruzko hausnarketa sistematikoa izango da trebetasun komunikatiboak hobetzeko behar den osagaia. Gaur dakigunetik, hobekuntza hau ezin etor daiteke perpausaren gramatikatik, honek, hizkuntzaren ekoizpen idealen azterketan oinarritzeaz gain, analisi fisikoaren oinarritzat diskurtso-tik datorren perpausa baitu, eta ez testua. Halandaze, erabilpena hobetzeko, hizkuntzaren benetako diskurtsoetan eta testu mota guztietan –ahozko eta idatzizkoetan- oinarritu beharko du, ikasleek hobeto ulertu eta ekoitz ditzan. Hauxe da CD honetako jokabidea, alegia, bizkaierako testu errealetatik abiatzea, ez egoera komunikatibotik at daudenetatik.

Komunikazioko konpetentzia gehitzea edo hobetzea prozedura bikoitzetik elikatzen da: benetako esperientzia komunikatiboetako testuen erabilpenetik eta euroi buruzko hausnarketetatik. Lehen multzoari dagokionez –Hizkuntzen arteko harremanabide bitatik etor liteke hausnarketa: gertakari edo fenomeno sozialetik, edo testuen irakurketa eta entzutetik, CD honetan egiten dugun eran. Multzo honek, nolabait, gainerako multzoak bere gain hartzen ditu. Horren arrazoia datza, elkar ukitzen duten euskara estandar eta euskalki literario eta azpieuskalkien arteko harremanetan, zein hiztunek hizkuntzen egoera sozialaren aurrean dituzten jarrerak ezagutzean eta horrek euren komunikazio gaitasuna hobetzeko interesa sortzean. Multzo honetan izae-ra soziolinguistikoa duten jarrerazko eta kontzeptuzko edukiak batzen ditu. Gainontzeko multzoetan -literatura, komunikabideak, instituzio harremanetako hizkuntza, pertsonen arteko berbeta- egingo da, proposaturiko lau hausnarketa bideen bitartez eta testu errealen bitartez, norbaitek noizbait, nonbait eta helburu konkreturen batekin ekoiztutako testuen bitartez.

1.10. EUSKALKIAREN GAINEKO EDUKIAK

Euskalkien gaineko edukiak aintzat hartzerakoan, CD honetan topatuko dugu:

Kontzeptuzko edukietan

Hizkuntzaren barruko aniztasuna; testuingurua eta hizkuntza; erregistroak testuinguruko elementuekatz daukan menpekotasuna; testua egoerara egokitzea, elementu deitikoak; solaskideak, igorlearen eta hartzailearen betebeharrak soziala ahozko testuetan islaturik; korreferentzia; errekurrentzia, sinonimia, hiponimia, parafrasia, determinazioa; ahozko berbakeran aurkitzen ditugun konektore erdaldunak; morfosintaxia.

Prozedurazko edukietan

Ulermeneko prozeduretan: euskara estandarra, euskalkia eta azpieuskalkiaren arteko ukipenetik datozen fenomenoak; igorlearen asmo eta esanahiak testuinguruarekiko duen menpekotasuna ezagutzea.

Edonola ere, euskalkia etxetik ez dakartenentzat, bizkaiera ulermenezko prozedura da, batez ere ezagutzea; jakinik datorrenarentzat ekoizpenezkoa ere bai.

Ekoizpenerako prozedurak

Ahozko testuak planifikatu eta ekoiztu, gogoan hartuta: erregistroa, tonua, keinua eta koherentzia, zuzentasun gramatikala, hitz jariotasuna eta ebaketa argia. Hementxe eskaintzen da euskalkia lantzeko gune eta aukera ugari.

Ulermenean eta ekoizpenean eragina duten prozedurak

- Testuak transformatu, hizkuntza, bide, helburu, testu motaren arabera.

- Testuak, perpausak, talde sintaktikoak eta berbak transformatu, hau da, zabaldu, aldatu euskalkitik batura eta alderantziz, kendu, desplazatu.
- Testu, perpausak, eta berbak erkatu euskalkien artean eta sailkatu batua, euskalki literario, azpieuskalkien arabera.
- Ikaskuntza estrategiak testuen ulerkuntza eta ekoizpena errazten duten barne prozesuak dira, hau da, prozeduren parte izatera iristen dira. Ama hizkuntzan garatzen dira lehenik, eta gero beste hizkuntzetara transferitzen dira. Prozesu horietan sartzen ditugu : testuan oinarriturik ideia nagusia ateratzea, hiztegiak eta kontsulta materiala erabiltzea, gramatikako arauak deduzitzea, euskarazko forma bizkaierakotik ateratzen jakitea, batuko formatatik bizkaierakoen eratorpena ateratzea...

Jarrerazko edukiak

Euskalkien gaia leku barik izan denez irakaskuntzarik gehienez, legozkiokeen jarrerazko edukiak ez dira ia landu, oraindik gutxiago jarrerazko edukiak eurak curriculum ezkutuan mugitu izan direla.

Hizkuntza eta aldaki desberdinen erabilpenarekiko errespetua eta balorazio positiboa.

Hizkuntzari buruzko hausnarketak norberaren ekoizpen linguistikoak arautzeko duen garrantzia baloratzea.

1.11. HIZKUNTZA ARLOKO HELBURUEN EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK.

Hemen jartzen ditugun irizpideak Hizkuntza Arloa batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ebaluatzeko dira, batxilerrerako ere balio duten arren. Helburuok ICPko irizpideen arabera taiutzekoak dira, eta arloko irakasle taldeak hartzen duen sekuentziaziotik ateratakoak.

Aintzat hartzen dugun orientazio orokorra da, ikaskuntza ez dela ikasleen egitura kognitiboan elementu berriak metatze hutsa, baizik ezagumendu berriak aurrekoekin harreman konplexuen bitartez lotzea ere bai. Ezen informazio flotakorra galdu egiten delarik, ezinbestekoa baita lotura ezartzea ikasi beharrekoa eta jadanik ezaguna denaren artean. Beraz, zenbat eta konplexuagoa eta sendoagoa izan elementu zahar eta berrien arteko harremana, hainbat eta esanguratsuagoa izango dela ikaskuntza.

Erdal familietako seme-alaben euskara maila dela eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako –baita askotan batxilerrako- hizkuntzaren ebaluazioaz esan behar da, begi bistako desfasea topatzen dela daukaten gaitasun kognitiboaren eta euskaran duten gaitasun linguistiko mugatuaren artean.

Frogarik aproposenak

Nekazaritzaren eta arrantzaren eremuetatik datozen testuotan, banan-banako frogak nahiz taldekakoa egin daiteke, ea mezuaren funtsezko edukia jaso duten egiaztatzeko.

Esan dakieke ohar daitezela CD honetako testuak zein motatakoak diren, narrazioak, deskripzioak, azalpenezkoak, argudiozkoak...

Gainera, ikasleek euskalkia eta estandar batuaren erabilera bereizten dakitela erakutsi behar dute, bai eredu bakoitza zuzen erabilia, baita eredu bakoitzaren autonomia zein izaera nahas ditzaketen testuetako interferentziak saihesturik.

Euskal Herrian diren hizkuntza ukipenak identifikatu, lokalizatu eta deskribatu: erdarak eta euskara; euskararen barruan, euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia.

Irizpidearen asmoa ikasleak identifikatzen dituen ala ez jakitea da. Euskal Herrian hitz egiten diren berbetak, euren hedapena, nahiz erdarekin dituzten harremanak, baita dialektoak arau linguistikoarekin duten lekua, eta aldi berean ea ezagutzen dituen ala ez berbeten —eta euskara batua eta euskalkien— arteko kontaktu egoerak azaltzen dituzten eragileak. Irizpide hau lantzerakoan ikaslea inguratzen duen errealitate hurbilenari arreta berezia eskaini behar zaio, hots, azpieuskalkiari.

Hizkuntzaren aldaki sozial ezberdinen ezaugarri linguistiko propioak identifikatu, behaketa zuzena eta ekoizpen desberdinen konparaketaren bitartez.

Ikasleriak hizkuntzaren bariedade sozial desberdinak ezagutzeko duen gaitasuna aztertzen saiatzen da irizpide hau. Elkarrizketa, tertulia, etxeko euskara eredu eta antzeko komunikazio egoera errealak, eta gizarte komunikabideak, elkarrizketa familiarrak eta abar behatuz gizarte eragileek mugatutako hizkera bariedadeen erabilpenaz ohartuko da.

Hizkuntzen ukipenean dihardugunez, guztiz erabakigarria da ebaluazioan ikaslearen erroreak modu egokian bideratzea. Ezer aitzinatu gura bada, ikaslearen motibazioa behar da “kode-hausketa” edo erroreak gainditzeko. Irakasleari, bestalde, aukera ematen diote ikasleriaren ikaskuntz estrategiak ulertzeko; aurkitzen diren zailtasunak neurtzeko eta arazo errealei dagokien pedagogia hartzeko.

Ahozkoan irakaslearen jarrerak ez du zorrotzegiak izan behar, eta errorea prozesuaren parte naturaltzat hartuko du, ikaslearen aldetik adierazpen libreko aukerak erraztuz. Horrek ez du esan gura “denak balio duenik”. Berez, jariakortasuna eta zuzentasunaren arteko oreka doia da lortu beharreko xederik garrantzizkoena.

Gomendagarria da ikuspegi honetatik komunikazio akatsak “erroretzat” eta ez “hutsegitetzat” hartzea.

Errore-mota desberdinak har daitezke kontuan:

Gaitasun erroreak hizkuntza erregela bat ez jakitea adierazten du eta irakaslearen edo taldearen laguntzarekin konpon daiteke.

Ekoizpen errorea, *performance* deritzana. Hizkuntza erregela bat ez aplikatzen da. Ikaskuntzako subjektuak berak zuzen dezakeen “lapsus” bat da.

Erregistro errorea. Erregela soziolinguistiko bat jakin ez edo ez aplikatzen sortzen da.

Metodo erroreak, irakaslearen aldetik, edukien sekuentziazio edo mailakatze desegoki batengatik gerta daitezke, edo prozesuaren une jakin horretan ikasleek behar duten hartze-ekoizteko prozeduretara egokitzen ez den jardute-planteamendu batenatik.

Eredu erroreak, irakasleak oker erabiltzeagatik ikasleengana urtez urte iristen direnak.

Bestalde, behin eta berriro azpimarratu behar da ahalegin berezia egin behar dela inor bere erroreengatik ikaratu edo barregarri senti ez dadin. Jokabideak alderantzizkoak behar du izan, alegia, zuzenketak konfiantza giroan egin behar direla.

1.12. HIZKUNTZA ARLOAREN BERARIAZKO JARDUERA ETA ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK.

Ikasgela

Hasiera-hasieratik baieztatu dugu arlo honetako helburua komunikatzeko gaitasuna hobetzea dela. Horrek ikasgela komunikatu ahal izateko espazioa izan dadin eskatzen du. Komunikatu ikasleak euren artean eta hauek irakaslearekin. Jakina da horretarako irakasleak ikasleak dakiten bezainbat jakin beharko duela batuaz, euskalkiaz zein azpieuskalkiez.

Irakasleen eginkizuna

Irakasleari euskalkian bezala edozein gaitan ezagun zaizkio, printzipioz, hezkuntza prozesuaren finean ikaslearekin konpartitu nahi dituen esangurak, eta ezagupen honetaz baliatzen da irakaskuntza planifikatzeko. Beste berba batzuetan, irakaslearen ezagutzaren eraikuntzan irakasleak gidatzen du prozesua, irakasleari parte harraraziz zeregin eta ekimenetan zeinetan eraikiz joango den gero eta eskolako curriculumetik hurrago egongo diren esangurak.

Honetarako, baina, ezinbestekoa da irakaslea bera ere euskararen kodigoa sakinago eta zabalago ikasteari uko eginik ez aurkitzea, hots, maila baterainokoa dakielarik, dakien horrexetan betiko kokaturik ez egotea.

Ikasleen eginkizuna

Tradizioz irakasleari zegozkion hainbat eta hainbat zeregin ikasleak bere gain hartzen baditu, ikasle horrek nahi eta nahi ez jarrera aktiboa hartu behar du. Orduan, zelan ez abiatu irakaslearen euskaratik? Ikasleak aktiboki parte hartu behar du, benetako elkarrekintzan jardunez ikasgelan edo ikastetxean, bai irakaslearekin edo lagune-

kaz, bere baitan eraikiz berezko ikaskuntza. Horrek ikasi beharreko gaia esanguratsua, funtzionala eta bere nahien barruan dagoena izatea eskatzen du, benetako motibazioa izan dezan. Ikasleria, beraz, ezin manten dezakegu entzule hutsaren zeregin pasiboan, batez ere berak dakarren euskara kanporatu gura badugu.

Ikasgelaren barruan sortzen den diskurtso interaktiboan, hizkuntza “inputaren” iturburu bakarra ez du irakasleak edukiko ikaslearen hizkera aintzat hartzen bada, ahaztu barik ahozko eta idatzizko testuak eta ikus entzuteko materiala, CD hau, alegia.

Ikasgelaz kanpoko mundua

Eskolako eguzkia heltzen ez den leku eta txoko asko dago neska-mutilen ikas-tetxetik kanpoko bizitzan. Dena ezin eskatuko diogu irakaskuntzari, bestela bizitza osoa ikastola edo eskolaren baten pasatu beharko genuke. Hala ere, berbetaren arlo honetan, eskolatik erraz jar genezake ikaslea kanpoko munduan erabiltzen den euskarari begira -aitaita-amamen berbakerari, elizakoari, gurasoenari, telebistan eta irratian entzuten denari begira- eta irakats dakioke entzuna jaso eta ikasgelaratzen. Horretara bideraturiko jarduerak ere lagun diezagukete: inkestek, elkarrizketek, gurasoei zentroak zuzenduriko gutunek, materialen bilketek eta halakoek Modu honetara, hur-hurretik ezagutu eta jabetu ahalko gara bizimoduan darabilgun dialektotoaz, ahozkoaren eta idatziaren arteko desberdintasunaz, ikasgelan imitatu baino ezin direnak. Hementxe ikusiko dugu ia inon baino gardenago, planteatzen dugun euskararen barruko diglosian azpieuskalkiak ere zenbaterainoko tokia eskura dezakeen.

1.13. ESTRATEGIA ETA JARDUEREN DISEINUA

Irizpide orokorrak hizkuntza arloarekin duten harremana

Euskalkia eta euskara estandarren jorran ere taldeko kide guztiek alde zuzetik ezagutu behar dituzte gelan hasten diren lan guztiak, hau da, zer egingo den, ikastordua nola igaroko duten, eta lortu beharreko helburua zein den jakin behar dute. Beste modu batera esanda, irakasle eta ikasleen artean kontratu didaktikoa ezarri behar da, irakaskuntza-ikaskuntza lanetan zer, nola eta zertarako lantzen den negoziatuz. Horrela jokatu ezik, batuarena baino izan ez den ikasgelako esparruan etxeko berbakera edo bizkaiera literarioa integratzea zail gertatuko da –neure irakasle jardueran ezagutu dut batukoengandiko gutxiespena- eta proposatzen dugun jokabide honetan kontratu didaktikoa burutzeko ezinbesteko da ikasleen adostasun partehartzailea. Horrexegatik suertatzen da hain beharrezko lankidetzarako konfiantza, elkarrenganako begirunea emango duen giroa sortzea. Irakasleak, bere aldetik, prestigiatu egin beharko du ikasleen artean euskara batuarekin batera, ikasleatarik batzuk dazaguten bizkaiera literarioa eta azpieuskalkia –*begiya* edo *behixe* ahoskatzea lege zientifikoetan oinarritzen dela azalduta; Brixton-en, Londres-en bertan, Tamesis-en hegoaldean, ez dutela *h*-rik ahoskatzen...-

1.14. MATERIAL ETA BALIABIDE DIDAKTIKOAK: CDA.

Irakasleen zeregina erabat garrantzitsua dela onartzen badugu ere, irakastean agertzen diren arazoak anitzak izanik, hain bitarteko lagungarriak diren material didaktikoetan jarri behar dugu begia.

Testu liburua kontsulta material bakarra izan ez dadin, laguntza baliotsua izan gura luke CD honek. Erabiltzailea erraz ohartuko da, grabaketak egoki-egokiak direla eta beraietan aztertu ahalko dituela –euskalkiaren bitartez- arau soziokomunikati- boak, batez ere ordenagailuan entzun ahala herritarren berbakera pantailan irakurriz.

Edozelan ere, ikasketako helburuak hain espezifikoki zehaztu behar dira non ikaslearentzat ebidenteak gertatuko diren ikasi beharreko kontzeptuak edo printzi- pioak, eta halako hizkeran formulatuak non erraz-erraz jarriko duten lotura ikasleek bazekitenaren eta ikasi beharreko kontzeptu berrien artean.

1.15. CDKO ARIKETAK

Ariketetarako erabili dugun teoria Krashen et al. (1979)engandik jaso da. Bada- kigu umezaroan lehen hizkuntza berez-berez eta oharkabean ikasten dugula, irakas- kuntza formalik gabe, programazio barik.

Bigarren hizkuntzaren ikasketa ere ahozko eta idatzizko testuak ulertuz –testu errealak- ikasten dugu, batez ere testuko edukian arreta jarritz. Arreta jartze hori, gai- nera, aktiboa izan ohi da.

Zenbait testutan eskaintzen den eredu monolitiko, kultu eta neutroren aurrean, *Esaldiak eta Testu Ereduek* izeneko CD honetan, euskalkitik datorren aberastasuna eta ugaritasuna aurkituko da, berbetaren baliabide sortzaile guztiekaz batera.

Era beran, ulertzen dugu, gramatikako arauak lagungarri eta beharrezko direla, baina ez ardatz, zeren neska-mutilak oroimen onez eta pazientziaz berbetaren egitura nahiz perpausen funtzioez jabetzera iristen badira ere, hizkuntzaren benetako erabile- ran oso praktika gutxi egiten baita.

CDaren erabiltzaileetan atxikitze-eredukoak eta murgiltze-eredukoak ditugun arren, ariketa molde bakarrera jo dugu.

1.16. SEKUENTZIAZIOKO IRIZPIDEAK

Edukien trataera zikloka eta gero eta sakonago egitekoa da. Deklinabidea 3 urte- gaz agertuko da eta 13gaz ere bai. Ez da kontua, ordea, bizkaiera noiz arte, baizik zi- klo bakoitzean zenbaterainoko bizkaiera.

Lehen zikloan eduki orokorrak eta oinarrizkoak landuko dira, eta sakontzea nahiz espezializazioa bigarrean.

Dokumentuan zehar aipatuz gatozenez, hizkuntza arloaren egituraketa funtsezko bi ardatzetan oinarritzen da: hizkuntzaren erabilpena –ikaskuntzako progresioa aha-

legin konstziente nahiz mekanismo inkonstzienteen bidez hartzen da- eta erabilpen horri buruzko hausnarketa, zeinaren xedea erabilpen berberori hobetzea den. Hausnarketa hiru bidetan egiten da: testuingurua, testuaren antolaketarena, eta morfosintaktikoa. Eduki multzoak testu tipologiaren bitartez hiru eduki motekin erlazionatzen dira: prozedurazkoak, kontzeptualak eta jarrerazkoak.

1.17. ANIZTASUNAREN TRATAERA

Euskarak oraindik bizi duen diglosia egoeran nahiz euskal diglosiaren barruan euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkiaren ukipen egoeran, bada aniztasunerako lekurik, bai curriculuma egokitzeko zein curriculumaren dibertsifikaziorako, behar izanez gero.

Erdal gune handietan, ikaslea euskalki bateko lurretatik bestera aldatu denean, edo etxeko euskara jakinda B edo A ereductan dabilenean, euskara estandarra, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak egokitzapena behar du.

1.18. EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

Ebaluazio lanak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen zati funtsezkoa dira eta sekuentzia didaktiko ezberdinen bitartez egituratzen dira. Curriculum Diseinua enmarratzen duten printzipio psikopedagogikoen definitzen duten Hizkuntza Arloko ebaluazioak objektu hirukoitza edukiko du: ikasle bakoitzak lorturiko ikaskuntza maila, sekuentziaren garapena eta irakaslearen lana sekuentzia didaktikoaren garapenean zehar.

Euskalkiaren gaineko sekuentzia didaktiko baten ere, ikasleen jardura ebaluatzeko irakaslea behaketa sistematikoa egitera behartuta dago. Komunikazio gaitasuna jasotzeak eskatzen duen hainbesteko testu kopurua irakurtzeko eta analizatze bide oso praktikoa da, zuzenketak –bermedun ikasleen laguntzaz- taldean gauzatzea eta ikasleen autozuzenketa ohiturak bultzatzea. Euskalkia dela eta dihardugunean, bermedun ikasleok etxetikoa dakitenak izaten dira, eta euskara estandarerako guraso euskaldunen seme-alabak nahiz erdaldunenak, baina beti inortxo ere albo batera laga barik.

Absolutoki beharrezkoa da idatzizko frogez gainera ahozkoak ere egitea, baldin dioguna ikasleriak aintzat har diezagun nahi badugu.

2. EDUKIAK

Atal honetan, irakaslearen beharra errazteko, CDaren bidez landu gura diren edukiak agertzen dira. Edukiok, hiru atal nagusitan banatuta emango ditugu, esaldi eredu orokorrak, testuak eta lexikoa.

2.1. ESALDI EREDU OROKORRAK

CDan dauden herri eta eskualde bakoitzaren esaldi eredu desberdinak agertzen badira ere, hemen eredu orokorrak baino ez ditugu ipiniko, izan ere, eurok dira ariketen oinarri eta; gainerako ereduak CDan bertan kontsulta daitezke.

JUNTAGAILUAK

ETA

(1)

ez dau ezer erosi eta dana jan dau (Abadiño) - (ez du ezer erosi eta dena jan du)

(2)

hartu eik hori umeori jausiko dok eta (Zornotza) - (*har ezak ume hori jausiko duk eta*)

BE/BERE

afaria egin dot eta etxea be garbitu dot (Abadiño) - (*afaria egin dut eta etxea ere garbitu dut*)

ekarri dot jatekoa eta ogia bere erosi dot (Meñaka) - (*ekarri dut jatekoa eta ogia ere erosi dut*)

BE BAI/BERE BAI

bazkaria ekarri dabe eta oraindino ardaa be bai (Otxandio) - (*bazkaria ekarri dute eta oraindino ardaa ere bai*)

horrek egin dau bazkaria eta afaria bere bai (Meñaka) - (*horrek egin du bazkaria eta afaria ere bai*)

BE EZ/BERE EZ

umea ez da etorriko eta aita be ez (Larabetzu) - (*umea ez da etorriko eta aita ere ez*)

umea ez da etorriko eta aita bere ez (Leioa) - (*umea ez da etorriko eta aita ere ez*)

BAITA BE

ekarri dot jatekoa eta baita be ogia erosi dot (Ermua) - (*ekarri dut jatekoa eta baita ere ogia erosi dut*)

BAITA... BE BAI

amak egin dau bazkaria eta baita afaria be bai (Bermeo) - (*amak egin du bazkaria eta baita afaria ere bai*)

... BAKARRIK EZ ... BE

eurak bakarrik ez dira etorri neu be eura-kin etorri naz (Abadiño) - (*eurak bakarrik ez dira etorri neu ere eurekin etorri naiz*)

... BAKARRIK EZ.... EZPABE

umea bakarrik ez da etorriko ezpabere ama be bai (Zeberio) - (*umea bakarrik ez da etorriko ezpabere ama ere bai*)

... BAKARRIK EZ.... EZPADAZE

ez bakarrik ekarriko dau ogia ezpadaze ardaa bere bai (Meñaka) - (*ez bakarrik ekarriko du ogia ezpadaze ardaa ere bai*)

EDO

neu joango naz edo umea bialduko dot (Aulestia) - (*neu joango naiz edo umea bialduko dut*)

ALA

ez dakit hemengoak badira ala Bilbokoak badira (Nabarniz) - (*ez dakit hemengoak diren ala Bilbokoak diren*)

BAI... BAI...

bai basoan eta bai etxean beti dabil beharrean (Abadiño) - (*bai basoan eta bai etxean beti dabil beharrean*)

BE... BE...

porruak be ekarri ditue eta piperrak be ekarri ditue (Otxandio) - (*porruak ere ekarri dituzte eta piperrak ere ekarri dituzte*)

BE BAI... BE BAI...

etxean be bai eta kalean be bai beti dagoz berbetan (Aulestia) - (*etxean ere bai eta kalean ere bai beti daude berbetan*)

BE EZ... BE EZ...

ez da ekarriko jana be ez eta afaria be ez (Artea) - (*ez da ekarriko jana ere ez eta afaria ere ez*)

EZ... EZ...

nik ez dot salduko ez automobilik eta ez etxerik (Ondarroa) - (*nik ez dut salduko ez automobilik eta ez etxerik*)

EDO... EDO...

edo etxean edo basoan beti dabil beharrean (Arteaga) - (*edo etxean edo basoan beti dabil beharrean*)

ZEIN

etxean zein kanpoan bero handia dago (Arteaga) - (*etxean zein kanpoan bero handia dago*)

ZEIN... ZEIN...

zein etxean zein kalean beti euskeraz egiten dau (Arteaga) - (*zein etxean zein kalean beti euskaraz egiten du*)

NAHI

zuek joan nahi gu joan bardin da (Artea) - (*zuek joan nahi gu joan berdin da*)

NAHI... NAHI...

nahi kalean nahi etxean beti daukagu beharra (Elantxobe) - (*nahi kalean nahi etxean beti daukagu beharra*)

... EZ EZE

ogia ez eze ardaua be ekarriko dabe (Muxika) - (*ogia ez eze ardoa ere ekarriko dute*)

BAT... BESTE...

batak ekarri eban ogia eta besteak ekarri eban ardaua (Forua) - (*batak ekarri zuen ogia eta besteak ekarri zuen ardoa*)

ALDE BATETIK/ALDERDI BATE-TIK

ba alde batetik bildurra daukat baina beste alde batetik joan gura neuke (Otxandio) - (*ba alde batetik bildurra daukat baina beste alde batetik joan gura nuke*)

alderdi batetik bildur naz baina bestetik joan egin gura dot (Muruetta) - (*alde batetik bildur naiz baina bestetik joan egin gura dut*)

BATETIK

batetik etorri gura dabela dinoe baina bestetik kotxerik ez daukiela (Gatika) - (*batetik etorri gura dutela diote baina bestetik autorik ez daukatela*)

PARTE BATETIK

alde batetik ba etorri gura dabe, baina bestetik ba ez daukie kotxerik etorteko (Elantxobe) - (*alde batetik bada etorri gura dute, baina bestetik bada ez daukate autorik etortzeko*)

BAINA

etorriko dala esan dau baina nik esteutsat sinesten (Forua) - (*etorriko dela esan du baina nik ez diot sinesten*)

eguraldi ona dago baina arratsaldean eurria egingo dau (Ermua) - (*eguraldi ona dago baina arratsaldean eurria egingo du*)

OSTERA

txakurra baltza da baina katue osterazuria (Forua) - (*txakurra beltza da baina katua osterazuria*)

txakurra da baltza katua osterazuria (Orozko) - (*txakurra da beltza katua osterazuria*)

BARREZ/BARRETZ

txakurra baltza da baina barrez katua zuria (Otxandio) - (*txakurra beltza da baina katua berriz zuria*)

atzo barretz jendez beterik egon zan, eta gaur, gaur bat be ez (Elantxobe) - (*atzo berriz jendez beterik egon zen, eta gaur, gaur bat ere ez*)

BARREN

zelan esango deusut ba! ez dakit barren (Zaldibar) - (*zelan esango dizut bada! ez dakit barren*)

HA ETA GUZTI BE/BERE

hiruretan etorriko dira halan eta guzti be berandu da (Muruetan) - (*hiruretan etorriko dira eta hala eta guztiz ere berandu da*)

HORI ETA GUZTI BE

etorriko da hiruretan baina hori eta guzti be berandu da (Zeanuri) - (*etorriko da hiruretan baina hori eta guzti ere berandu da*)

HALAN BE/BERE

hiruretan etorriko dira eta halan be berandu da (Muxika) - (*hiruretan etorriko dira eta hala ere berandu da*)

kotxean datoz baina halan bere belu izango da (Gatika) - (*autoan datoz baina hala ere berandu izango da*)

HOLAN BE

hiruretan etorriko dira baina holan be berandu izango da (Basauri) - (*hiruretan etorriko dira baina hala ere berandu izango da*)

HALAN ETA GUZTI BE

etorriko dira hiruretan baina halan eta guzti be izango da berandu (Igorre) - (*etorriko dira hiruretan baina hala eta guzti ere berandu izango da*)

bai etorriko dira kotxean baina halan eta guzti belu izango da (Sopela) - (*bai etorriko dira autoan baina hala eta guzti belu izango da*)

HOLAN ETA GUZTI BERE

hiruretan etorriko dira holan eta guzti bere belu izango da (Mungia) - (*hiruretan etorriko dira hala eta guzti ere berandu izango da*)

OSTERANTZEAN

dana jan behar dozu osterantzean txikia geratuko zara (Forua) - (*dena jan behar duzu osterantzean txikia geratuko zara*)

EDO OSTERANTZEAN

etxean egongo da edo osterantzean tabernan (Bakio) - (*etxean egongo da edo osterantzean tabernan*)

ZE OSTERANTZEAN

hementxe ipini behar dot ze osterantzean ez dago lekurik (Ubidea) - (*hementxe ipi-*

ni behar dut ze osterantzean ez dago lekurik)

EZPERE

neu joango naz ezpere umea bialduko dot (Zamudio) - *(neu joango naiz ezpere umea bidaliko dut)*

EZPABE/EZPABERE

egongo da etxean ezpabere tabernan (Dima) - *(egongo da etxean ezpabere tabernan)*

hartu eizu hori umeori ezpabere jausiko da eta (Iurreta) - *(har ezazu ume hori ezpabere jausiko da eta)*

EDO EZPABE/EZPABERE

neu joango naz edo ezpabere umea botako dot (Galdakao) - *(neu joango naiz edo ezpabere umea bidaliko dut)*

ZE EZPABE/EZPABERE

kotxean joan beharko dogu ze ezpabere berandu ailegauko gara (Zeberio) - *(autotan joan beharko dugu ze ezpabere berandu ailegatuko gara)*

EZPADAZE

hori ez da berdea ezpadaze azula (Sopela) - *(hori ez da berdea ezpadaze urdina)*

BESTELA/BESTELAN

hementxe ipini behar dogu bestela ez dago lekurik (Lekeitio) - *(hementxe ipini behar dugu bestela ez dago lekurik)*

dana jan behar dozu bestelan txiki geratuko zara (Ermua) - *(dena jan behar duzu bestela txiki geratuko zara)*

EDO BESTELA/EDO BESTELAN

ondo egin behar da edo bestela ezer be ez (Aulestia) - *(ondo egin behar da edo bestela ezer ere ez)*

neu joango naz edo bestelan umea bialduko dot (Ondarroa) - *(neu joango naiz edo bestela umea bialduko dut)*

ZE BESTELA/ZE BESTELAN

hementxe ipini behar dot ze bestela ez dago lekurik (Etxebarria) - *(hementxe ipini behar dut ze bestela ez dago lekurik)*

hementxe ipini behar dot ze bestelan ez dago lekurik (Ondarroa) - *(hementxe ipini behar dut ze bestela ez dago lekurik)*

ZE

eroan eizu aterkia ze euria egingo dauala pentsetan dot (Arteaga) - *(eroan ezazu aterkia ze euria egingo duela pentsatzen dut)*

ZE... ETA

banoa ze trenak ensegida urteten dau eta (Forua) - *(banoa ze trenak behingoan ir-teten du eta)*

EZE

(1)

hori ikusten badot hori gauzea etxean ikusten badot hori, eta esaten dot eze, e! hori neuk erosikoa da (Bermeo) - *(hori ikusten badut gauza hori etxean ikusten badut hori, eta esaten dut ezen, e! hori neuk erosirikoa da)*

(2)

ez da etorri eze belu da (Lemoiz) - *(ez da etorri ezen berandu da)*

ZEGAITIK ZE

ba eroan aterkia zergaitik ze euria egingo dauala (Lekeitio) - *(ba eroan aterkia ze euria egingo du)*

HAIN

hain dago bero handia ezin da beharrik egin (Arteaga) - (*hain dago bero handia ezin da beharrik egin*)

HAIN... ZE

hain da handia ze atetik ezin leiteke sartu (Forua) - (*hain da handia ze atetik ezin daiteke sartu*)

HAIN... ZEIN

hain da handia zein ez da sartzen atetik (Sopela) - (*hain da handia zein ez da sartzen atetik*)

HATAINOAN

hatainoan handia da atetik be ez da sartzen (Zamudio) - (*hatainoan handia da atetik ere ez da sartzen*)

HAGAITIK

hagaitik ezin geinke holan ezer egin (Arteaga) - (*hagaitik ezin dezakegu honela ezer egin*)

HALANDAZE

halandaze badakizu zer egin behar dozun (Gatika) - (*halandaze badakizu zer egin behar duzun*)

HOLANDAZE

holandaze badakizu zer egin behar dozun (Lemoiz) - (*holandaze badakizu zer egin behar duzun*)

ASIKE

asike ezin dogu ezer be egin (Murueta) - (*halandaze ezin dugu ezer ere egin*)

MENPERAGAILUAK

-LA

KONPLETIBOA

esan dauat neuk egingo dudala (Lezama) - (*esan diat neuk egingo dudala*)

MODALA

argia joan da afaltzen gagozala (Zamudio) - (*argia joan da afaltzen gaudela*)

-LA + SUBJUNTIBOA

esaiok horreri etorri daitela (Lezama) - (*esaiok horri etor dadila*)

BAZE... -LA

esan dau baze etorriko dala (Aulestia) - (*esan du baze etorriko dela*)

ZE...-LA

esan leike ze ez dauala euririk egin behar (Ondarroa) - (*esan liteke ze ez duela euririk egin behar*)

EZE... -LA

Mikelek esan dau eze beraren laguna etorri dala (Sopela) - (*Mikelek esan du ezen beraren laguna etorri dela*)

-LAN

itxita egongo dalan etxean lotu naz (Gatika) - (*itxita egongo delakoan etxean geratu naiz*)

-LAKO

ez da etorri belu dalako (Meñaka) - (*ez da etorri berandu delako*)

-LAKOA

etorri diralakoa daukat (Meñaka) - (*etorri direlakoa daukat*)

-LAKO GOGORRA

bota deutsalako gogorra euki dot (Gatika) - (*bota diodalako gogorra eduki dut*)

-LAZKOA

nago, ekarri daualazkoa (Arrankudiaga) - (*nago, ekarri duelakoan*)

-LAKOAN

(1)

egin dau dakialakoan (Forua) - (*egin du dakielakoan*)

(2)

damutu jat ez dodalakon jan dana (Bermeo) - (*damutu zait ez dudalako jan dena*)

-LAKOTAN

hau esate baterako hau ekarrizkero ba ekarri daualakotan nago (Ermua) - (*hau esate baterako hau ekarriz gero bada ekarri duelakotan nago*)

-LAKOTZAT

hori etorri dalakotzat egon naz (Dima) - (*hori etorri delakotzat egon naiz*)

-LA-TA

egon naz etorri egin dala-ta (Elantxobe) - (*egon naiz etorri egin dela eta*)

-LA BERE/BE

edo gura ez dala be egin egin dau (Murrueta) - (*edo gura ez dela ere egin egin du*)

gura ez dauala bere egin egin dau (Gatika) - (*gura ez duela ere egin egin du*)

-N

ERLATIBOA

etorri dan gizona kanpoko da (Artea) - (*etorri den gizona kanpoko da*)

ZE HAR GALDERA

ez jakiat nor etorri dan (Forua) - (*ez zakiat nor etorri den*)

ez dakit etorri dan (Arrazola) - (*ez dakit etorri den*)

SUBJUNTIBOA + N

jagon eik hori umea jausi ez daiten (Forua) - (*jagon ezak ume hori jausi ez dadin*)

ez dot gura egin daizun (Abadiño) - (*ez dut gura egin dezazun*)

ZEIN + SUBJUNTIBOA + N

koiu hori umeori zein jausi daiten (Orozko) - (*hartu ume hori zein jausi dadin*)

ZE + SUBJUNTIBOA + N

koiu eizu guardasola euria egin ze daian (Sopela) - (*har ezazu aterkia euria egin ze dezan*)

-NA

konturatu naz hor dagoana (Arteaga) - (*konturatu naiz hor dagoena*)

-NIK

ez dabe esan akabau dabenik (Forua) - (*ez dute esan amaitu dutenik*)

-NEZ

berak esan dauanez, gero etorriko da (Forua) - (*berak esan duenez, gero etorriko da*)

-NEAN

etorten danean esango jotseat (Forua) - (*etortzen denean esango zioat*)

-NEKO

(1)

zarratuten joan nazeneko giltza apurtu da (Bermeo) - (*ixten joan naizenean giltza apurtu da*)

(2)

datorreneko akabauta dauka (Errigoitia) - (*datorreneko amaituta dauka*)

-NERAKO

ba gu joan ginanerako eurak joanda egon ziran (Arteaga) - *(ba gu joan ginenerako eurak joanda egon ziren)*

-NETIK

esan dauanetik, gero etorriko dira (Murueta) - *(esan duenez, gero etorriko dira)*

etorri danetik ez dot ikusi (Arrazola) - *(etorri denetik ez dut ikusi)*

hori kanpokoan danetik, ez daki euskeraz (Ondarroa) - *(hori kanpokoan denez gero, ez daki euskeraz)*

-NDIK

ba esaten dauandik bihar etorriko dira (Otxandio) - *(bada esan duenez bihar etorriko dira)*

-NENTZ

ea hori bakarrik badagoanentz (Bermeo) - *(ea hori bakarrik badagoanentz)*

-NAGAITIO

esan dauanagaitio bihar etorriko dira (Zeberio) - *(esan duenagaitio bihar etorriko dira)*

-N EZKERO

(1)

etorri dan ezkerok ez dot ikusi (Kortezubi) - *(etorri denez gero ez dut ikusi)*

(2)

hemen gagozan ezkerok ikusten joango gara (Murueta) - *(hemen gaudenez gero ikusten joango gara)*

(3)

hasi zaran ezkerok amaitu eizu (Zaldibar) - *(hasi zarenez gero amaitu ezazu)*

-NIK HONA

etorri danik hona ez dot ikusi (Arteaga) - *(etorri denik hona ez dut ikusi)*

-NIK HARREZKERO

etorri danik harrezkero ez dot ikusi (Otxandio) - *(etorri denik harrezkero ez dut ikusi)*

-NETIK HONA

hori ekarri dauanetik hona ez da etorri (Zamudio) - *(hori ekarri duenetik hona ez da etorri)*

-N ORDUAN

etorri zaran orduan ikusi zaitut (Arteaga) - *(etorri zarenean ikusi zaitut)*

-N ORDURAKO

gu etorri ginan ordurako horreek joanda egon ziran (Arteaga) - *(gu etorri ginenerako horiek joanda egon ziren)*

-N ORDUKO

gu joan ginan orduko joanda egon ziran (Zeberio) - *(gu joan ginenerako joanda egon ziren)*

-N ARTEAN

beno zuek amaitzen dozuen artean etxera joango naz (Arteaga) - *(beno zuek amaitzen duzuen artean etxera joango naz)*

-N ARTE

zuek amaitzen dozuen arte ni errekaduak egiten joango naz (Arteaga) - *(zuek amaitzen duzuen arte ni errekaduak egitera joango naz)*

-N BITARTEAN

zuek amaitzen dozuen bitartean joango gara etxera (Abadiño) - *(zuek amaitzen duzuen bitartean joango gara etxera)*

-N BAKOTXEAN

datorren bakoitzean dakar zer edo zer (Arteaga) - (*datorren bakoitzean dakar zer edo zer*)

-N BAKOTXEKO

berba egiten dauan bakoitzean lelokeriaren bat esaten dau (Dima) - (*berba egiten duen bakoitzean lelokeriaren bat esaten du*)

-N GUZTIETAN

datorren guztietan ekarten dau zer edo zer (Galdakao) - (*datorren guztietan ekartzen du zer edo zer*)

-N GUZTIAN

datorren guztian dakar zer edo zer (Muxika) - (*datorren guztian dakar zer edo zer*)

-N LEZ

(1)

gaur astelehena dan lez beharrean joan gara (Forua) - (*gaur astelehena denez gero lanera joan gara*)

(2)

lehen egiten zan lez egiten da hori (Gatika) - (*lehen egiten zen legez egiten da hori*)

-NA LEZ

hori kanpokoana dana lez, ez daki euskera (Dima) - (*hori kanpokoana denez gero, ez daki euskaraz*)

-N LAKOA

erosi dot gaztai bat zeuk ikusi dozun lakoa (Arteaga) - (*erosi dut gaztai bat zeuk ikusi duzuna bezalakoa*)

-N MODUKO

(1)

ekarri da gaztaia zeuk ikusi dozun modukoa (Muruetan) - (*ekarri da gaztaia zeuk ikusi duzun modukoa*)

(2)

hau da neuk ekarri neban moduko txikia (Forua) - (*hau da neuk ekarri nuen moduko txikia*)

-NA MODUKOIA

ba ekarri dot gaztai bat zuk ikusi dozuna modukoa (Ubidea) - (*bada ekarri dut gaztai bat zuk ikusi duzuna modukoa*)

-N MODUAN

(1)

egin dogu zuk esan dozun moduan (Arteaga) - (*egin dogu zuk esan duzun moduan*)

(2)

horrek ez daki ezer baina dakian moduan berba egiten dau (Abadiño) - (*horrek ez daki ezer baina dakien moduan berba egiten du*)

(3)

gaur astelehena dan moduan beharrean joan gara (Dima) - (*gaur astelehena den moduan beharrera joan gara*)

-N MODURA

egin dogu zuk esan dozun modura (Lekeitio) - (*egin dogu zuk esan duzun modura*)

horrek gastetan dau aberatsa dan modura (Elantxobe) - (*horrek gastatzen du aberatsa balitz moduan*)

-N MODULEZ

horrek egiten jok berba dakian modulez (Lezama) - (*horrek egiten dik berba dakien moduan*)

-N ERARA

koiten dituan erara jan egiten ditu (Leioa) - (*hartzen dituen erara jan egiten ditu*)

-N ANTZEKOA

ba erosi deusat jaka bat amak daukan antzekoa (Arteaga) - (*bada erosi diot jaka bat amak daukan antzekoa*)

-NAREN ANTZEKOA

erosi dot jaka bat amak ekarri ebanaren antzekoa (Meñaka) - (*erosi dut jaka bat amak ekarri zuenaren antzerakoa*)

-N GAIN

irabazten daben gain gastau egiten dabe (Nabarniz) - (*irabazten duten gaina gastatu egiten dute*)

-N GAINA

ama! zeuk esan deustazun gaina ekarri deusut, e? (Bermeo) - (*ama! zeuk esan didazun gaina ekarri dizut, e?*)

-N BESTE

ekarri dogu amak esan dauan beste (Forua) - (*ekarri dugu amak esan duen beste*)

-N BESTEAN

egiten dituan bestean saldu egiten ditu (Muruet) - (*egiten dituen bestean saldu egiten ditu*)

-N BESTEKO

hau da, zeuk ekarri dozun besteko txikia (Arteaga) - (*hau da, zeuk ekarri duzun besteko txikia*)

-NAREN BESTEKO

hau da zeuk ikusi zenduanaren besteko handia (Forua) - (*hau da zeuk ikusi zenuenaren besteko handia*)

-N NEURRIAN

ba egiten dauan neurrian saldu egiten ditu (Ubidea) - (*bada egiten duen neurrian saldu egiten ditu*)

-N GAINOAN

dan gainoan iregi (Jafabe) - (*den ginoan ireki*)

-N MEDIDAN

egiten dauan medidan saltzen ditu (Bakio) - (*egiten duen neurrian saltzen ditu*)

-N TAMAINUAN

hartzen dauan tamainuan gastetan dau (Ermua) - (*hartzen duen neurrian gastetzen du*)

ZELAN ... -N

(1)

konturatu naz zelan etorri diran (Muxika) - (*konturatu naiz zelan etorri diren*)

(2)

zelan datozen halan jesarten dira (Arteaga) - (*zelan datozen halan jesartzen dira*)

(3)

gaur be zelan astelehena dan joan gara beharrean (Abadiño) - (*gaur ere zelan astelehena den joan gara beharrera*)

ZEIN...-N MODUAN

horrek gastetan dau zein aberatsa dan moduan (Fruiz) - (*horrek gastatzen du zein aberatsa den moduan*)

ZEINDA...-N MODUAN

harek hau esan dau zeinda berak dana da-
kian moduan (Forua) - (*hark hau esan du
zeinda berak dena dakien moduan*)

SEGUN ZELAN... -N

segun zelan hartzen dan jaten da (Bustu-
ria) - (*zelan hartzen den jaten da*)

SEGUN... -N MODUAN

(1)

segun batzen dodazen moduan jaten do-
daz (Axangiz) - (*batzen ditudan moduan
jaten ditut*)

(2)

horreek segun esan daben gero etorriko
dira (Buja) - (*horiek esan dutenez gero
etorriko dira*)

SEGUN... -NEZ

segun horreek esan dabenez saldu egingo
dabe etxea (Forua) - (*horiek esan dutenez
saldu egingo dute etxea*)

ZENBAT... -N

zenbat eta gehiago dakarzun hobeto
(Busturia) - (*zenbat eta gehiago dakar-
zun hobeto*)

AUNKE... -N

aunke denbora txarra dagoan basora joan
gara (Arteaga) - (*eguraldi txarra dagoen
arren basora joan gara*)

IAKE... -N/IAKETA... -N

iake hasi dogun amaitu (Elantxobe) -
(*hasi dugunez gero amaitu*)

iaketa zeuk dakizun esaizu zeuk (Gatika)
- (*zeuk dakizunez gero esazu zeuk*)

BA-

BALDINTZA ERREALA

(1)

etorten bada berba egingo dot beragaz
(Buja) - (*etortzen bada berba egingo dut
beragaz*)

(2)

etxera joan baginan ikusi egingo genduan
(Dima) - (*etxera joan baginen ikusi egin-
go genuen*)

BALDINTZA IRREALA

(1)

basora joango bazina galdu egingo zina-
ke (Forua) - (*basora joango bazina galdu
egingo zinateke*)

joan balira basora galdu egingo litzakez
(Orozko) - (*joango balira basora galdu
egingo lirateke*)

(2)

etxera joan bagina ikusi egingo genduan
(Etxebarria) - (*etxera joan bagina ikusi
egingo genukeen*)

ZE HAR GALDERA

ez dakit etorri badira (Artea) - (*ez dakit
etorri diren*)

BA-.... BERE/BE

denbora txarra egiten badau bere ez da lo-
tzen etxean (Sopela) - (*eguraldi txarra
egiten badu ere ez da geratzen etxean*)

hamarretan amaitzen badozu be berandu
izango da (Bedia) - (*hamarretan amai-
tzen baduzu ere berandu izango da*)

BA-... LEZ

horrek gastetan dau aberatsa balitz lez
(Sopela) - (*horrek gastatzen du aberatsa
belitz bezala*)

BA-...LAKO

materia balitz lako esneak urteten deutso hasikeran (Gatika) - (*materia balitz beza-lako esneak irteten dio hasieran*)

BA-... MODUAN

horrek egiten dau berba jakingo baleu moduan (Artea) - (*horrek egiten du berba jakingo balu moduan*)

BA-... MODURA

horrek gastetan dau aberatsa balitz modura (Lekeitio) - (*horrek gastatzen du aberatsa balitz modura*)

2.2. TESTU EREDUAK

CDan landu gura diren testu ereduak emango ditugu eskualdeen arabera azpiataletan sailkatuta.

ARRATIA

Galdakao

—Gure aitaita difuntua, hamabietan kanpaia, kanpai bat joteko elizan, eta hamabietan bada aitea eta semea eta espiritu santua amen Jesus, eta errezetan, geu be abemariak abemarietako esaten eban gure aitaita difuntuak etorri behar dala etxera, beno, gu kartzelan baino txarrago, kartzelan baino txarrago orduan egoten zan ba, bai, abemarietako etxera, ala! hamazazpi urtegaz eta abemarietako etxera, bai bai guri, euki dogu guk lotura asko, bai eta hagaitik, e, orain neu be egin naz ze hau be, hau be goizetan ba, hori be laguna da oraingoarena, eta, lehen zaratea egiten neutsan, baina, eta orain, hor konpon! etorten bada goizaldean bizirik badator ondo dator, ba jakina! ze danak hasi dira holantxe eta, zer egingo deusagu? aldatu egin da eta aldatu egin behar da dana.

—Gure aitaita difuntua, hamabietan kanpaia, kanpai bat jotzeko elizan, eta hamabietan bada aitea eta semea eta espiritu santua amen Jesus, eta errezatzen, geu ere abemariak abemarietako esaten zuen gure aitaita difuntuak etorri behar dela etxera, beno, gu kartzelan baino txarrago, kartzelan baino txarrago orduan egoten zen ba, bai, abemarietako etxera, hara! hamazazpi urterekin eta abemarietako etxera, bai bai guri, eduki dugu guk lotura asko, bai eta hagatik, e, orain neu ere egin naiz ze hau ere, hau ere goizetan ba, hori ere laguna da oraingoarena, eta, lehen zarata egiten nion, baina, eta orain, hor konpon! etortzen bada goizaldean bizirik badator ondo dator, ba jakina! ze denak hasi dira holantxe eta, zer egingo diogu? aldatu egin da eta aldatu egin behar da dena.

Igorre

—Neuk esango deusut (...) egiten zan San Juan egunean, eskutak hartu soloari buelta guztia, zuziagaz, galtzuagaz, eta kantetan zan San Juan bagilea, denporak erre-ak, atsoak eta sorginak erre, eta gero, etxe asko dagoan lekuan sua egiten zan le-

kuan, hurrengo goizean ba, sardinak erre eta sardinak erre han, gau guztian lorik egin barik gero, e!

—Gau guztia egiten zenduen?

—Lorik egin barik eta gero goizean, hurrengo goizean sardinak han erre, txingarrean, sardinak jan

—Eta umeak eta? umeentzat zeozer egiten zan? txokolatadea?

—Txokolatea eta zerak, jakina! txokolatea ba ogiagaz edo gailetakaz, orduan gailatea be ez zan ailegetan ze ez zan egon eta, bai, San Juan eguna lehen egun handia zan.

—Neuk esango dizut (...) egiten zen San Juan egunean, eskutak hartu soroari buelta guztia, zuziarekin, galtzuarekin, eta kantatzen zen San Juan bagila, denborak erre-ak, atsoak eta sorginak erre, eta gero, etxe asko dagoen lekuan sua egiten zen lekuan, hurrengo goizean ba, sardinak erre eta sardinak erre han, gau guztian lorik egin barik gero, e!

—Gau guztia egiten zenuten?

—Lorik egin barik eta gero goizean, hurrengo goizean sardinak han erre, txingarrean, sardinak jan

—Eta umeak eta? umeentzat zer edo zer egiten zen? txokolatada?

—Txokolatea eta zerak, jakina! txokolatea ba ogiarekin edo gailetekin, orduan gailatea ere ez zen ailegatzen ze ez zen egon eta, bai, San Juan eguna lehen egun handia zan.

Dima

—Pasau jakun txoriak hasi, gaur lez daukat akorduan eta horrek be eukiko dau, oraindino Josu jaioteko egon zan, Josu jaioteko oraindino, egon zan, bai, eta, ala ez? Josu (...)

—Ez, ez gero izan zan

—Gero, barrero erein genduan, Josugaz izateko hori egon zan eta, ba orduan koiu genduan, eta barrero hurrengoko urtean erein genduan eta txoriak hasi eta esan eban, egin behar dogu derrigor, txoriak dana jan behar eben, eta ebagi, holan, zelan esango deusut ba?

—Holan goi puntea, burua

—Holango tamainua, garritik ebagi gariburua, eta behiari emongo deutsegu, pentsuorde, ezpabere txoriak jan behar dabe eta, eta gero galtzua, galtzua esaten jako hareri besteari, ha kodaineagaz, eta atzenean derrigorragaz, garia ereitea nahi artoa, guk bakarrik ez, e? danak!, danak, hemen ostean gari asko koiuten zan

—Bai, e?

—Bai eta ogiak ederrak egin, gari jo, garia egiten genduan ba, ebagi, eta

—Igitaiagaz edo?

—Igitaiagaz, bai, eta gero eskukada biko, ba, egiten zan, zer esaten jako? horrerri? ba, gari eskutak esaten geuntsan, eskutak, eta eskukada bikoak edo, eskukada bikoak egiten genduzan, ba, egiten genduzan, eta gero lotu, eta gero eguzkia asko hartuta, metatu, pilo handian ipini, bai, eta, gero ba, hurrengo aldikadan jo, ekarri etxera, eta jo, diki eta dauku! galtzua batera eta garaua bestera, eta gero garia egiten genduan garbitu, ba makineagaz, lehenago, orain oraintsu eta makineagaz, e? lehenago artzea esaten jakon, ba nire amama difuntuak-eta egiten eben, honetara, otzara modukoa baina beste klase batera eginda, e? zer esaten jakon hareri ba? orain izena be ahaztuta, kuestinoa da ze, holan astindu eta hautsok kentzen jakozan, izena be zuen amak jakingo dau, hak nik baino burua hobeto dauka eta.

—Pasatu zitzaigun txoriak hasi, gaur legez daukat gogoan eta horrek ere edukiko du, oraindino Josu jaiotzeko egon zen, Josu jaiotzeko oraindino, egon zen, bai, eta, ala ez? Josu (...)

—Ez, ez gero izan zen

—Gero, berriro erein genuen, Josurekin izateko hori egon zen eta, ba orduan hartu genuen, eta berriro hurrengoko urtean erein genuen eta txoriak hasi eta esan zuen, egin behar dugu derrigor, txoriek dena jan behar zuten, eta ebaki, holan, zelan esango dizut ba?

—Holan goi punta, burua

—Holango tamainua, gerritik ebaki gariburua, eta behiei emango diegu, pentsuorde, ezpabere txoriek jan behar dute eta, eta gero galtzua, galtzua esaten zaio beste hari, hura kodainarekin, eta atzenean derrigorrarekin, garia ereitea nahi artoa, guk bakarrik ez, e? denek!, denek, hemen ostean gari asko hartzen zen

—Bai, e?

—Bai eta ogiak ederrak egin, gari jo, garia egiten genuen ba, ebaki, eta

—Igitaiaz edo?

—Igitaiaz, bai, eta gero eskukada biko, ba, egiten zen, zer esaten zaio? horri? ba, gari eskutak esaten genion, eskutak, eta eskukada bikoak edo, eskukada bikoak egiten genituen, ba, egiten genituen, eta gero lotu, eta gero eguzkia asko hartuta, metatu, pilo handian ipini, bai, eta, gero ba, hurrengo aldikadan jo, ekarri etxera, eta jo, diki eta dauku! galtzua batera eta garaua bestera, eta gero garia egiten genuen garbitu, ba makinaz, lehenago, orain oraintsu eta makinaz, e? lehenago artza esaten zitzaion, ba nire amama difuntuak eta egiten zuten, honetara, otzara modukoa baina beste klase batera eginda, e? zer esaten zitzaion hari ba? orain izena ere ahaztuta, kuestioa da ze, holan astindu eta hautsok kentzen zitzaizkion, izena ere zuen amak jakingo du, hark nik baino burua hobeto dauka eta.

Zeberio

- Hara etorten zan andrazko bat, Jakoba esaten jakon, andrazko bat eta beti basotik agertuten zan, basotik, esaten eben Jakobak sorginak daukazala, sorginak daukazala eta, etorten zanean etxera, ze ez zan etorten, gero etorten zan Agarrera, hau Alizalanderana, eta zuen osabenera zeozer
- Gurera bai, gurera etorten zan gure aita bizi dala
- Baina itxaron eizu
- Nik lau urte edo
- Eta baten, e, harek daukaz ateak, zerak, soloak, soloa, han daukala larraintxu bat, eta han ba mahats parran eta zerean eta jentea erretiratuta euriagaz, euria, hodei zaparradea eta, Jakoba tiro eizu hona bustitzen zagoz eta, bai, kurtzeak ez deust aginduten, kurtzeak ez deust aginduten (...) eta gero euria atertu orduan, gero aurrera, bai esaten eben, bai sorginen misterioa, gure amamak esaten eban, sorginak bola batzuk dirala, eta bola zuk saldu (...) saltzen deutsu zuri, eta gero zeuk daukazu sorgina, baina saldu behar da sorgina, nik pagau badot bost ogerleko, zuk gehiago pagau behar dozu, hau da, diru bardinean ez dau balio, gitxiagoan be ez, ze izan behar dau, gehiago pagetako
- Bai, beti, ezta?
- Bai bai, zera, gaur bi balio badau, bi edo hiru, hau da bihar edo beste baten saldu ezkeru gehiago gehiago, osteratzen dirala norberaren zerera, eta lehengo be, laminak?
- Bai
- Laminak han Orozkon egoten ziran orduan, ba Orozkon bizi izan naz, Orozkon Urigoitin, eta, lamina egoten zan lez esnea egosten orduan, kamaran badakizu hor aldea-etxeko, ba granjak eta guzti eta, esnea irakiten gora doan orduan, e, hau esnea “txuri gora, txuri gora” esaten ebela.
- Hara etortzen zen andrazko bat, Jakoba esaten zitzaion, andrazko bat eta beti basotik agertzen zen, basotik, esaten zuten Jakobak sorginak dauzkala, sorginak dauzkala eta, etortzen zenean etxera, ze ez zen etortzen, gero etortzen zen Agarrera, hau Alizalanderana, eta zuen osabenera zer edo zer
- Gurera bai, gurera etortzen zen gure aita bizi dela
- Baina itxaron ezazu
- Nik lau urte edo
- Eta baten, e, hark dauzka ateak, zerak, soroak, soroa, han daukala larraintxo bat, eta han ba mahats parran eta zerean eta jentea erretiratuta euriarekin, euria, trumoi zaparrada eta, Jakoba tira ezazu hona bustitzen zaude eta, bai, gurutzeak ez dit agintzen, gurutzeak ez dit agintzen (...) eta gero euria atertu orduan, gero aurrera, bai esaten zuten, bai sorginen misterioa, gure amamak esaten zuen, sorginak bola ba-

tzuk direla, eta bola zuk saldu (...) saltzen dizu zuri, eta gero zeuk daukazu sorgina, baina saldu behar da sorgina, nik ordaindu badut bost ogerleko, zuk gehiago ordaindu behar duzu, hau da, diru berdinean ez du balio, gutxiagoan ere ez, ze izan behar du, gehiago ordaintzeko

—Bai, beti, ezta?

—Bai bai, zera, gaur bi balio badu, bi edo hiru, hau da bihar edo beste baten salduz gero gehiago gehiago, osteratzen direla norberaren zerera, eta lehenago ere, laminak?

—Bai

—Laminak han Orozkon egoten ziren orduan, ba Orozkon bizi izan naiz, Orozkon Urigoitin, eta, lamina egoten zen legez esnea egosten orduan, kamaran badakizu hor alde-etxeko, ba granjak eta guzti eta, esnea irakiten gora doan orduan, e, hau esnea “txuri gora, txuri gora” esaten zutela.

Zeanuri

—Aita eta alabea bizi ziran, eta, joan, sartu jaken etxera, eta, aitari eskatu eutsan, ba aitak, e, emon gura ez eta, sartu, ba bajatu eban kortara enterrauta badago eta emoten ez baeutsan, enterrau egin behar dauala eta, zulo egiten han aitari, aita bera ipini be zulo egiten, eta neskatxi horrek eskapau, auzoetara, auzoa be urrun dauke, handik, eurak bizi ziran lekutik urruntxu dauke auzoa, haraxe joan zan, e, barruko erropeagaz bakar-bakarrik seguru gauean, eta gero, aita be han ipini eban orduan bera joan zan neskatxiaren eske, gora, eta neskatxia topau ezik joan etxean, eta orduan egin eban, berak pentsau eban gizon horrek, bera zala joan hainbatera joango zala neskatxia, eta bertan behera itxita eskapau, osterantzean, e, holangoxe okerra zan ha, lapur handia holangoxea, eta gero ezer be ez, neskatxia, eguna zabaldu orduan etorri zan etxera, eta han gizon hori, beraren lekuan aita topau, baia bildurtu egin zan, alabea joango zala jendea ekarten eta, eta gero jendeak, e, jakin eban bera dana eta, bildur gehiago eukan berak be, baina horrek behar txarrak egiten ebazan, halan sartu etxera eta.

—Aita eta alaba bizi ziren, eta, joan, sartu zitzaien etxera, eta, aitari eskatu zion, ba aitak, e, eman gura ez eta, sartu, ba bajatu zuen kortara lurpetuta badago eta ematen ez bazion, lurpetu egin behar duela eta, zulo egiten han aitari, aita bera ipini ere zulo egiten, eta neskatxi horrek eskapatu, auzoetara, auzoa ere urrun daukate, handik, eurak bizi ziren lekutik urruntxo daukate auzoa, haraxe joan zen, e, barruko arroparekin bakar-bakarrik seguru gauean, eta gero, aita ere han ipini zuen orduan bera joan zen neskatxiaren eske, gora, eta neskatxia topatu ezik joan etxean, eta orduan egin zuen, berak pentsatu zuen gizon horrek, bera zela joan hainbatera joango zela neskatxia, eta bertan behera itxita eskapatu, osterantzean, e, holakoxe okerra zen hura, lapur handia holakoxea, eta gero ezer ere ez, neskatxia, eguna zabaldu orduan etorri zen etxera, eta han gizon hori, beraren lekuan aita topatu, baina bildurtu egin zen, alaba joango zela jendea ekartzen eta, eta gero jendeak, e, jakin

zuen bera dena eta, bildur gehiago zeukan berak ere, baina horrek behar txarrak egi-
ten zituen, hala sartu etxera eta.

Ubidea

—Otzarea dana, dana, txikiagoa edo handiagoa, handiagoa baina otzarak danak, orain dagoz, otzara zabalak, esaten jake hareeri handiari, ez dakizu? ba han ogiak, e, ipini zera eta gero ipinten genduzan han labasua egiteko, hareek dira otzara zabalak, otzara zabalak, bai, garirik ez daukagu baina, esate baterako babea jotzen dogunean, babea, ba galbahean han, e, eta gauza askotarako, ba esate baterako abe apur bat behar badozu eralgi, eralgi?

—Bai

—Eta baita uruna eralgiteko be, uruna be eralgi, jalgi da, jalgi badakizu zer dan? esate baterako, ba gauza bat helduta edo garia edo lehen frantsesa, bedarra, frantsesa be bai, edo sekula bedarra etorten da ba, loratu eta gero, etorten da ba hazira, ezta? ba bero handiakaz jausten da, jausten, jalgiten dago, batu egin behar da jalgiten dago eta.

—Otzara dena, dena, txikiagoa edo handiagoa, handiagoa baina otzarak denak, orain daude, otzara zabalak, esaten zaie handi haiei, ez dakizu? ba han ogiak, e, ipini zera eta gero ipintzen genituen han labasua egiteko, haiek dira otzara zabalak, otzara zabalak, bai, garirik ez daukagu baina, esate baterako baba jotzen dugunean, baba, ba galbahean han, e, eta gauza askotarako, ba esate baterako olo apur bat behar baduzu eralgi, eralgi?

—Bai

—Eta baita uruna eralgitzeko be, irina ere eralgi, jalgi da, jalgi badakizu zer den? esate baterako, ba gauza bat helduta edo garia edo lehen frantsesa, belarra, frantsesa ere bai, edo sekula belarra etortzen da ba, loratu eta gero, etortzen da ba hazira, ezta? ba bero handiekin jausten da, jausten, jalgitzen dago, batu egin behar da jalgitzen dago eta.

BUSTURIALDEA

Bermeo

—Gero hona etorri zan Euskal Herrira, Napoleon gerrea emoten

—Noz hori antxina?

—Antxina

—Hori izango zan antxina

—(...) neure aitari entzunekoak baino, gerrea emoten etorri zan Napoleon, Euskal Herrira, eta topau ebalá larogei urteko gizona, soloan beharrean, eta esan deutsa, e! zenbat urte daukazu eta larogei urte, baina aita da, aita bizi jat haor goiko baserrian, joan da aitagana eta aita be beharrean soloan, eta esan deutsa zenbat urte daukazu, nik ehun urte, baina hau Bentizeko abadea dago haor goragoan, eta orduan esan eu-

tsen beraren soldaduari, ene bada! hemen jente indartsu asmaten dot eta korridu eizu, eta joan zan Napoleon beraren gudariakaz, baina honeek neure aitari - bai? - Maroto antxinan, Gorbeako menditik ipini ebazan soldaduak dirala eta, karlistak eta, ba bekerekak, hartu, zera, batailoia eta bekerekak, ardiak, eta pentsau eben batailoia datorrela eta euren buruak bota ebezan karlistak handik behera, Gorbeako menditik behera, pentsaurik bekerekakaitik, zera dala, soldaduak dirala eta

—Eta hori nok egin ebala dinozu?

—Karlistak

—Karlistak, baina Maroto eta horreek edo?

—Karlistak egin dituenak, haorreek geure aitaren bertsoxuak izaten ziran horreek

—Gero hona etorri zen Euskal Herrira, Napoleon gerra ematen

—Noiz hori antzina?

—Antzina

—Hori izango zen antzina

—(...) neure aitari entzunekoak baino, gerra ematen etorri zen Napoleon, Euskal Herrira, eta topatu zuela larogei urteko gizona, soroan beharrean, eta esan dio, e! zenbat urte daukazu eta larogei urte, baina aita da, aita bizi zait haor goiko baserrian, joan da aitagana eta aita ere beharrean soroan, eta esan dio zenbat urte daukazu, nik ehun urte, baina hau Bentizeko abadea dago haor goragoan, eta orduan esan zien beraren soldaduei, ene bada! hemen jende indartsu asmatzen dut eta korritu ezazue, eta joan zen Napoleon beraren gudariekin, baina hauek neure aitari - bai? - Maroto antzina, Gorbeako menditik ipini zituen soldaduak direla eta, karlistak eta, ba bekerekak, hartu, zera, batailoia eta bekerekak, ardiak, eta pentsatu zuten batailoia datorrela eta euren buruak bota zituzten karlistek handik behera, Gorbeako, menditik behera, pentsaturik bekerekengatik, zera dela, soldaduak direla eta

—Eta hori nork egin zuela dinozu?

—Karlistek

—Karlistek, baina Maroto eta horiek edo?

—Karlistek egin dituztenak, haoriek geure aitaren bertsoxoak izaten ziren horiek

Busturia

—Korta-atxurra hori

—Eta kakoa ez da beste bat?

—Kakoa, kakoa esaten deusagu kerizak eta sagarrak eta emoteko palu bateri emon bueltea eta hareeri tiratu eta ha da kakoa

—Ha da kakoa?

- Ha da kakoa
- Bai erramea norberak bajatuteko
- Erramea bajatuteko, kakoa hareri
- Eta gaztainak, e, koiteko lehen, e?
- Ai antxinako denborak akordetan orain
- Bai, bai, hori gaztainak, e, eskola atrapatekoa - bai - triskilea
- Triskilea da hori, ez?
- Bai hau da taka-taka, sarri batu egin doguz horreek burkadak be, egon da gaztaina asko, orain dana pinua sartu da baina
- Korta-aitzurra hori
- Eta kakoa ez da beste bat?
- Kakoa, kakoa esaten diogu gereziak eta sagarrak eta emateko makila bati eman buelta eta haiei tiratu eta hura da kakoa
- Hura da kakoa?
- Hura da kakoa
- Bai abarra norberak bajatzeko
- Abarra bajatzeko, kakoa hari
- Eta gaztainak, e, hartzeko lehen, e?
- Ai antzinako denborak gomutatzen orain
- Bai, bai, hori gaztainak, e, eskola harrapatzekoa - bai - triskila
- Triskila da hori, ez?
- Bai hau da taka-taka, sarri batu egin ditugu horiek burkadak ere, egon da gaztaina asko, orain dena pinua sartu da baina

Forua

- Eguzkia urtekeran ez dakit, hamabietan badakit txapela kenduta, eguzkia begira be eginda, gure aitak be errezauegiten eban
- Eta zer errezetan eutsan?
- Aita gurea eta holakoxe batzuk errezetan ebazan
- Hamabietan hori, eguzkiari begira?
- Bai hamabietan, txapela kendu eta ganera soloaren erdian badago be bai, aita Basilioren aitak, txapela erantzita errezauegiten eban, paternosterra edo, nik ez dakit zer errezetan eban, baina errezetan eban hamabietan

- Eta eguzki sartukera ona dagoanean zeozer esaten da?
- Eguzkia badoa beraren amagana bihar etorriko da denbora ona bada
- Holan esaten da, hori gauean esaten da?
- Iluntzean, eguzkia badoa beraren amagana bihar etorriko da denbora ona bada
- Eguzkia irtekeran ez dakit, hamabietan badakit txapela kenduta, eguzkia begira ere eginda, gure aitak ere erreztatu egiten zuen
- Eta zer erreztatzen zion?
- Aita gurea eta holakoxe batzuk erreztatzen zituen
- Hamabietan hori, eguzkiari begira?
- Bai hamabietan, txapela kendu eta gainera soroaren erdian badago ere bai, aita Basiloren aitak, txapela erantzita erreztatu, paternosterra edo, nik ez dakit zer erreztatzen zuen, baina erreztatzen zuen hamabietan
- Eta eguzki sartuera ona dagoenean zer edo zer esaten da?
- Eguzkia badoa beraren amagana bihar etorriko da denbora ona bada
- Holan esaten da, hori gauean esaten da?
- Iluntzean, eguzkia badoa beraren amagana bihar etorriko da denbora ona bada

Morga

- Ba sua, sua, su handia, orain be egiten dogu hori
- Sua oraindino egiten da?
- Bai baia lehenago, lehenago, ba honeek gariak, txolak, txolak hartu, iziotu eta soloari, iziotuta, eta bueltau eta, kantau
- “Gaur dala bihar dala Donianez
etzi San Juan biharamonez
zapoak eta sugoiak erre
gure soloan sorginik ez
badago bere erre”
- Ba sua, sua, su handia, orain ere egiten dugu hori
- Sua oraindino egiten da?
- Bai baia lehenago, lehenago, ba hauek gariak, txolak, txolak hartu, iziotu eta sorolari, iziotuta, eta bueltatu eta, kantatu
- “Gaur dala bihar dala Donianez
etzi San Juan biharamonez
zapoak eta sugoiak erre
gure soloan sorginik ez
badago bere erre”

Axangiz

—Enei! hamen garatxak kentzeko, ba nik ez dakit egoten ziran sorginak, andrazkoak, pertsona batzuk dediketan ziranak gauza askogaz ez dakit nik, zegaz egiten ebezan, batzuk egiten ei ebezan gariak, ipini, eta, lurpetu gero danak

—Gariak?

—Garia nahi edozer gauza ale bat, lurpetu, eta hareek usteldu ezkeru kendu egiten ei ziran, baina hareek ustelduten ez baziran edo, ez dakit, batzuk esaten eben, ernamina emoten baeben ba, orduan gehitu egiten zirala, eta holakoxe zerak, hau be eroan neban nik Arratzuraino, nik ez neban ikusi ze ni joan nintzan baina berau eroan eben barrura eta ni ez nintzanez eroan ez dakit zegaz egin eutsazan bertan

—Enei! hamen garatxak kentzeko, ba nik ez dakit egoten ziren sorginak, andrazkoak, pertsona batzuk dedikatzen zirenak gauza askorekin ez dakit nik, zerekin egiten zituen, batzuek egiten ei zituzten gariak, ipini, eta, lurpetu gero denak

—Gariak?

—Garia nahi edozer gauza ale bat, lurpetu, eta haiek ustelduz gero kendu egiten ei ziren, baina haiek usteltzen ez baziren edo, ez dakit, batzuek esaten zuten, ernamina ematen bazuten ba, orduan gehitu egiten zirela, eta holakoxe zerak, hau ere eroan nuen nik Arratzuraino, nik ez nuen ikusi ze ni joan nintzen baina berau eroan zuten barrura eta ni ez nintzenez eroan ez dakit zerekin egin zizkion bertan

Arratzu

—Ba behin baten, e, egon ziran Arratzun sakristaua eta errementaria, errementaria be, ez zan inuzentea izan, asko irakurten ebana, eta zerean dana, gizon, e, gizon hezia eta kulturakoa izan zan orduko denboretako, orduko baserritarrakin konparetako ba ez zan izan, baten, e, sakristauak tentau eban, baten ba, berak, e, aumea daukala eta, baietz pasau, e, zerean, kanpatorreko, bordetxoa eukiten dabe kanpatorreak, Arratzuko eleizaren ganean, eta ezetz pasau eta baietz pasau, ba aprobea egingo neuke, baina katuak baietz pasau dinotso errementariak, kendu hadi hortik, zera pasau behar jok katuak, beno ze postura egingo dogu ba? azunbra bat arda egingo dogu ba, azunbra bat arda, eta, beno ederto, ba lehenengo botako dogu katua, errementariarena, zera eta, bota dabe hori katuori eta, joan da hegaletik, hegaletik, hegaletik kantoira baina, kantoira ailegau danean, katuak ezin bueltea hartu eta bentziduta goitik behera atearen ganera, katua behien artean joan da, beno gero ba, etorri jako txanda zerari, aumeari, ja sakristauarenari etorri jakon, eta sakristauaren aumea ipini eban, baia sakristaua zuhurra, elizako barria sakristauak ondo ekian, ze harek orduko aprobea ondo eginda euki eban orduko eta, zera eta, aumea soltau eban, aumea soltau eban, hori aumeori eta han doa hegaletik, ipini dau eta geldiro, geldiro, polito, polito, polito, eta kantoira ailegau zanean han, ez atzera ez aurrera, atzera ez aurrera, atzeko hankatxuaren ganean eta pasau eta buelta osoa egin, eta zera eta, errementariak, zera, azunbra bat arda galdu, eta, katua behera eta aumea aurrera, eta aumea barrura gero kanpatorrera altxau eben, eskuagaz helduta, beno hori kontua akabau da, kontua ez da ze egi egia da, Arratzun pasaunekoa

—Ba behin baten, e, egon ziren Arratzun sakristaua eta errementaria, errementaria ere, ez zen inuzentea izan, asko irakurtzen zuena, eta zerean dena, gizon, e, gizon hezia eta kulturakoa izan zen orduko denboretako, orduko baserritarrekin konparatzeko ba ez zen izan, baten, e, sakristauak tentatu zuen, baten ba, berak, e, aumea daukala eta, baietz pasatu, e, zerean, kanpaidorreko, bordetxoa edukitzen dute kanpaidorreek, Arratzuko elizaren gainean, eta ezetz pasatu eta baietz pasatu, ba aproba egingo nuke, baina katuak baietz pasatu dinotso errementariak, kendu hadi hortik, zera pasatu behar dik katuak, beno ze postura egingo dugu ba? azunbre bat arda egingo dugu ba, azunbre bat arda, eta, beno ederto, ba lehenengo botako dugu katua, errementariarena, zera eta, bota dute katu hori eta, joan da hegaletik, hegaletik, hegaletik kantoira baina, kantoira ailegatu denean, katuak ezin buelta hartu eta desorekatuta goitik behera atearen gainera, katua behien artean joan da, beno gero ba, etorri zaio txanda zerari, aumeari, ja sakristauarenari etorri zitzaion, eta sakristauaren aumea ipini zuen, baina sakristaua zuhurra, elizako berria sakristauak ondo zekien, ze hark orduko aproba ondo eginda eduki zuen orduko eta, zera eta, aumea soltatu zuen, aumea soltatu zuen, aume hori eta han doa hegaletik, ipini du eta geldiro, geldiro, polito, polito, polito, eta kantoira ailegatu zenean han, ez atzera ez aurrera, atzera ez aurrera, atzeko hankatxoaren gainean eta pasatu eta buelta osoa egin, eta zera eta, errementariak, zera, azunbre bat arda galdu, eta, katua behera eta aumea aurrera, eta aumea barrura gero kanpaidorrera altxatu zuten, eskuarekin helduta, beno hori kontua amaitu da, kontua ez da ze egi egia da, Arratzun pasatuneko

Kortezubi

—Hiltzen ibilikoak ganera, esan eben, giputzak, mutil ederrak, danok ginan gazteak orduan, neu be hogeta bost urtegaz gerrara sartu nintzan, eta ba hogeta sei, hurrengo urtean 37an, eta, udaletxean egon ginan eta gero Karmelora eroan ginduezan, Begoñara, fraileak dauken komentura, eta halako egun baten, e, giputzak eta danak, nahastean, eta, mutil eder bi, rekete jantziakin txapel gorriakin eta borla horiagaz, ba mutil gazteak ederrak, mutil altuak eta, giputzak, eta, esan eutsan etorri ziraretariko batek, han gure alboan egon zanari, neure alboan egoan (...) ez zara akordetan harako? 34ko mitinera, Elorriora zelan joan ginan gu, abarketa zuriak kordel gorriakin eta, ez dakit zelan jantzita eta mitinera eta bestea eta beitu orain geu zelan? Lauaxeta geuk hil dogu, Biturian, esan eben, geuri hil eragin deuskue, e, Tercio Navarra, eta halakorik geuri, hil eragin deuskue, eta ez eban arnasa bat atzertatik egin, diskurtso beroa egiten Euskal Herriaren eta euskaldunen alde hil zan, esan eben, bai, holantxe da

—Hiltzen ibilikoak gainera, esan zuten, giputzak, mutil ederrak, denok ginen gazteak orduan, neu ere hogeita bost urterekin gerrara sartu nintzen, eta ba hogeita sei, hurrengo urtean 37ean, eta, udaletxean egon ginen eta gero Karmelora eroan gintuzten, Begoñara, fraileek daukaten komentura, eta halako egun baten, e, giputzak eta danak, nahastean, eta, mutil eder bi, rekete jantziakin txapel gorriekin eta borla horiarekin, ba mutil gazteak ederrak, mutil altuak eta, giputzak, eta, esan zion etorri zirenetariko batek, han gure alboan egon zenari, neure alboan zegoen (...) ez

zara gomutatzen harako? 34ko mitinera, Elorriora zelan joan ginen gu, abarketa zu-riak kordel gorriekin eta, ez dakit zelan jantzita eta mitinera eta bestea eta begira-tu orain geu zelan? Lauaxeta geuk hil dugu, Gasteizen, esan zuten, geuri hil eragin digute, e, Tercio Navarra, eta halakorik geuri, hil eragin digute, eta ez zuen arnasa bat atzeratik egin, diskurtso beroa egiten Euskal Herriaren eta euskaldunen alde hil zen, esan zuten, bai, holantxe da

Arteaga

—Txingorra esaten jako, edurra hasten danean, edurra hasten danean, lehenengo jausten dana, edurra, ez hareek, e, zati handiak, txikitxuak, harexeri esaten jako edur txingorra

—Txingorra esaten zaio, elurra hasten denean, elurra hasten denean, lehenengo jausten dena, elurra, ez haiek, e, zati handiak, txikitxoak, harexeri esaten zaio elur txingorra

Elantxobe

—Eta beste baten be beste bat esaten eban, han andra bat egon zala sorgina, eta goizean goizetik joan zanean, e, itsasora, gizon batek, ikusi ebala sorgin hori, bertako, bertako Elantxobeko sorgina, eta esan ei eutsan, ez dozu esango ni hamen ikusi nozunik, ze esaten badozu galdu egingo zaitut eta, besteak sorgina ikusi dauana bai baina nor izan dan ez eban esan gura

—Eta beste baten ere beste bat esaten zuen, han andre bat egon zela sorgina, eta goizean goizetik joan zenean, e, itsasora, gizon batek, ikusi zuela sorgin hori, bertako, bertako Elantxobeko sorgina, eta esan ei zion, ez duzu esango ni hamen ikusi nauzunik, ze esaten baduzu galdu egingo zaitut eta, besteak sorgina ikusi duena bai baina nor izan den ez zuen esan gura

DURANGOALDEA

Zornotza

—Ai bai! hori be kantau dot nik, eutsi hagin zaharra eta ekazu barria, baina zelan da hasikerea ba?

“Maria gona gorria
eutsi hagin zaharra
eta ekazu barria”

—Eta zer egiten zenduen?

—Eta teilatura botaten genduan hagina

—Ai bai! hori ere kantatu dut nik, eutsi hagin zaharra eta ekarzu barria, baia zelan da hasikera ba?

“Maria gona gorria
eutsi hagin zaharra
eta ekarzu barria”

—Eta zer egiten zenuten?

—Eta teilatura botatzen genuen hagina

Durango

—Baia frantsesak dozak gaiztoak, frantses batek esan eustan hantxe, Retonazoan izatez jaioa eta andra euskaldun bategaz ezkondata eta, tabernea jeukien Donibane Lohitzunen, eta domeketan eta, gerra geuk irabaziko dogu, esan eustan, e, bretonak, eta euskeraz egiten joan bretonak, e? ze arraroa euskeraz egitea! eta gerra geuk irabaziko dogu, zelan ba? erraz, ba, frantzes bakotxak, ez dau besterik egin behar, aleman bat hil, nik hiru-lau be hil dodaz baina, bat behintzat hil ezkerro, eta begitu zer egingo dogun, nik, e, berak, e, barkua jeukan, nik adiskidetasun handia egingo deusut alemanakin tabernara haraxe joaten zoazen, danakin ondo, eta gero iluntzean etorten zoazen barkutxuagaz Donibanera, tabernarik taberna, alemanari gustau ardaa barrez! eta gero bostehun tanke ingurugaz okupau euskuen ospitale bueltea eta han aginte nagusia hantxe ipini juen

—Baina frantsesak dituk gaiztoak, frantses batek esan zidan hantxe, Retonazoan izatez jaioa eta andre euskaldun batekin ezkondata eta, taberna zeukaaten Donibane Lohitzunen, eta domeketan eta, gerra geuk irabaziko dugu, esan zidan, e, bretoiak, eta euskaraz egiten zian bretoiak, e? ze arraroa euskaraz egitea! eta gerra geuk irabaziko dugu, zelan ba? erraz, ba, frantzes bakoitzak, ez du besterik egin behar, aleman bat hil, nik hiru-lau ere hil ditut baina, bat behintzat hilez gero, eta begitu zer egingo dugun, nik, e, berak, e, barkua zeukaan, nik adiskidetasun handia egingo dizut alemanekin tabernara haraxe joaten zituan, denekin ondo, eta gero iluntzean etorten zituan barkutxoarekin Donibanera, tabernarik taberna, alemanei gustatu ardaa barrez! eta gero bostehun tanke ingururekin okupatu ziguten ospitale buelta eta han aginte nagusia hantxe ipini ziaten

Abadiño

—Honeek orain galdu egin dira asko, asko galdu dira honeek! hori ez da ikusten, e, banakea hortxe, uda-udan sasoi baten izaten da, ilundu aldearekin hasten dira, baina, honeek lehen asko ugariago egon ziran, asko! badakizu zergaitik? zer esango deusut nik, e, kortetan edo, tejobanetan, zeretan, zikin gehiago, amarauna edo, zer esango deusut nik eta, orain ez dakit ba nik garbikuzi gehitxoago edo.

—Hauek orain galdu egin dira asko, asko galdu dira hauek! hori ez da ikusten, e, banaka hortxe, uda-udan sasoi baten izaten da, ilundu aldearekin hasten dira, baia, hauek lehen asko ugariago egon ziren, asko! badakizu zergaitik? zer esango dizut nik, kortetan edo, tejobanetan, zeretan, zikin gehiago, amarauna edo, zer esango dizut nik eta, orain ez dakit ba nik garbikuzi gehitxoago edo.

Arrazola

—San Juan bezperan? ba, suak egiten ziran, orain edozer (...) edozer gauza erreten da baia orduan erreten zan beno, horretarako san juan goizean, ni akordetan naz nire amagaz, eta aitagaz be bai, e, batzen ziran San Juan sobrak esaten ziranak, uste dot

dirala, hiru bedar klase, ni orain akordetan naz, hiru uste dot zirala, eta hareek irun-
tzagaz batzen ziran eta ortozik

—Eta zer bedar klase da? badakizu?

—San Juan sobrak esaten geuntsan, nik neuk orain ezagutzen ditut, hiru, eta hiru uste
dot zirala, bat da ira modukoa, beste bat da, e, lora zuriak daukazana, beharbada
hor, e, bedarretan beharbada ekarriko dau, eta hareek, gordeten ziran ba, izaten zi-
ran, e, nonbaiten kanpoan edo, sikatu daitezana, eta gero sikatuten ziranean gorde
egiten ziran, eta hareekin egiten zan sua, San Juan bezperan

—Eta kanta bat egiten zan bere? zelan da letrea? badakizu?

“San Juan San Juan
arrotza bi kolkoan
beste bi altzoan
sorginak eta lapurrak erre erre
artoak eta gariak gorde gorde
biba San Juan, biba San Juan”

horixe kantetan genduan, eta gero baita beste gauza bat, ereinotza be erreten zan

—San Juan bezperan? ba, suak egiten ziren, orain edozer (...) edozer gauza erretzen
da baina orduan erretzen zen beno, horretarako San Juan goizean, ni gomutatzen
naiz nire amarekin, eta aitarekin ere bai, e, batzen ziren San Juan sobrak esaten zi-
renak, uste dut direla, hiru belar klase, ni orain gomutatzen naiz, hiru uste dut zire-
la, eta haiek ihintzarekin batzen ziren eta ortozik

—Eta zer belar klase da? badakizu?

—San Juan sobrak esaten genion, nik neuk orain ezagutzen ditut, hiru, eta hiru uste
dut zirela, bat da ira modukoa, beste bat da, e, lore zuriak dauzkana, beharbada hor,
e, belarretan beharbada ekarriko du, eta haiek, gordetzen ziren ba, izaten ziren, e,
nonbait kanpoan edo, sikatu daitezana, eta gero sikatzen zirenean gorde egiten zi-
ren, eta haiekin egiten zen sua, San Juan bezperan

—Eta kanta bat egiten zen ere? zelan da letra? badakizu?

“San Juan San Juan
arrotza bi kolkoan
beste bi altzoan
sorginak eta lapurrak erre erre
artoak eta gariak gorde gorde
biba San Juan, biba San Juan”

horixe kantatzen genuen, eta gero baita beste gauza bat, ereinotza be erretzen zen

Berriz

—Lehenago oteak bizarrak eukiten ebazan, bizar horiak, bizar asko, hareekin igurtzi
eta, lurpean sartu eta hareek usteltzen diranean ja joaten zirala

—Zuk, e, oteagaz dinozu, ez?

—Bai oteak ganean eukiten ditu eta leku gitxitan, e?

—Eta zuk dinozu gatzagaz?

—Gatzagaz hiru gurutze eginda, eta gero ha gatza jaurti sutara, eta ha parrastadea suagaitik egiten deusana entzun barik arineketan alde egin, holan enorrari hiru gurutze egin, hiru gurutze egin, eta jakina gatza sutara botaten danean zarateak urteten dau, eta ha zaratea entzun orduko arineketan alde egin

—Lehenago oteak bizarrak edukitzen zituen, bizar horiak, bizar asko, haiekin igurtzi eta, lurpean sartu eta haiek usteltzen direnean ja joaten zirela

—Zuk, e, otearekin diozu, ez?

—Bai oteak ganean edukitzen ditu eta leku gutxitan, e?

—Eta zuk diozu gatzarekin?

—Gatzarekin hiru gurutze eginda, eta gero gatz hura jaurti sutara, eta parrastada hura suagatik egiten diona entzun barik arineketan alde egin, holan enorrari hiru gurutze egin, hiru gurutze egin, eta jakina gatza sutara botatzen denean zaratak irteten du, eta zarata hura entzun orduko arineketan alde egin

Mallabia

—Bai erramua ipini eta iruntzetan ortozik ibili

—Ortozik ibili?

—Bai goizean jagi eta iruntza dagoala, joan landara ortozik, eta gero ekarri erramua ipinten dana, etxe ondoan lorakin eta, hau da etxearen eskinean ipinten zan errama bat, San Juan, e, zeretako, eta gero lora batzuk, eta gero ur bedeinkatua bota

—Bai erramua ipini eta ihintzetan ortozik ibili

—Ortozik ibili?

—Bai goizean jagi eta ihintza dagoela, joan landara ortozik, eta gero ekarri erramua ipintzen dena, etxe ondoan loreekin eta, hau da etxearen eskinean ipintzen zen errama bat, San Juan, e, zeretako, eta gero lore batzuk, eta gero ur bedeinkatua bota

Ermua

—Erregen egunean eta izaten zan, beno orduan, ni akordatzen naz andrakila bat be ez neban euki nik neure gazte denboran, andrakila bat be ez, zelako inbidia, akordetan naz, erregen egunerako, e, orain zera da bestea, Olentzero, orain biak harrapatzen ditue, baina, holako tximino bat, holako (...) latorrizko, hondoakin, behea, eta, holaxe gauza bat dauka maratila moduko bat, eta tximinoa eta, kordioa emoten jakon eta, tin-tin-tin eta holaxe eskua bueltaka emoten eban, haxe akordetan naz, ni akordetan naz zelan baserrian, Josio, zuk ezta, orain, pinadiak eta etxerik ez dago, baina gure aita zan, aita difuntua zan Josiokoa, mendian, eta Ermuko goian, eta jo-

aten ginan ba, gabonetan eta, ama eta danok joaten ginan gabonak pasatzera, baina urte asko ni umea nintzala, eta, egiten genduan, harria punta luzea bazan neskea, andrakila, e? neskea eta punta txatoa bazan, pentsa eizu, harriakin egiten genduan guk afariketan, orain hainbeste gauza daukie, hainbeste gauza, eta oraindino falta dabe, larregi dauke barriz, e? larregi, eta orduan txirikiletan be egiten genduan mutilen moduan, txirikila, holako, zerak, kainaberea nahi horreek beste, ez dakit zer ziran, punta bi egin eta gero makila bat, eta jo eta buelta

—Erregen egunean eta izaten zen, beno orduan, ni gomutatzen naiz andrakila bat ere ez nuen eduki nik neure gazte denboran, andrakila bat ere ez, zelako inbidia, gomutatzen naiz, erregen egunerako, e, orain zera da bestea, Olentzero, orain biak harapatzen dituzte, baina, holako tximino bat, holako (...) latorrizko, hondoarekin, behea, eta, holaxe gauza bat dauka maratila moduko bat, eta tximinoa eta, kordioa ematen zitzaion eta, tin-tin-tin eta holaxe eskua bueltaka ematen zuen, haxe gomutatzen naiz, ni gomutatzen naiz zelan baserrian, Josio, zuk ezta, orain, pinadiak eta etxerik ez dago, baina gure aita zen, aita difuntua zen Josiokoa, mendian, eta Ermuko goian, eta joaten ginen ba, gabonetan eta, ama eta denok joaten ginen gabonak pasatzera, baina urte asko ni umea nintzela, eta, egiten genuen, harria punta luzea bazan neska, andrakila, e? neska eta punta txatoa bazan, pentsa ezazu, harriarekin egiten genuen guk afariketan, orain hainbeste gauza daukate, hainbeste gauza, eta oraindino falta dute, larregi daukate barriz, e? larregi, eta orduan txirikiletan ere egiten genuen mutilen moduan, txirikila, holako, zerak, kainabera nahi horiek beste, ez dakit zer ziren, punta bi egin eta gero makila bat, eta jo eta buelta

Otxandio

—Ze esaten euskuen, e, hemen, e, ospitalean kamaran, egoala arka handi bat, eta, ba garizuma hasten zanean, sartzen ei eben zazpi hankako, atsoa esaten eutsien, zazpi hankako atsoa, eta hara etorten ei ziran, itsuskia, sua emon, eta itsuski ganetan eta etorten ei ziran, bariku, zazpi barikuetan (...) sorginak, eta bariku bakotxean, andra horrerri hanka bat ebagiten ei eutsien, eta beno, beharbada umeak jan gura ez eta zazpi hankako atsoari deituko deusiela eta umeak bildur-bildur eginda egoten ginan

—Ze esaten ziguten, e, hemen, e, ospitalean kamaran, zegoela arka handi bat, eta, ba garizuma hasten zenean, sartzen ei zuten zazpi hankako, atsoa esaten zioten, zazpi hankako atsoa, eta hara etortzen ei ziren, itsuskia, sua eman, eta itsuski gainetan eta etortzen ei ziren, bariku, zazpi barikuetan (...) sorginak, eta bariku bakoitzean, andre horri hanka bat ebakitzen ei zioten, eta beno, beharbada umeak jan gura ez eta zazpi hankako atsoari deituko diotela eta umeak bildur-bildur eginda egoten ginen

HEGO URIBE

Begoña

—Beno honeek, e ba, honeek badaukenak ganadu apur bat, ba arbia eta ba, artoa eta holangoa ereiten dabe oraindinokarren, ganadu apur bat daukanak eta, badakizu, orain hemendik ganadu gitxi dago

—Tomatea be bai

—Bai, tomatea eta piperra eta ba, azatxu batzuk eta ba.

—Beno hauek, ba, hauek badaukatenek ganadu apur bat, ba arbia eta ba, artoa eta holakoa ereiten dute oraindikarren, ganadu apur bat daukanak eta, badakizu, orain hemendik ganadu gutxi dago

—Tomatea ere bai

—Bai, tomatea eta piperra eta ba, azatxo batzuk eta ba.

Larraskitu

—Patatea ez behar dala jorratu baten baino, baten jorratu eta, jorratu eta betatu gero, betatu

—Bai

—Patatak, bigarrenez bazoaz betatuten, hori egia da, e? bigarrenez bazoaz betatuten hak sustraitxuak bota dituala, batetik bestetik, eta atxurragaz (...) sustraitxua, ebagi egiten dirala, apurtu, hareek sustraiak, eta gero hak patateak, betatu arren, edo lurra bota arren berari, ha patatea hilabete barru ugerrak koiu, ba sikatu egiten da patatea, eta patatarik koiu ez, eta hori egi-egi-egia da.

—Patata ez dela jorratu behar baten baino, baten jorratu eta, jorratu eta bete gero, bete

—Bai

—Patatak, bigarrenez bazoaz betetzen, hori egia da, e? bigarrenez bazoaz betetzen hark sustraitxoak bota dituela, batetik bestetik, eta aitzurrarekin (...) sustraitxoa, ebaki egiten direla, apurtu, sustrai haiek, eta gero patata hark, betatu arren, edo lurra bota arren berari, patata hura hilabete barru ugerrak hartu, ba sikatu egiten da patata, eta patatarik hartu ez, eta hori egi-egi-egia da.

Buja

—A! txorizoa, urdaia, erreteko, erreteko han sua egin, eta gero zotzean sartu, eta laranjak, orduan, e, egunaro ez ebazan ekarriko amak laranjak baina kanporamartxon laranjak (...) eta begiratu zer dan orain laranja mundu guztiak jaten dau baina orduan, e, akordetan naz amak kantinean, esnea saltzen dan lekuan han sartuta, eta orduko egunean ez zan falta, ez daukat akorduan gero lar ez eban ekarriko ze ume asko izan ginan eta, orduan be, zelango prezioa eukiko eben baina pagau ezin haxe prezioa be eta laranjak eroaten genduzan, laranjak, eta han txorizoa edo urdaia, eta erreta ogiagaz gozo.

—A! txorizoa, urdaia, erretzeko, erretzeko han sua egin, eta gero zotzean sartu, eta laranjak, orduan, egunero ez zituen ekarriko amak laranjak baina kanporamartxon laranjak (...) eta begiratu zer den orain laranja mundu guztiak jaten du baina orduan, gomutatzen naiz amak kantinean, esnea saltzen den lekuan han sartuta, eta orduko egunean ez zen falta, ez daukat gogoan gero lar ez zuen ekarriko ze ume asko izan ginen eta, orduan ere, zelako prezioa edukiko zuten baina ordaindu ezin prezio hu-

raxe ere eta laranjak eroaten genituen, laranjak, eta han txorizoa edo urdaia, eta erreta ogiagaz gozo.

Basauri

—Beno, jakina gurasoak danak daukiez (...), ez daukiez euskaldunak, gehienak hemen ez, hemen dabizanak, horra gora doazenak inok be ez, orain ikastolara dabizanak, Zaratamo aldera, hemen be (...) baina etxean ez dakien moduan, euren artean umeak, euren artean be ez dabe egiten, eskolan egingo dabe, baina euren artean, olgetan eta holan ez dabe egiten, hemen ez dabe egiten.

—Beno, jakina gurasoak denak dauzkate (...), ez dauzkate euskaldunak, gehienek hemen ez, hemen dabiltzanek, horra gora doazenek inork ere ez, orain ikaslora dabiltzanek, Zaratamo aldera, hemen ere (...) baina etxean ez dakiten moduan, euren artean umeek, euren artean ere ez dute egiten, eskolan egingo dute, baina euren artean, olgatzan eta horrela ez dute egiten, hemen ez dute egiten.

Arrigorriaga

—Eta bateaten ez, ze bateaten lehenago izaten zan ama barik, ba amabitxi eta aitabitxi, edo beste bat, a, eroateko, eta aita eroateko, eta ja gero, egun asko pasau orduan, joaten zan ja kandela bategaz eta, ekanduak! kandela bategaz (...) ama joaten zan, ama joaten zan, ba ja umeagaz eta beste bategaz, eleiza urteera egiten.

—Eta bataiatzen ez, ze bataiatzen lehenago izaten zen ama barik, ba amabitxi eta aitabitxi, edo beste bat, eroateko, eta aita eroateko, eta ja gero, egun asko pasatzean, joaten zen ja kandela batekin eta, ekanduak! kandela batekin (...) ama joaten zen, ama joaten zen, ba ja umearekin eta beste batekin, eliza irteera egiten.

Zaratamo

—Ai! kanporamartxo bai, ene! makina bat kanporamartxo egin dogu bai

—Eta zelan egiten zenduen?

—Ba koiten genduan, e, txorizoa, edo urdaia erretzeko, eta horra Semeni puntara joaten ginan, horko basotxura edo hor, hor egon zan holan, harriagaz, ez dakit nik berez eginda edo eginda, harri bat holan laba baten moduan izan zan, eta han egiten genduan sua, ze hor beti egoten zan, pinuak eta holan erramatxuakaz, eta han, ba txorizoa erre edo urdaia eta, gero meriendetea laranja bategaz ganean, ba gero kantau eta kantau.

—Ai! kanporamartxo bai, ene! makina bat kanporamartxo egin dugu bai

—Eta zelan egiten zenuten?

—Ba hartzen genuen, e, txorizoa, edo urdaia erretzeko, eta horra Semeni puntara joaten ginen, horko basotxora edo hor, hor egon zen holan, harriarekin, ez dakit nik berez eginda edo eginda, harri bat holan labe baten moduan izan zen, eta han egiten genuen sua, ze hor beti egoten zen, pinuak eta adartxoekin, eta han, ba txorizoa erre edo urdaia eta, gero meriendatzea laranja batekin ganean, ba gero kantatu eta kantatu.

Arrankudiaga

—Eta egiten zan, ganera gero esango deutsut beste gauza bat, ba egiten zan kafea, koiten zan tenazea, koiten zan txingarra, eta tzist-tzast! ataraten zan lapikotik, eta gero tapau.

—Eta egiten zen, gainera gero esango dizut beste gauza bat, ba egiten zen kafea, hartzen zen tenaza, hartzen zen txingarra, eta tzist-tzast! ateratzen zen lapikotik, eta gero tapatu.

Zollo

—Andra bateri, bularra edaten eutsala sugeak, eta (...) beno, kontua! nik entzuna bakarrik dakit, nik ikusi ez dot egin, eta zelan, umeari, txupetako buztana, eta gero, umea ba beti negarrez beti negarrez eta sugeak txupetan eutsala bularra, eta zelan koiu eben, zer dan ez dan, zerrautsa zoruan bota, eta zerrautsan suge arrastakada moduan, handik koiu ebela, nik hori entzunda daukat, e? orain egia dala guzurre dala, zer dan ez dakit

—Esaten dabe ze behiari bere

—Behiari bai, behiari inoz entzun dot, e? ze behiari bakarrik ez, ezpabere sugea ikusten badozu eta eskapau badeutsu, zulo batera sartu edo zerean, dala, gauzarik erakargarriena berarentzat, esnea ipini ezkerro, esnera urteten dauala

—A bai, e?

—Bai.

—Andre bati, bularra edaten ziola sugeak, eta (...) beno, kontua! nik entzuna bakarrik dakit, nik ikusi ez dut egin, eta zelan, umeari xurgatzeko buztana, eta gero, umea ba beti negarrez beti negarrez eta sugeak xurgatzen ziola bularra, eta zelan hartu zuten, zer den ez den, zerrautsa zoruan bota, eta zerrautsan suge arrastakada moduan, handik hartu zutela, nik hori entzunda daukat, e? orain egia dela gezurra dela, zer den ez dakit

—Esaten dute ze behiari ere

—Behiari bai, behiari inoiz entzun dut, e? ze behiari bakarrik ez, ezpabere sugea ikusten baduzu eta eskapatu badizu, zulo batera sartu edo zerean, dela, gauzarik erakargarriena berarentzat, esnea ipiniz gero, esnera irteten duela

—A bai, e?

—Bai.

Orozko

—Guk orain ez dogu egiten baina ostean guk lehen egiten genduan eskegi, palu bat eukiten genduan, palu bat, palu handi bat, holako orkatz bategaz, eta hemendik sartzen geuntsan zeretik

—Samatik

—Samatik, hor okotzetik, eta han eskegita, han eukiten genduan, eta erditik, ostetik gero ebagi bat egin, hotzitu daiten, eta gantzagi artean egoten da, gantzagiakaz nahaste gero hori eta, tripak atara orduan gantzagiak be kentzen jakoz, ba txarriari, gantzagiak kentzen jakoz eta gantzagiakaz nahaste etorten da, kuntzurrunak, gero, gero ebagiten da, ebagiten da eta ataraten jako, lepazurra, lepazur osoa, beno, burua, belarriak, hankak, a, zatirik, haiek txarri hankak, esaten jakona, txarri hankak, belarriak, horregaitik jaten dira aparte, burua, eta gero ataraten da lepazurra, eta lepazurra kendu orduan, han, a, ba saihetsak, saihetsen azpian egoten da, solomoak, solomiloak, eta gero pernilak, pernila, aurreko besoa, gero urdai lodia, eta pantzeta esaten jakona hori

—Urdai mehea

—Urdai mehea, urdai mehea, holan

—Eta buru barrukoa?

—Buru barrukoa, han zera, garaunak, hori lehenengo lehenengoa aizkoreagaz erdibitu zera, burua, erdibitu eta apartaten dira garaunak.

—Guk orain ez dugu egiten baina ostean guk lehen egiten genuen eskegi, makila bat edukitzen genuen, makila bat, makila handi bat, holako orkatz bategaz, eta hemendik sartzen genion zeretik

—Samatik

—Samatik, hor okotzetik, eta han eskegita, han edukitzen genuen, eta erditik, ostetik gero ebaki bat egin, hoztitu dadin, eta gantzagi artean egoten da, gantzagiekin nahaste gero hori eta, tripak ateratzean gantzagiak ere kentzen zaizkio, ba txerriari, gantzagiak kentzen zaizkio eta gantzagiekin nahaste etortzen da, kuntzurrunak, gero, gero ebakitzen da, ebakitzen da eta ateratzen zaio, lepazurra, lepazur osoa, beno, burua, belarriak, hankak, zatirik, haiek txerri hankak, esaten zaiona, txerri hankak, belarriak, horregaitik jaten dira banan, burua, eta gero ateratzen da lepazurra, eta lepazurra kentzean, han, ba saihetsak, saihetsen azpian egoten da, solomoak, solomotxoak, eta gero pernilak, pernila, aurreko besoa, gero urdai lodia, eta pantzeta esaten zaiona hori

—Urdai mehea

—Urdai mehea, urdai mehea, honela

—Eta buru barrukoa?

—Buru barrukoa, han zera, garaunak, hori lehenengo lehenengoa aizkoraz erdibitu zera, burua, erdibitu eta bereizten dira garaunak.

LEA-ARTIBAI

Nabarniz

—Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat, jakina, gautxoriak eta horreek, gautxoria esaten zan gauaz ibilten ziranak, ba orduan be egoten ziran danak eta, gero

egiten zituen, nire amak esaten eban, e, ze, neguan, zeozer egin behar zan eta, dantza egin, etxe batera joan eta, gorutan

—A bai ezagutu dozu?

—Nik ez dot ezagutu baina amak, bere amak bai, berak be bai, eta gero han, mutilak ba han nobia jaboten eta, guardian-guardian

—(...) sartu ba sorgina izan zala kandelea amatau eta egiten eutsiezan eta, nik ez dot ezagutu

—Holakoak, beti-beti, e, neguan

—Eta honen ama ezagutu dot, ezkondu ginanean, honen amak egiten eban gorutan

—A bai?

—Honen amak bai, nik ezagutu dot honen ama (...) lehenengo egiten eban haria edo egiten eban artilea, egiten eban gauza batzuekin holan

—Gorua, gorua zan ha, ardatza eta gorua ziran hareek

—Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat, jakina, gautxoriak eta horiek, gautxoria esaten zen gauaz ibiltzen zirenak, ba orduan ere egoten ziren denak eta, gero egiten zituzten, nire amak esaten zuen, ze, neguan, zer edo zer egin behar zen eta, dantza egin, etxe batera joan eta, gorutan

—A bai ezagutu duzu?

—Nik ez dut ezagutu baina amak, bere amak bai, berak ere bai, eta gero han, mutilak han andregaia jagoten eta, zelatan-zelatan

—(...) sartu ba sorgina izan zela kandela amatatu eta egiten zizkieten eta, nik ez dut ezagutu

—Holakoak, beti-beti, neguan

—Eta honen ama ezagutu dut, ezkondu ginenean, honen amak egiten zuen gorutan

—A bai?

—Honen amak bai, nik ezagutu dut honen ama (...) lehenengo egiten zuen haria edo egiten zuen artilea, egiten zuen gauza batzuekin holan

—Gorua, gorua zen hura, ardatza eta gorua ziren haiek

Ereño

—Bai partikea esaten jako hareri erdikoari - eta - zerari honeeri, holan erdian dagozanari trangak

—Trangak, eta holan dagozanari?

—Bai ba, hau ganea, zera, zer esan dot orain ahaztu jat - partikea - partikea, eta hola-nik trabes dagozanari trangak

- Eta alboetan dagozanari?
- Errailak guk esaten deutsegu, eta ha erraila eukitekoa ardatza
- Ardatza, eta sartzen diranak, e?
- Ziriak, eta guk taketa danari hareeri esaten deutsegu, atzeko taketa eta zera, eta han ganean ibiltzen dan zera ugaria
- Eta buztartuteko zer usetan dozue?
- Buztarriak eukiten ditu horreek, e, sapak, hareek, borlakin eta eukiten dituanak, eta hareeri besteari hedak, hedak esaten deutsee
- Bai partika esaten zaio erdiko hari - eta - zerari hauei, holan erdian daudenei trangak
- Trangak, eta holan daudenei?
- Bai ba, hau gaina, zera, zer esan dut orain ahaztu zait - partika - partika, eta holan trabes daudenei trangak
- Eta alboetan daudenei?
- Errailak guk esaten diegu, eta errail hura edukitzekoa ardatza
- Ardatza, eta sartzen direnak, e?
- Ziriak, eta guk taketa denei haiei esaten diegu, atzeko taketa eta zera, eta han gainean ibiltzen den zera ugaria
- Eta buztartzeko zer erabiltzen duzue?
- Buztarriak edukitzen ditu horiek, sapak, haiek, piztinekin eta edukitzen dituenak, eta beste haiei hedeak, hedeak esaten diete

Ispaster

- Sudurtziloetan horreek ipini, gantxoak, horreek erropak eskegiteko gantxoak, ume-ari, nik neure lagunari daukatset entzunda, sudurtziloetan ipini gantxoak, hau da, maistreak (...) entzuten baeutsen euskeraz egiten hamen gantxoak, hamen belarrien puntan gantxoak
- Eta sudurretan be bai?
- Bai, bai, bai, hementxe Izpazterreko eskolan be bai, bai bai, bai, entzun hortxe, batek tabernea dauka, hementxe behean tabernea dauka batek, eta morroi batzuk etorri eta ba, ez dakit zenbat txikito eta erderaz egin, 3x4, 12, edo 8x ez dakit zenbat dan txikitoa, 6x4 edo 6x8 dana dalakoa, edo 8x4 edo dana dalakoa, eta ikusten dozu? ikusten dozu gaztelarra gagozan denboretan erdera kontetan eta, eta konta eizu ordukorako be eurenera joaten ziran morroiak eta, eta beste baten be holan txerik bota eta, eta txokau egin jakon, esan eutsan zeuk, e, bazara gaztea, ze gaztea da hori gizonori esan eutsana eta, eta zeuk euki badozu aukera bat euskeran, ikasteko, ikasteko, e, irakurteko erreztasuna hartzeko, guk euki ez dogu ze guk zuk bai-

no gitxiago jakin genduan erderan, zuk oraintxe be zuk konta eizu nik baino hobeto jakingo dozu erdera, eta euskera be nik baino hobeto, urte hobeetan jaio bazara eta urte hobeetan aukera gehiago daukazu mesedez! ze gu egon gara (...) holantxe-rik etorri nintzan, ni egonda nago gantxoakin sudurtzuloetan egonda nago gantxo-akin, e, belarrietan, eta egonda nago, eta euskera egiten gendualako, eta gero es euskuen erakutsi, mutipliketan eta kontuak eta ataraten, e, ez euskuen erakutsi eus-keran baina, ba guk hori ikasi gendua, gu horrezkero ez gara sartu eskolan eta

—Sudurtzuloetan horiek ipini, gantxoak, horiek arropak eskegitzeko gantxoak, ume-
ei, nik neure lagunei daukaket entzunda, sudurtzuloetan ipini gantxoak, hau da,
maistrak (...) entzuten bazien euskaraz egiten hamen gantxoak, hamen belarrien
puntan gantxoak

—Eta sudurretan ere bai?

—Bai, bai, bai, hementxe Izpazterreko eskolan ere bai, bai bai, bai, entzun hortxe, ba-
tek taberna dauka, hementxe behean taberna dauka batek, eta morroi batzuk etorri
eta ba, ez dakit zenbat txikito eta erdaraz egin, 3x4, 12, edo 8x ez dakit zenbat den
txikitoa, 6x4 edo 6x8 dena delakoa, edo 8x4 edo dena delakoa, eta ikusten duzu?
ikusten duzu gaztelarra gauden denboretan erdara kontaktzen eta, eta konta ezazu
ordukorako ere eurenera joaten ziren morroiak eta, eta beste baten be holatxe bota
eta, bitxi egin zitzaion, esan zion zeuk, bazara gaztea, ze gaztea da gizon hori esan
ziona eta, eta zeuk eduki baduzu aukera bat euskaraz, ikasteko, ikasteko, irakur-
tzeko erraztasuna hartzeko, guk eduki ez dugu ze guk zuk baino gutxiago jakin ge-
nuen erdaraz, zuk oraintxe ere zuk konta ezazu nik baino hobeto jakingo duzu er-
dara, eta euskara ere nik baino hobeto, urte hobeetan jaio bazara eta urte hobeetan
aukera gehiago daukazu mesedez! ze gu egon gara (...) holantxe etorri nintzen, ni
egonda nago gantxoekin sudurtzuloetan egonda nago gantxoekin, belarrietan, eta
egonda nago, eta euskara egiten genuelako, eta gero ez ziguten irakatsi, biderka-
tzen eta kontuak eta ateratzen, ez ziguten irakatsi euskaraz baina, ba guk hori ika-
si genuena, gu horrezkero ez gara sartu eskolan eta

Lekeitio

—Peruk eukan gatzeko etxea, eta Mariak eukan oholezkoa, eta, hori, oholezko etxe-
duna, Maria joan jakon Peruri, eskatuten, gatz pixka bat emoteko, ze gatzeko
etxea eukan, esan eutsan ze ezetz, eta esan eutsan harek Mariak, nahiago neuke
ekarri euri zaparrada bat eta dana urtu, maldezinoa bota eutsan, eta orduan harek,
Peruk esan eutsan ze baita nik barriz nahiago neuke zeure etxea suak hartu eta dana
erre, ekarri eban euri zaparrada handi bat, dana urtu, ekarri eban su handi bat eta
dana erre, eta gero zer egin eben? joan ziran biak eta arbola handi bat ikusi eben,
eta hantxe arbola ganean, igon eben, eta hantxe egoezan biak, eta gero, Peru txiza-
zia zan, eta, lapurrak egin eben, e, hainbeste gauza ostu, hainbeste diru, zaku bete
diru, eta egoezan bananduten, behean, lapurrak, eta gero egin eban txiza, eta ai!
anisak dira, ha ederra zerutik datorrena, eta dana edan, lapurrak, eta gero kakazi,
hori, Maria, eta egin eban kaka multzoa, eta pastela dalakoan jan eben, eta gero da-
nak hil, hori gure aitak kontanekoa ene! ehundazak urte eukazan aitak eta beitu, ha-

orixe kontetan euskun beti, eta hori ahaztu be ez, hain asko entzun dot ze, eta gero danak hil, eta orduan Peru eta Maria bajatu ziran, hartu ebezan diru guztiak, joan ziran eta egin eben palazio handi bat eta hantxe bizi ziran

—Peruk zeukan gatzezko etxea, eta Mariak zeukan oholezkoa, eta, hori, oholezko etxeduna, Maria joan zitzaion Peruri, eskatzen, gatz pixka bat emateko, ze gatzezko etxea zeukan, esan zion ze ezetz, eta esan zion hark Mariak, nahiago nuke ekarri euri zaparrada bat eta dena urtu, madarikazioa bota zion, eta orduan hark, Peruk esan zion ze baita nik berriz nahiago nuke zeure etxea suak hartu eta dena erre, ekarri zuen euri zaparrada handi bat, dena urtu, ekarri zuen su handi bat eta dena erre, eta gero zer egin zuten? joan ziren biak eta arbola handi bat ikusi zuten, eta hantxe arbola gainean, igan zuten, eta hantxe zeuden biak, eta gero, Peru txizazia zen, eta, lapurrek egin zuten, hainbeste gauza ostu, hainbeste diru, zaku bete diru, eta zeuden banatzen, behean, lapurrak, eta gero egin zuen txiza, eta ai! anisak dira, hura ederra zerutik datorrena, eta dena edan, lapurrek, eta gero kakazi, hori, Maria, eta egin zuen kaka multzoa, eta pastela delakoan jan zuten, eta gero denak hil, hori gure aitak kontanekoa ene! ehundazak urte zeuzkan aitak eta begiratu, haorixe kontatzen zigun beti, eta hori ahaztu ere ez, hain asko entzun dut ze, eta gero denak hil, eta orduan Peru eta Maria bajatu ziren, hartu zituzten diru guztiak, joan ziren eta egin zuten jauregi handi bat eta hantxe bizi ziran

Markina

—Bai, bai, bardin-bardin, esaten deusut ba, neuk be halantxe ekarri nituan burdiak, txilina eragin, eta behiak eta, zerak eta, eta txirrin-txarran! baina, entzun be ez zan egiten Markinan ze jente asko egoan eta, ze jente egon zan! ze jente! jente asko!

—Oinez eta

—Oinez eta gero zera be egin eben Markina-Etxebarrian, txondorra egin eben ikatza egiteko, ez dakizu? ikatza egin eben gero laietan be egin eben bidean, egin eben eta horretan

—Baina ez genduan ezer ikusi ia-ia

—Antxinako gauzak, laiak eta ekarri zituezan, baina otzarak, ni ezkondu nintzanean burukoak izaten ziran, buruan - bai - eroaten ziran, sorkiak ipini, holan, eta sorkien ganean eutsi be egin barik, hemen egin eben, hor zerean be, aratusteetan be, egin eben ezkontzea ba, probisionala ezta? ezkontzea, ezkontzea egiten dan modura, abadea jantzita eta, ba jantzita eurak be nobio-nobiak eta, gero, baina ezkontzea ez? baina imitazioa edo, horixe, egin eben

—Bai, bai, berdin-berdin, esaten dizut ba, neuk ere halantxe ekarri nituen burdiak, txilina eragin, eta behiak eta, zerak eta, eta txirrin-txarran! baina, entzun ere ez zen egiten Markinan ze jende asko zegoen eta, ze jende egon zen! ze jende! jende asko!

—Oinez eta

—Oinez eta gero zera be egin zuten Markina-Etxebarrian, txondorra egin zuten ikatza egiteko, ez dakizu? ikatza egin zuten gero laietan be egin zuten bidean, egin zuten eta horretan

—Baina ez genuen ezer ikusi ia-ia

—Antzinako gauzak, laiak eta ekarri zituzten, baina otzarak, ni ezkondu nintzen burukoak izaten ziren, buruan - bai - eroaten ziren, sorkiak ipini, holan, eta sorkien gainean eutsi ere egin barik, hemen egin zuten, hor zerean ere, aratusteetan ere, egin zuten ezkontza ba, probisionala ezta? ezkontza, ezkontza egiten den modura, abadea jantzita eta, ba jantzita eurak be gizongai-andregaiak eta, gero, baina ezkontza ez? baina imitazioa edo, horixe, egin zuten

Aulestia

—Nik ez dakit ba, nik preguntarik be ez neutsan egin gura izan baina berton, orain hil be egin da baina, abade batek nigana bota eban, neure etxera eta, hiru egunean egin eustazan holako preguntak, eta Amorebietakoa zala, Karmenen egondakoa zala eta gero Donostiara joan ziran hareek, ba eta preguntau zeozer egingo neutsan ze, bestela ez neban jakingo ze, izenik ez dakit orain be, inoiz be ez dot pentsetan preguntau neutsanik eta, Karmenetik Donostiara baserri, etxe bat daukiela hartuta hiru lauk edo bostek edo, holan esan eustan, eta eroan egin zituan

—Hiru egun holan jo eta ke?

—Bai, bai, bai, bai, goizean etorten zan eta gero arratsaldean joan, iluntze edo egin eta hiru egunean, bostehun ale edo ez dakit zenbat edo seirehun edo, egin genduzala eta kitu eutsan eta, gero koinatuagana be joan zan, eta haregaz be egon zan eta holan pregunta batzuk egiten

—Nik ez dakit ba, nik itaunik ere ez nion egin gura izan baina berton, orain hil ere egin da baina, abade batek nigana bota zuen, neure etxera eta, hiru egunean egin zizkidan holako itaunak, eta Amorebietakoa zela, Karmenen egondakoa zela eta gero Donostiara joan ziren haiek, ba eta itaundu zer edo zer egingo nion ze, bestela ez nuen jakingo ze, izenik ez dakit orain ere, inoiz ere ez dut pentsatzen itaundu nionik eta, Karmenetik Donostiara baserri, etxe bat daukatela hartuta hiru lauk edo bostek edo, holan esan zidan, eta eroan egin zituen

—Hiru egun holan jo eta ke?

—Bai, bai, bai, bai, goizean etortzen zen eta gero arratsaldean joan, iluntze edo egin eta hiru egunean, bostehun ale edo ez dakit zenbat edo seirehun edo, egin genituela eta kitu zion eta, gero koinatuagana be joan zen, eta harekin ere egon zen eta holan itaun batzuk egiten

Munitibar

—Lehen San Kristobalera, badakizu non dagoan? hori San Kristobal? - ez - mendian dago, oinez hara, eta bidean soinua badoa, holan leunetxuan dantzaldiak eginda, ba etorri be oinez, Gernikara ba oinez, joan eta etorri

—Gernikara ba, Gernikara hemendik oinez, ostean ez egoan ez autobusik ez, zaldia-kin, e, karroak bakarrik, eta lau lagunegaz bete ezin kitu, oinez juten ginan gu bai Markinatik etorri be bai eta joan be bai Markinara nahi Gernikara

—Danera

—Kotxea non egoan ba? hauxe Errota eta zera, Zubialde parau ziran orduantxe auto-busetan jentea, ba hiru txiki edo kobretan eban, eta besteak, erreal bat edo, eta han

—Hiru txiki, pezeta bat zerak Zubialdeko zerak, eta ez, harek pezeta bi eta Errotak pezeta bi, ez, pezeta bat Errotak

—Errotak ez - merkeago - bai merkeago ha bestea kentzeko, baina jentea, harexega-na joaten zan merkeagana, edo karuagana

—Lehen San Kristobalera, badakizu non dagoen? hori San Kristobal? - ez - mendian dago, oinez hara, eta bidean soinua badoa, holan leunetxoan dantzaldiak eginda, ba etorri be oinez, Gernikara ba oinez, joan eta etorri

—Gernikara ba, Gernikara hemendik oinez, ostean ez zegoen ez autobusik ez, zal-diekin, e, karroak bakarrik, eta lau lagunekin bete ezin kitu, oinez joaten ginen gu bai Markinatik etorri ere bai eta joan ere bai Markinara nahi Gernikara

—Denera

—Kotxea non zegoen ba? hauxe Errota eta zera, Zubialde paratu ziren orduantxe au-tobusetan jendea, ba hiru txiki edo kobratzen zuen, eta besteak, erreal bat edo, eta han

—Hiru txiki, pezeta bat zerak Zubialdeko zerak, eta ez, hark pezeta bi eta Errotak pe-zeta bi, ez, pezeta bat Errotak

—Errotak ez - merkeago - bai merkeago beste hura kentzeko, baina jendea, harexe-gana joaten zen merkeagana, edo karuagana

Ondarroa

A- Hau zer da hau? hau piketan dauana leku, piketan dauana

B- Salmeua, ez salmeue ez da hori

A- Ez salmeua ez da hori

B- Ez da salmeua hemen, agertuko dira salmeuak

A- Txibia, txokoa

B- Haor dozu txibia hamen zenbat klase dagoan, txokoa hau be, eta txokoa hau be, e? txibia, hau potxa

C- Potxa, hori potxa, eta horrek lupinaren itxurarik be ez dauka

B- Nik pentsau, hurreratu be ez

C- Hemengo lupinaren itxurarik ez dauka horrek

A- Lupina baltza zerekoa da hori be, ba beste lupina baltzik be ez da, halakoak ez dira hamen egoten behintzat, hau behintzat sekula ez dot ikusi nik

B- Honek, e, meroaren itxura gehiago dauka

A- Haori bai, meroaren itxura handiagoa horrek

B- Meroaren itxura dauka

A- Ze hemen guk harrapatu doguz, oraintxe harrapatu doguz, e, zazpi klase mero harrapatu doguz

A- Hau zer da hau? hau pikatzen duena leku, pikatzen duena

B- Salbarioa, ez salbarioa ez da hori

A- Ez salbarioa ez da hori

B- Ez da salbarioa hemen, agertuko dira salbarioak

A- Txibia, txokoa

B- Haor duzu txibia hemen zenbat mota dagoen, txokoa hau ere, eta txokoa hau ere, e? txibia, hau potxa

C- Potxa, hori potxa, eta horrek lupinaren itxurarik ere ez dauka

B- Nik pentsatu, hurreratu ere ez

C- Hemengo lupinaren itxurarik ez dauka horrek

A- Lupina beltza zerekoa da hori ere, ba beste lupina beltzik ere ez da, halakoak ez dira hamen egoten behintzat, hau behintzat sekula ez dut ikusi nik

B- Honek, meroaren itxura gehiago dauka

A- Hori bai, meroaren itxura handiagoa horrek

B- Meroaren itxura dauka

A- Ze hemen guk harrapatu ditugu, oraintxe harrapatu ditugu, zazpi mota mero harrapatu ditugu

MUNGIALDEA

Jatabe

—Ba geure bestaldeko, Jone edo, Juan, baina Joniko esaten jakon, Jone, eta han bere, haor, Urondon parienteak euki ei ebazan, Urondo badakizu non dan ezta?

—Bai

—Benoa, hantxe euki ei ebazan, eta gauren baten joan ei ziran ba, ba ilundean joan eta gaua egingo zan arin beharbada, negua izango zan beharbada, eta belutxu etorri zan ba etxerantza, eta, Txiboko Landan burua topau hurrengo goizean, etxera etorri barihan han topau ei eban burua, lehenago erreketan, bere egoten ziran sorginak, a, zelan euki eben hareek izena, sorginak edo

—Laminak?

—Laminak edo, burua orraztuten orraziakaz.

—Ba geure bestaldeko, Jone edo, Juan, baina Joniko esaten zitzaion, Jone, eta han ere, haor, Urondon parienteak eduki ei zituen, Urondo badakizu non den ezta?

—Bai

—Beno, hantxe eduki ei zituen, eta gauren baten joan ei ziren ba, ba ilundean joan eta gaua egingo zen arin beharbada, negua izango zen beharbada, eta belutxo etorri zen ba etxerantz, eta, Txiboko Landan burua topatu hurrengo goizean, etxera etorri barihan han topatu ei zuen burua, lehenago erreketan, ere egoten ziren sorginak, a, zelan eduki zuten haiek izena, sorginak edo

—Laminak?

—Laminak edo, burua orrazten orraziakin.

Gatika

—Erraturak, soloetan egiten ziran, bedarrak edo holan, sakeleria batu, eta piloa egin, eta ganetik bota lurra, eta sikatuten diranean eta sua emon gero, soloa eratz, eratz soloa beharbada

—Bai

—Ganeko bedartxua, ze antxina ez zan egoten zegaz eratzirik bere gero urten eben, a, kakarraldoak eta horreek trapazeriak baina, eratz eta sikatuten danean, batu pilo batera, lurra bota ganera, lurragaz tapau, eta sua emon eta suetan keatan-keatan-keatan erreten da barru guztia eta, gorri-gorri eginda ipinten dau hak ganeko lurra eta azpikoa eta inguru guztiak, bedarrak gitxiago urten daian esaten zan hori egiten dala

—Erraturak, soroetan egiten ziren, belarrak edo holan, sakeleria batu, eta piloa egin, eta gainetik bota lurra, eta sikatzen direnean eta sua eman gero, soroa eratz, eratz soroa beharbada

—Bai

—Ganeko belartxoa, ze antzina ez zen egoten zerekin eratzirik ere gero irten zuten, a, kakarraldoak eta horiek trapazeriak baina, eratz eta sikatzen denean, batu pilo batera, lurra bota gainera, lurrarekin tapatu, eta sua eman eta sutan ketan-ketan-keatan erretzen da barru guztia eta, gorri-gorri eginda ipintzen du hark ganeko lurra eta azpikoa eta inguru guztiak, belarrak gutxiago irten dezan esaten zen hori egiten dela

Laukiz

—Gari joten ibili zirala baten, etxe baten eta, lukia etorri zala hara, eta lukia etorri zanean hara, eta, batek eroan da, etxearen alboan egon zala putzu bat eta hara, eta esan eutsala ze, ba, hareek urak danak edaten baditu, eta, iretargiaren argia egon

zala uretan eta, hareek urak danak edaten baditu ha, ha taloa berarentzat izango dala, eta edan eta edan eta edan eta edan eta edan ibili zala, eta gero ekarri dauala, portalerako, gari jotzen ibili ziran lekura eta

—Gari jotzen ibili ziran, eta kortxoa ipini eutsan astoari

—Ba esan eutsala gero atzetik kortxoa kendu eizu, urez beterik egon zala, eta, ha taloa ez eban koiu hareetan baina, eta, gariak egon ziran lez, portalean, hara ekarrita, gizonen batek han ibili zan hango andreari, ba, kortxoa kendu eban eta, Maria urak daroa garia egiten eutsan deitu seguru bere gero, gariak portaletik urak eroan zituan seguru astoaren, a,

—Gari jotzen ibili zirela baten, etxe baten eta, lukia etorri zela hara, eta lukia etorri zenean hara, eta, batek eroan da, etxearen alboan egon zela putzu bat eta hara, eta esan ziola ze, ba, haiek urak denak edaten baditu, eta, iretargiaren argia egon zela uretan eta, haiek urak denak edaten baditu hura, talo hura berarentzat izango dela, eta edan eta edan eta edan eta edan ibili zela, eta gero ekarri duela, atarirako, gari jotzen ibili ziren lekura eta

—Gari jotzen ibili ziren, eta kortxoa ipini zion astoari

—Ba esan ziola gero atzetik kortxoa kendu ezazu, urez beterik egon zela, eta, talo hura ez zuen hartu haietan baina, eta, gariak egon ziren legez, atarian, hara ekarrita, gizonen batek han ibili zen hango andreari, ba, kortxoa kendu zuen eta, Maria urak daroa garia egiten zion deitu seguru ere gero, gariak ataritik urak eroan zituen seguru astoaren, a,

Mungia

—Nik esango deutsut beste kasu bat, kasualidadez gaur dira berrogeta, zortzi urte hil zala, andra bat, nigaz euki eban tratu bat eginda, idiakaz landuteko nik solo bi, eta artoa ereiten exeagaz lagunduteko, eta emon eustan hamen berton, bedarleku saila bat, eta, solo bueltak, sasia egiten hasita euki zituan danak, hareek garbitu, haretako bedarra aprobetxetako, eta gure etxea bere ba, ez zan lur askotarikoa, eta beharizana, eta hartu neutsan, urte birako izateko, baina labrantzea urte baterako, landu soloak, ereiteko moduan ipini eta, exeagaz erein, urte betean, eta urte bian bedarrak aprobetxetako, beno, zehatz-zehatz ipini nituan munak eta, labrantzea egin baino lehenago, eta behingoan goizetien munea, bedarra etorri zan eta, ebagi neban, sasiari eta indarra hartzeko leku barik, zehatz-zehatz eginda eta, ebagi bedarra aprobetxau nituan eta lantzarrak bere bai, urtea akabau zanean eta berak uztea koiu ebanean, esan eustan ze, beno, Teodoro, orain beste urte beterako emongo deutsudaz gura badozuz, barrian labrantzea egiteko, ez oker zagoz, esan neutsan, zer ba? urte birako bedarrak aprobetxetea, nik horreek sasiak danak garbitu, eta zer gura dozu orain? e? nik aprobetxau dodanagaitik, garbi-garbi eginda solo bazterrak eta eskinak danak itzi, esan neutsan, neuk behar danik aprobetxau barik ez, hori ez deustazu emon, zeuk ez deustazu emon niri, nik aprobetxauko dot hori danaren gantetik, ze ni egiagaz bizi izan naz beti, nik ez dot gura ez danik, eta, zer dakarzu? eta aprobetxau neban, gaur dira berrogeta zortzi urte hil zala, euki neban, soloan,

erremolatxea, eta indabea ereinda alkarregaz, nahastean, indabea kendu, goizetiko indaba txikerra zan, alogereko bat euki neban, beharrean, andreagaz eta batzen, eta iluntzean, indabak eskinara botata egon ziran, eta, ganadua ipinita joan nintzan, indabaren bila, astoagaz, eta astoak askatasun guztia euki eban indabea jatea orduan, eta astoa kargetan nagoala, ja! egin eban astoak holan, gora, jateari bere itzi eutsan, eta adi-adi parau zan, eta zer da eta, ez ziran egon, e, berrogei berrogeta bost metro pertsonaren itxuran dirdir-dirdir-dirdir, eta hak egin eustan niri artean, ni gogortu nakonean. alabea euki eban hor behean gero, lastimaz hil jakon baina, etorri eta albotik pasau, eta barbarik egin barik joan da, hil zan, eta hirugarren egunean, ha hilda, agertu jatan nirean, eta asto hori neu be kargetan, ni aurrera eta, zer da astoa? otsoa ez bada garaitekoan, dominauko dogu besterik, e, ez badator, adituten dot eta, dirdir-dirdir, pertsonaren altuera inguru, neuri agertukoa da, dardakadan etorri nintzan hona etxe ondoraino bere, eta geldi-geldi geldi-geldi eta halan bueltetan zan segun ni honantza zelan natorren

—Nik esango dizut beste kasu bat, kasualidadez gaur dira berrogeita, zortzi urte hil zela, andre bat, nirekin eduki zuen tratu bat eginda, idiekin lantzeko nik soro bi, eta artoa ereiten exearekin laguntzeko, eta eman zidan hamen berton, belarleku saila bat, eta, soro bueltak, sasia egiten hasita eduki zituen denak, haiek garbitu, haietako belarra aprobetxatzeko, eta gure etxea ere ba, ez zen lur askotarikoa, eta beharrizana, eta hartu nion, urte birako izateko, baina labrantza urte baterako, landu soroak, ereiteko moduan ipini eta, exearekin erein, urte betean, eta urte bian belarrak aprobetxatzeko, beno, zehatz-zehatz ipini nituen munak eta, labrantzea egin baino lehenago, eta behingoan goizetien muna, belarra etorri zen eta, ebaki nuen, sasiari eta indarra hartzeko leku barik, zehatz-zehatz eginda eta, ebaki belarra aprobetxatu nituen eta lantzarrak ere bai, urtea amaitu zenean eta berak uzta hartu zuenean, esan zidan ze, beno, Teodoro, orain beste urte beterako emango dizkizut gura badiuzu, berriro labrantza egiteko, ez oker zaude, esan nion, zer ba? urte birako belarrak aprobetxatzea, nik sasi horiek denak garbitu, eta zer gura duzu orain? e? nik aprobetxatu dudanagatik, garbi-garbi eginda soro bazterrak eta eskinak denak utzi, esan nion, neuk behar denik aprobetxatu barik ez, hori ez didazu eman, zeuk ez didazu eman niri, nik aprobetxatuko dut hori denaren gainetik, ze ni egiarekin bizi izan naiz beti, nik ez dut gura ez denik, eta, zer dakarzu? eta aprobetxatu nuen, gaur dira berrogeita zortzi urte hil zela, eduki nuen, soroan, erremolatxa, eta indaba ereinda elkarrekin, nahastean, indaba kendu, goizetiko indaba txikerra zen, alogereko bat eduki nuen, beharrean, andrearekin eta batzen, eta iluntzean, indabak eskinara botata egon ziren, eta, ganadua ipinita joan nintzen, indaben bila, astoarekin, eta astoak askatasun guztia eduki zuen indaba jatea orduan, eta astoa kargaten nagoela, ja! egin zuen astoak holan, gora, jateari ere utzi zion, eta adi-adi paratu zan, eta zer da eta, ez ziren egon, e, berrogei berrogeita bost metro pertsonaren itxuran dirdir-dirdir-dirdir, eta hark egin zidan niri artean, ni gogortu natzaionean. alaba eduki zuen hor behean gero, lastimaz hil zitzaion baina, etorri eta albotik pasatu, eta barbarik egin barik joan da, hil zen, eta hirugarren egunean, hura hilda, agertu zitzaidan nirean, eta asto hori neu ere kargatzen, ni aurrera eta, zer da astoa? otsoa ez bada garaitekoan, dominatuko dugu besterik, e, ez badator, aditzen dut eta,

dirdir-dirdir, pertsonaren altuera inguru, neuri agertukoa da, dardakadan etorri nintzen hona etxe ondoraino ere, eta geldi-geldi geldi-geldi eta halan bueltatzen zen segun ni honantz zelan natorren

Gamiz

—Ba goizetan, e, altxetan gara, eta gero hasten gara ba, geuk barausi edo holako kafesnea edo zer edo ha, eta kortan hasten gara, gero kortakoak egiten doguz, eta ba, osterabere armozu kopu bat egin eta behiak atara, bedarrak ebagi, eta gero soloan danean ba, patatea erein (...)

—Ba goizetan, e, altxatzen gara, eta gero hasten gara ba, geuk barausi edo holako kafesnea edo zer edo hura, eta kortan hasten gara, gero kortakoak egiten ditugu, eta ba, ostera ere armozu kopu bat egin eta behiak atera, belarrak ebaki, eta gero sororan denean ba, patata erein (...)

Fruiz

—Ba guk, e, garatxak kenduteko kontau egiten genduan, kontau zeragaz, gariagaz, eta sagarraren barruan sartu eta lurpean sartu gero ikusi barik

—Ba guk, e, garatxak kentzeko kontatu egiten genuen, kontatu zerarekin, gariarekin, eta sagarraren barruan sartu eta lurpean sartu gero ikusi barik

Arrieta

Beno orain, esango deusut neuk be, gure ama, niri nebea hil jatan ba Afrikan hil zan, itsasoan ibili zan eta, hil zan, eta ekarri eben hona lurpetuteko, handik zortzi egunera edo holan, esaten dau amak, agertu egin jakon atean, esaten dau baina bera e! ha bera izan zan, dino, eta, ama ilun dago hamen esan eutsala, hori amak, e, oraindino bizi da, e? ama ilun dago hamen, ilun dago Juan Luis? zer pasetan jatzu ba? eta hori esan eta eskapatu egin eutsala, ai! ha mutila ez dago ondo, eta gure amak mezea esan, eta gero atean, e, kanpoko atean, hori Jesusen Bihotz bat euki eban, eta han argitxu bat ipini, harexeri Juan Luiseri, Juan Luis izan zan, argi egiteko, eta ha etxe zaharrean, oraintxe etxe barriaren atean argia hantxe egongo da, e, orain kendu dabe

Beno orain, esango dizut neuk ere, gure ama, niri neba hil zitzaidan ba Afrikan hil zen, itsasoan ibili zen, hil zen, eta ekarri zuten hona lurpetzeko, handik zortzi egunera edo holan, esaten du amak, agertu egin zitzaion atean, esaten du baina bera e! hura bera izan zen, dio, eta, ama ilun dago hamen esan ziola - hori amak, oraindino bizi da, e? ama ilun dago hamen, ilun dago Juan Luis? zer pasatzen zaizu ba? - eta hori esan eta eskapatu egin ziola, ai! mutil hura ez dago ondo, eta gure amak meza esan, eta gero atean, kanpoko atean, hori Jesusen Bihotz bat eduki zuen, eta han argitxo bat ipini, huraxeri Juan Luisi, Juan Luis izan zen, argi egiteko, eta hura etxe zaharrean, oraintxe etxe berriaren atean argia hantxe egon da, orain kendu dute

Meñaka

—Sugoia ikusita nago ni hemen, eta inoz, eta ez dozue sinestuko, ez dozuena sinestuko ziurra da, hemen egon leitekela, sugoia kaminoan bazter batetik besterakoa

inoz pasau dozu burutik? esate baterako, Larrauritik etorri, Binoteruna pasau, ha sarea zelan dagoan beheko alderditik, han sarearen parean sugoia, holakoa, bero itzela dago, baina erretzekoa dago beroa, eta hau tabernako Jose, Arrietan gabiz beharrean, baia gu Arrietan beharrean gabizala Miren Begok? Mungiako ile-apaindegi baten, bertan ile-apaindegi baten hori ibili zan, ba, orain dala ba, zortzi bat urte, bederatzira, ibili zala hori ile-apaindegian beharrean, gogoan daukazu Ixabel? ez zan denbora handirik izan, ba ibiliko zan beharrean ba, bost sei hilabetean bai, tabernan baino gurago dauala eta ile-apaindegian ibili zan, beno, gu Arrietan ibili beharrean eta Josek esan eustan, Iñaki Miren Bego hartu behar dogu Mungian ba! bazkalduten ekarteko, eta etorri ginan Mungiatik, eta, hartu genduan eta etorri ginan eta, haxe Binoteruneko bueltea hartu, zer dago han kaminoan? soka edo, sugoia, inoz ez dot pentsau, hemen egon leitekela haolako sugoirik, ba sugoia baina, edozelan bere lau metro eta erdi inguruko sugoia zan, kaminoan batetik bestera, zapaldu dogu sugoia kotxeagaz, eta geldi dago! ze sugoiak gehienetan berora egiten dau, sugoia errekakoa ez bada, sugoiak eguzkira eta bero dagoan lekura egiten dau, nik ez dakit zerena dan, sugoia geldi dago, ikaratu gara, hau bakezkoa da, sugoia zapaldu dogu, kotxeagaz eta sugoia ez da hiltzen, burua zapaldu ezean, orduan hasi da mogimendua, bota atzez! kristalak itxita, bota dogu atzez, sugoia artegaten dago, zapaldu egiten dogu eta ibili ez, bota atzez, aurrez, hiru bider zapaldu dogu, urteten gara bildur, makila bat edo euki bagenduan, gero, zapaldu dogunean baina zer da hau ba! uleak ere altxauta baina bildurragaz, niri sugoiak ez deuste emoten bildurrik eskuan makilatxu bat edo, nik sugoia beti hil, gustetan jat, ba han ez dago ezer, urten dogu kotxetik halan distantziatxuan, batu da holan, igango eban edozelan bere, honen mahaiaren altuera inguruan bai, batu-batu-batu eginda holan igan dau, ahoa haolasekoa! eta sugoia ezin hil, ez daukagu eskuan ezer, hiru bider kotxeagaz zapaldu, handik saretik joan da, handik behera sugoia, kasua da ze, hau, ez dot esaten, hamen esan dot, ze edozein esanda jo, jo, jo hori sugoia hemen ez dago esango deustu, neure begiakaz ikusikoa da, Karmelok, han arditxo batzuk eta haren sarean beste alderditik, zaldia eta mandoa eta ardi batzuk eta Karmelok eukiten ditu han ba, txabola zahar bat dauka eta, ba mandoa hurrengo egunean hilda, Karmelori hil jako mandoa, hurrengo egunean neuk tabernan entzun neban, eta zelan eta? zer edo zerk pikau edo ez dakit ba, albaiteroak ez dau igarri eta hil da.

—Sugoia ikusita nago ni hemen, eta inoiz, eta ez duzue sinestuko, ez duzuen sinestuko ziurra da, hemen egon litekeela, sugoia kaminoan bazter batetik besterakoa inoiz pasatu duzu burutik? esate baterako, Larrauritik etorri, Binoteruna pasatu, sare hura zelan dagoen beheko alderditik, han sarearen parean sugoia, holakoa, bero itzela dago, baina erretzekoa dago beroa, eta hau tabernako Jose, Arrietan gabiltza beharrean, baina gu Arrietan beharrean gabiltzala Miren Begok? Mungiako ile-apaindegi baten, bertan ile-apaindegi baten hori ibili zen, ba, orain dela ba, zortzi bat urte, bederatzira, ibili zela hori ile-apaindegian beharrean, gogoan daukazu Ixabel? ez zen denbora handirik izan, ba ibiliko zen beharrean ba, bost sei hilabetean bai, tabernan baino gurago duela eta ile-apaindegian ibili zen, beno, gu Arrietan ibili beharrean eta Josek esan zidan, Iñaki Miren Bego hartu behar dogu Mungian ba! bazkaltzen ekartzeko, eta etorri ginen Mungiatik, eta, hartu genuen eta

etorri ginen eta, huraxe Binoteruneko buelta hartu, zer dago han kaminoan? soka edo, sugoia, inoiz ez dut pentsatu, hemen egon litekeela haolako sugoirik, ba sugoia baina, edozelan ere lau metro eta erdi inguruko sugoia zen, kaminoan batetik bestera, zapaldu dugu sugoia kotxeagaz, eta geldi dago! ze sugoiak gehienetan berora egiten du, sugoia erreka badi, sugoia eguzkita eta bero dagoen lekura egiten du, nik ez dakit zerena den, sugoia geldi dago, ikaratu gara, hau bakezkoa da, sugoia zapaldu dugu, kotxearekin eta sugoia ez da hiltzen, burua zapaldu ezean, orduan hasi da mogimendua, bota atzez! kristalak itxita, bota dugu atzez, sugoia artegatzen dago, zapaldu egiten dugu eta ibili ez, bota atzez, aurrez, hiru bider zapaldu dugu, irteten gara bildur, makila bat edo eduki bagenuen, gero, zapaldu dugunean baina zer da hau ba! ileak ere altxatuta baina bildurrarekin, niri sugoiek ez didate ematen bildurrik eskuan makilatxo bat edo, nik sugoia beti hil, gustatzen zait, ba han ez dago ezer, irten dugu kotxetik halan distantziatxoan, batu da holan, igango zuen edozelan ere, mahai honen altuera inguruan bai, batu-batu-batu eginda holan igan du, ahoa haolasekoa! eta sugoia ezin hil, ez daukagu eskuan ezer, hiru bider kotxearekin zapaldu, handik saretik joan da, handik behera sugoia, kasua da ze, hau, ez dut esaten, hamen esan dut, ze edozein esanda jo, jo, jo hori sugoia hemen ez dago esango dizu, neure begiekin ikusikoa da, Karmelok, han arditxo batzuk eta haren sarean beste alderditik, zaldia eta mandoa eta ardi batzuk eta Karmelok edukitzen ditu han ba, txabola zahar bat dauka eta, ba mandoa hurrengo egunean hilda, Karmelori hil zaio mandoa, hurrengo egunean neuk tabernan entzun nuen, eta zelan eta? zer edo zerk pikatu edo ez dakit ba, albaiteroak ez du igarri eta hil da.

Bakio

Burdina bat egoten zan, egurra zan, kasu baterako hau, hau da ba, pinua edo haritza edo zera, eta hamen, ba sartzen jakon ba, mailu, harri mailu, harri mailua edo porra, harri mailua da puntetara zorrotza dana, harria da! apurtuteko, baina porra da ba mazeta bat, eta porragaz jo, eta sartzen jakon eta handik gero ganaduak, idiak edo behiak edo tiratuteko, katea, katearen puntan, buztarrian, engantxetako ganaduari, behi bi edo idi bi izaten ziran eta erdian ba, hori burtedea, ba eginda egoten zan orduan, orain ha probetan eta erabilten da hori bai sokagaz egiten dabe momentuan orain, ba orduan egoten zan ba, hori ganaduaren narruagaz, eginda eta, bertan buztarrian josi esaten jakon, ipini, buztarria hau da eta hemen holan buztarria, eta hemen sartzen zan haolako begi bat, begi bat eginda hareri, hedeari, hedak izaten ziran hareek uhelak, hedak, sartzen zan hemen eta hemen bueltaka, egiten zan ha hor burtedea, bertan josi, burtedea josi, hak buztarriak, ha betiko egiten eben beno betiko ez, egiten zan baina asko ibilian ba egiten zan ba lasatu, lasatuten zanean egiten zan soltau dana, koipeztau gero, koipea, apaborroa, apaborroa izaten zan, txarriaren zil begia hau, txerria hiltzen zanean, hau freskotan kentzen jakon, zil begia, ha eskegi eta ez da ustelduten, nik orain, zortzi urteko edo haor daukat ondinarren, gatz barik e! eta ez da ustelduten, urdaia da, hau urdaia, mehea, zil begia, haregaz egiten ziran horreek, hareek hedak, koipeztau, holako, lehor egon ez daiten ha, gogortu ez daitezkan, egon daitezkan bigunago eta haregaz, eta atzera lehengo moduan ha burtedea egiten zan josi, han sartzen zan gero hori lehen esan doguna kateak, katearen puntakoa, nardeia, haolako gauza

bat erabilten zan, haolako egur bat, eukiten eban enborran, hametik haolan eta, haolan burdinatxu bat, eta handik burdinatik katea engantxauta, ha nardeia egurra bera, haolako lodierakotxu bat, zuloa, ba, hiru zulo edo, lau ere igual batzuk egingo ebezan, ha sartzen zan han burtedan holan, eta hemen puntan, zotz bat, esaten jakon burzotza, hori izaten zan gehienetan, onena onena gorostia, gorosti lisutxuak ebagi, sikatu ondo, eta egin haolako zotza, haolako tamainukotxua, egin haolan zuloa ginbaletagaz eta handik ginbaletaren zulotik sartzen jakon uhela, ganaduaren, narruagaz egineko uhela mehe mehetxua, ha sartzen, eta haregaz egiten zan han puntan, sartu han eta! eta gero buelta emon eta holan troinu bat hemen, egiten jakon, eta ha izaten zan burzotza, nardeiko burzotza, eta burdiari bere bardin, burdiaren partikea han burtedan sartzen zan holan, eta gero puntatik ha burzotza, ba atzekoak eta aurrekoa, ze ganaduak atzez botaten zenduzanean burdia atzez botateko, atzekoa behar izaten zan atzean indar egiteko

Burdina bat egoten zen, egurra zen, kasu baterako hau, hau da ba, pinua edo haritza edo zera, eta hamen, ba sartzen zitzaion ba, mailu, harri mailu, harri mailua edo porra, harri mailua da puntetara zorrotza dena, harria da! apurtzeko, baina porra da ba mazeta bat, eta porrarekin jo, eta sartzen zitzaion eta handik gero ganaduek, idiek edo behiek edo tiratzeko, katea, katearen puntan, buztarrian, engantxatzeko ganaduari, behi bi edo idi bi izaten ziren eta erdian ba, hori burtedea, ba eginda egoten zen orduan, orain hura probetan eta erabiltzen da hori bai sokarekin egiten dute mementuan orain, ba orduan egoten zen ba, hori ganaduaren narruarekin, eginda eta, bertan buztarrian josi esaten zitzaion, ipini, buztarria hau da eta hemen holan buztarria, eta hemen sartzen zen haolako begi bat, begi bat eginda hari, hedeari, hedeak izaten ziren haiek uhelak, hedeak, sartzen zen hemen eta hemen bueltaka, egiten zen hura hor burtedea, bertan josi, burtedea josi, hark buztarriak, hura betiko egiten zuten beno betiko ez, egiten zen baina asko ibilian ba egiten zen ba lasatu, lasatzen zenean egiten zen soltatu dena, koipeztatu gero, koipea, apaborroa, apaborroa izaten zen, txerriaren zil begia hau, txerria hiltzen zenean, hau freskotan kentzen zitzaion, zil begia, hura eskegi eta ez da usteltzen, nik orain, zortzi urteko edo haor daukat ondinarren, gatz barik e! eta ez da usteltzen, urdaia da, urdai hau, mehea, zil begia, harekin egiten ziren horiek, haiek hedeak, koipeztatu, holako, lehor egon ez dadin hura, gogor ez daitezen, egon daitezen bigunago eta harekin, eta atzera lehengo moduan hura burtedea egiten zen josi, han sartzen zen gero hori lehen esan duguna kateak, katearen puntakoa, nardeia, haolako gauza bat erabiltzen zen, haolako egur bat, edukitzen zuen enborran, hametik haolan eta, haolan burdinatxo bat, eta handik burdinatik katea engantxatuta, hura nardeia egurra bera, haolako lodierakotxo bat, zuloa, ba, hiru zulo edo, lau ere igual batzuek egingo zituzten, hura sartzen zen han burtedean holan, eta hemen puntan, zotz bat, esaten zitzaion burzotza, hori izaten zen gehienetan, onena onena gorostia, gorosti lisutxoak ebagi, sikatu ondo, eta egin haolako zotza, haolako tamainukotxoa, egin haolan zuloa ginbaletarekin eta handik ginbaletaren zulotik sartzen zitzaion uhela, ganaduaren, narruarekin egineko uhela mehe mehetxoa, hura sartzen, eta harekin egiten zen han puntan, sartu han eta! eta gero buelta eman eta holan troinu bat hemen, egiten zitzaion, eta hura izaten zen burzotza, nardeiko burzotza, eta burdiari ere berdin, burdiaren partika han burtedean sartzen zen holan, eta gero pun-

tatik hura burzotza, ba atzekoak eta aurrekoa, ze ganaduak atzez botatzen zenituenean burdia atzez botatzeko, atzekoa behar izaten zen atzean indar egiteko

TXORIERRI

Leioa

—Pujamanta bat, pujamantea da, haolan, a, pala antzeko bat, eta ebagiten dau, apatxa altxatu eta kendu, eta gero, erradurea ipini behar da, norberaren moduan, zabal zapatea ipinten dan moduan, jungadan ipini eta tolestu eta sartu eta hiru lau probada egin eta, josi eta aurrera.

—Pujamanta bat, pujamanta da, haolan, a, pala antzeko bat, eta ebakitzen du, apatxa altxatu eta kendu, eta gero, perra ipini behar da, norberaren moduan, zabal zapata ipintzen den moduan, jungadan ipini eta tolestu eta sartu eta hiru lau proba egin eta, josi eta aurrera.

Erandio

—Horren anaiak ziran horreek, e, bertsotan ibiltzen ziranak, Laurotan egon zan bertsolari nahiko ona Zezilio, Zezilio Gosetxekoa, ni gaztetxua nazela, bertsoak, e, nahiko polito botaten zituana, Juan Jose

—Bai hori Juan Jose, Bilbao, ezta?

—Bai horreek anaiak, ez Urrutikoetxea, Juan Jose Urrutikoetxea

—Luisen anaia edo? Luis Urrutikoetxearen anaia edo?

—Ez horreek, e, horreek orain beharbada eukiko zituen larogeita hamar urte inguruan edo bizi baziran, Gosetxeko Zezilio zan, anaiak ziran horreek, eta Laudi, horrek Laukizekoa ba hemen basoak euki zituan, eta horrek, e, horrek Goitikokoak, zera, txakolina eukiten eban, tabernerua zan, eta ikusi dot bertako erromeri egunetan bertsoak botaten eta, eta suhina, honek dinoan hor Larrakoetxe ondokoa, horren suhina zan, eta, bota eustan egun baten, e, bertsoa harek, Barrikan, Barrikara San Blasera joan zala bera andreagaz, ez andragai bigaz, eta bigaz ezkondu zala.

—Horren anaiak ziren horiek, e, bertsotan ibiltzen zirenak, Laurotan egon zen bertsolari nahiko ona Zezilio, Zezilio Gosetxekoa, ni gaztetxoa naizela, bertsoak, e, nahiko polito botatzen zituena, Juan Jose

—Bai hori Juan Jose, Bilbao, ezta?

—Bai horiek anaiak, ez Urrutikoetxea, Juan Jose Urrutikoetxea

—Luisen anaia edo? Luis Urrutikoetxearen anaia edo?

—Ez horiek, e, horiek orain beharbada edukiko zituzten larogeita hamar urte inguruan edo bizi baziren, Gosetxeko Zezilio zen, anaiak ziren horiek, eta Laudi, horrek Laukizekoa ba hemen basoak eduki zituen, eta horrek, e, horrek Goitikokoak, zera, txakolina edukitzen zuen, tabernaria zen, eta ikusi dot bertako erromeri egunetan bertsoak botatzen eta, eta suhina, honek dioen hor Larrakoetxe ondokoa, ho-

rrren suhina zen, eta, bota zidan egun baten, e, bertsoa hark, Barrikan, Barrikara San Blasera joan zela bera andrearekin, ez andragaiarekin, eta birekin ezkondu zela.

Loiu

- Gure aita difuntuak kontetan eban txiste bat holan, harek txiste asko kontetan eban eta, e, abade batek, mutil batek, e, zera, ba beti aitari eta guztiari ba, eztok eta badok egiten eutsala baina guztiari berba ba, eta eztok eta badok eta, aitak esan eutsala, eztok eta badok, zelan da ba? eztok eta badok, ez egiteko, eta, joan eta ez, abadeari ez jakon gustetan eztok eta badok, abadeari zu esaten jako eta holan, eta joan zala egun baten, eta hasarratuta eta, eztok eta badok, esan eutsala abadeari eta, nok esan deusk hori esateko? abadeak esan eutsala semeari ba, aitak esan jeustak heuri esateko, hori da, berori da motza, ezta? hau aitak esan jeustak heuri esateko, eztok eta badok, abadeari eztok eta badok esan behar jako, ez joat gura eta ez joat, bai gura eta horretan esan bai, eta besteak, e, nok esan deusk hori esateko? abadeak erantzun eutsala, eta aitak esan jeustak heuri esateko, ulertu dozu?
- Gure aita difuntuak kontatzen zuen txiste bat holan, hark txiste asko kontatzen zuen eta, e, abade batek, mutil batek, e, zera, ba beti aitari eta guztiari ba, hika egiten ziola baina guztiari berba ba, eta hika eta, aitak esan ziola, hika, zelan da ba? hika, ez egiteko, eta, joan eta ez, abadeari ez zitzaion gustatzen hika, abadeari zu esaten zaio eta holan, eta joan zela egun baten, eta haserretuta eta, hika, esan ziola abadeari eta, nork esan dik hori esateko? abadeak esan ziola semeari ba, aitak esan zidak heuri esateko, hori da, berori da motza, ezta? hau aitak esan zidak heuri esateko, hika, abadeari hika esan behar zaio, ez diat gura eta ez diat, bai gura eta horretan esan bai, eta besteak, e, nork esan dik hori esateko? abadeak erantzun ziola, eta aitak esan zidak heuri esateko, ulertu duzu?

Sondika

- Konturatu lehenengo lehenengo ziran, laiak etorri ziran, laiak horreek, oinakaz eginda, neu be ibili naz, e? aitagaz eta amagaz, soloan laiakaz
- Holan hortz bi eta, oraleku bi, eta oinagaz ingatu holan eta
- Bueltea zohiari emon, eta gero egon ziran horreek, ba, partikea, laiariak esaten eutsen partikadunak, laiariak, horrek exatu, baia horreek egiten ebenean, zohia beti alde batera horreek botaten eben horreek ez ziran kanbiorik
- Horreri lurrari zohia esaten deutzazu?
- Zohia alde batera botaten eben beti horreek, joaten zan holan eta beti eskoara, beti eskoara, beti eskoara, baia aldatsetarako, baia horreek aldatsetarako, alde batera egiten eben lez, soloari zer egiten eutsen? ba eskina baten beti lurra kargau eta besteak kendu, ze beti alde batera beti eroaten, beti eroaten, eta zer egiten eben? koño ba aurten ba hau soloari, e, honantza makinatu behar dogu, edo toketan da egitea, laiakaz egin, aldatsean, orain, e, ba, zelaian, zelaian nahi batera nahi bestera egiten dozu, ze egiteko edo, egiten dozu, honantza tokau jako baia, egin, e, bestera bota behar joat honetara, edo honetara bota behar joat.

- Konturatu lehenengo lehenengo ziren, laiak etorri ziren, laiak horiek, oinekin egin-da, neu ere ibili naiz, e? aitarekin eta amarekin, soroan laiekin
- Holan hortz bi eta, oraleku bi, eta oinarekin ingatu holan eta
- Buelta zohiari eman, eta gero egon ziren horiek, ba, partika, laiariak esaten zioten partikadunak, laiariak, horrek exatu, baina horiek egiten zutenean, zohia beti alde batera horiek botatzen zuten horiek ez ziren kanbiorik
- Lur horri zohia esaten diozu?
- Zohia alde batera botatzen zuten beti horiek, joaten zen holan eta beti eskoira, beti eskoira, beti eskoira, baina aldatsetarako, baina horiek aldatsetarako, alde batera egiten zuten legez, soroari zer egiten zioten? ba eskina baten beti lurra kargatu eta bestea kendu, ze beti alde batera beti eroaten, beti eroaten, eta zer egiten zuten? koño ba aurten ba soro hau, e, honantz makinatu behar dugu, edo tokatzen da egi-tea, laiekin egin, aldatsean, orain, e, ba, zelaian, zelaian nahi batera nahi bestera egiten duzu, ze egiteko edo, egiten duzu, honantz tokatu zaio baina, egin, e, bestera bota behar diat honetara, edo honetara bota behar diat.

Derio

- Atzeko palua eta aurrekoa, bi izaten dira, bi izaten dira, atzean eta aurrean egoten dira, atzerantza egin ez daian musturrean, lar atzerantza egin ez daian, ha palua edo sartu eta aurrean be bai, zotza edo, aurreko zotza, eta atzeko zotza
- Eta frenetakoari?
- Frenetako hori zera, freno emoteko palua izaten da
- Galgea edo?
- Galgea, galgea, bai galgea, baina galgea ba palu bategaz lehen egiten zan, orain beste klase batera be egiten dira, klase askotara frenetan dira eta
- Antxinako gurdirik ja ez da egongo, ez?
- Badago be gurean gurdia eta oraindinokarren, txirrinkak be badagoz, ba arraiobakoa bestea apurtu egin zan eta, erosleak etorten dira baina ez deutsee gura izaten saldu ze lastimea emoten deutsee saltzeak lastimea dala eta
- Hori polita da
- Baia atxina-atxinakoa baino barritxuagoa da gurea, batzuk atxinagokoak dagoz holan, e
- Atzeko makila eta aurrekoa, bi izaten dira, bi izaten dira, atzean eta aurrean egoten dira, atzerantz egin ez dezan musturrean, lar atzerantz egin ez dezan, makila hura edo sartu eta aurrean ere bai, zotza edo, aurreko zotza, eta atzeko zotza
- Eta frenatekoari?
- Frenateko hori zera, freno emateko makila izaten da

—Galga edo?

—Galga, galga, bai galga, baina galga ba makila batekin lehen egiten zen, orain beste klase batera ere egiten dira, klase askotara frenatzen dira eta

—Antzinako gurdirik ja ez da egongo, ez?

—Badago ere gurean gurdia eta oraindinokarren, txirrinkak ere badaude, ba arraiobakoa bestea apurtu egin zen eta, erosleak etorten dira baina ez diete gura izaten saldu ze lastima ematen die saltzeak lastima dela eta

—Hori polita da

—Baina antzina-antzinakoa baino berritxoagoa da gurea, batzuk antzinagokoak daude holan, e

Zamudio

—Holangoa ezagututa nago ni ha baino lehenagokoa, zertu, bajatu herrira, eta joan etxera, gorantza ni ere goikoa naz, eta hiru mutil joan, eta bat desagertu egin jaken, nondik ete da?, mutilok besteak larri!, nora sartu da hori eta? nora sartu da hori? eta, nok jakin ez eta haretxaren ganean agertu jaken, beno gu bagoaz e? ze nekatuta gagoz begira hemen eta, zetan igon dozu horra ba? eta, ez dakit, sorginak ekarri nabe hona, indar handia euki dabe e? besteak esaten eutsien, ba hor lotzen zara, ez naizue itzi hemen, ez naizue itzi, eta, ez gu bagoaz, eta alde egin eutsien seguru besteak, eta gero atzean joan jaken, basaz hondatuta, orduan basarik ez zan ikusten eta, basartean, sorginak erabili nabe, besteak ez eben jakin egia bada ez bada, eta gero ibili ezin, ibili ezin, eta besteak astoan kargau eta etxera.

—Holakoa ezagututa nago ni hura baino lehenagokoa, zertu, baxatu herrira, eta joan etxera, gorantz ni ere goikoa naiz, eta hiru mutil joan, eta bat desagertu egin zitzaien, nondik ete da? mutilok besteak larri! nora sartu da hori eta? nora sartu da hori? eta, nork jakin ez eta, haritzaren ganean agertu zitzaien, beno gu bagoaz e? ze nekatuta gagoz begira hemen eta, zertan igan duzu horra ba?, eta, ez dakit, sorginek ekarri naute hona, indar handia eduki dute, besteak esaten zioten, ba hor geratzen zara, ez nazazue utz hemen, ez nazazue utz, eta, ez gu bagoaz, eta alde egin zioten antza besteak, eta gero atzean joan zitzaien, basaz hondatuta, orduan basarik ez zen ikusten eta, basartean, sorginek erabili naute, besteak ez zuten jakin egia den edo ez den, eta gero ibili ezin, ibili ezin, eta besteak astoan kargatu eta etxera.

Lezama

—Treberea, ba parrilea, eta tenazak, hauspoa be bai (...) buzkantzak lehengo egunean, e, lehenago hemen egon zan, e, zelan esaten jako han buzkantzak, eskegita, laratzua han dago, eskuz eginekoa, katea eta guzti

—Eta ez zenduen usetan be holako txingar bat kafetan sartzeko?

—Hemen holakorik ez zan usau, baina ikustekoa daukat, e? badaukat, e, ilentia

—Ilentia da?

—Bai, kafeari sartzen jako eta borrea bajatu dakion, ra! tanazakaz sartu, bru-bru! ilentia, ilentia.

—Trebera, ba parrila, eta tenazak, hauspoa ere bai (...) buzkantzak lehengo egunean, e, lehenago hemen egon zen, e, zelan esaten zaio han buzkantzak, eskegita, lara-tzua han dago, eskuz eginekoa, katea eta guzti

—Eta ez zenuten erabiltzen ere holako txingar bat kafetan sartzeko?

—Hemen holakorik ez zen erabili, baina ikustekoa daukat, e? badaukat, e, ilentia

—Ilentia da?

—Bai, kafeari sartzen zaio eta borra bajatu dakion, ra! tanazakaz sartu, bru-bru! ilentia, ilentia.

Larrabetzu

—Holako kontuak, nire amaxeak kontetan zituan

—Ortusantutik ondotik be bildurra

—Ama! esaten neutsan, amama, ez eizu kontau, eta jakina bildurra sartu egin egiten euskuen guri, e? nik pentsetan dot, e

—Bego orain gauza bat esaten noatzu zu beharbada ez zara akordauko

—Ea ba!

—Txomin ez dakizu hau, Gangoitikoari urten eutsala zabaldu zan, zueneko amaren osabeak, ez zara akordetan?

—Fermin difuntuak?

—Bai zabalean ibili zan hamen

—Bai oraintxe esango deutsut gauza bat, oraintxe akordau arazoten deustazu, ni gazetxua

—Bai

—Eta gure aita izan da holako bizia, ezta Fermina? bizia, eta odoltsua eta holan, eta egoten zan gizon bat hor goian, hil zan, ba

—Sarri berak kontau eban gero Bego

—Beitu eizu esaten eutsan nire aitari, ezetz, Bizkargi badakizu non dagoan?

—Bai

—Ezetz koiu eta joan hara Bizkargira, hantxe urtengo eutsala hilda egon zan batek, urteten dauala eta urtengo deutsala eta, eta esaten eutsan geure aitak, hi kokotuta hago, total kokotuta hago, kokotuta? posturea, eta hiru lau ardautxu eukiko zituan beharbada gure aitak, ez dakit, edo ez ez dakit eukiko bazituan, ze, ba, egiten badozu koiu farola, farola badakizu?

—Bai

—Farola koiu eta igon Bizkargira, gaueko hamabiak, nire amak disgustua, e? eta hantxe iziotu honenbeste postorea, eta nire aitak ba, hori da kontua, hori da guzurra, eta hori da, baina hainbeste, badakizu tabernan, ba, holako tabernan ba zera, koiu geurea be etxera etorri, kandila koiu, erdian kandilea dala sua iziotuta eta eskegi eban Bizkargiren puntan, ikusteko moduan, eta etorri zan, taka-taka, taka-taka, eta dino baten bat joan be egin zala, ikaratuteko bera, baina gure aita izan zan! ez zan ikaratuten! zera etorten bazan be ez zan ikaratuten, eta gero pagau egin eutsan, eta gero hasarratu egin jakon, gero ez eutsan berbarik egiten gehiago

—Baina ez eutsan berari urten ba?

—Berari urteten deutsalara eta, berari urteten deutsalara

—Berak zabalduen eban berari harexek gizonak urteten deutsalara

—Eta izan zan hortxe zu egon zinana, Olatxun hori errotea? hangoxe semea, harexek urteten deutsalara, izara zuri bategaz, ba beharbada lehenago badakizu, beharbada edozein, auzokoren bat be jantzi izara bat eta urten, ze apur bat, e

—Bildurra emotearren beharbada

—Horreek entzuten genduzan, halandaze nik abemariak ailegetan ziranean, eta lo be nik ahizteagaz egiten neban ezkondu zanera arte, bildurra! ohearen azpira begituta.

—Holako kontuak, nire amaxeak kontatzen zituen

—Ortusantutik ondolik ere bildurra

—Ama! esaten nion, amama, ez ezazu kontatu, eta jakina bildurra sartu egin egiten ziguten guri, e? nik pentsatzen dut, e

—Bego orain gauza bat esatera noakizu zu beharbada ez zara gomutatuko

—Ea ba!

—Txomin ez dakizu hau, Gangoitikoari irten ziola zabaldu zen, zueneko amaren osabak, ez zara gomutatzen?

—Fermin difuntuak?

—Bai zabalean ibili zen hamen

—Bai oraintxe esango dizut gauza bat, oraintxe gomutarazten didazu, ni gaztetxoa

—Bai

—Eta gure aita izan da holako bizia, ezta Fermina? bizia, eta odoltsua eta holan, eta egoten zen gizon bat hor goian, hil zen, ba

—Sarri berak kontatu zuen gero Bego

—Begiratu ezazu esaten zion nire aitari, ezetz, Bizkargi badakizu non dagoen?

—Bai

—Ezetz hartu eta joan hara Bizkargira, hantxe irtengo ziola hilda egon zen batek, irteten duela eta irtengo diola eta, eta esaten zion geure aitak, hi kokotuta hago, guztiz kokotuta hago, kokotuta? posturea, eta hiru lau ardautxo edukiko zituen beharbada gure aitak, ez dakit, edo ez ez dakit edukiko bazituen, ze, ba, egiten baduzu hartu farola, farola badakizu?

—Bai

—Farola hartu eta igon Bizkargira, gaueko hamabiak, nire amak disgustua, e? eta hantxe iziotu honenbeste postura, eta nire aitak ba, hori da kontua, hori da gezurra, eta hori da, baina hainbeste, badakizu tabernan, ba, holako tabernan ba zera, hartu geurea ere etxera etorri, kandila hartu, erdian kandila dela sua iziotuta eta eskegi zuen Bizkargiren puntan, ikusteko moduan, eta etorri zen, taka-taka, taka-taka, eta dio baten bat joan ere egin zela, ikaratzeko bera, baina gure aita izan zen! ez zen ikaratzeko! zera etortzen bazen ere ez zen ikaratzeko, eta gero ordaindu egin zion, eta gero haserretu egin zitzaion, gero ez zion barbarik egiten gehiago

—Baina ez zion berari irten ba?

—Berari irteten diola eta, berari irteten diola

—Berak zabaltzen zuen berari gizon harexek irteten diola

—Eta izan zen hortxe zu egon zinena, Olatxun hori errota? hangoxe semea, harexek irteten diola, izara zuri batekin, ba beharbada lehenago badakizu, beharbada edozein, auzokoren bat ere jantzi izara bat eta irten, ze apur bat, e

—Bildurra emotearren beharbada

—Horiek entzuten genituen, halandaze nik abemariak ailegatzen zirenean, eta lo ere nik ahizparekin egiten nuen ezkondu zenera arte, bildurra! ohearen azpira begirata.

URIBEKOSTA

Getxo

—Eta zer denbora eskegita?

—Beno eskegi, guk gitxitan eukiten dogu ze gurea hiltzen dauana beti dator prisaz, baina da onena da eskegitea, goizean hil, eta arratsaldean, arratsaldean, ba txikertu txarria, e? hori da beti egin dana, beti egin dana, gurean ba etortzen da eta, Begoña ba prisa daukat eta ez dakit zer eta, eta beno beti, zera deitu neutsan lehengoan telefonotik, beno ez etorri hainbeste prisagaz, e? ze beti, bai Begoña baina, da pesetero bat itzela, gixajoa da peseteroa beno! baina dago egun, urte guztian dago, ilusinoagaz hona etorteko, ez dakit hortik emongo badeutsie saria baina, Begoñak emoten deutsan lez sari ona beti, eta gure aitagaz lagun handia izaten zan be, ze gure aita izaten zan, a, depositarioa deitzen jakon, erremandadea, behiak, oraingo lez ez baina lehen, ba, alkarte bat izaten zan eta, hiltzen zanean bat, behi bat, ez da

oraingo lez, orain badaroatsue, ez dakit nora eta, igual onena emoten deuntsue, baina lehen ez, lehen ez zan egiten, eta gero danak alkartearen artean danak ha behia pagetan zan, eta aita, horretan, urte asko egin eban, eta hori hiltzen, etorten dana mutila, ba da laguna itzela hemengoa, eta esan neutsan ez zaitetz etorri hainbeste prisaz, bai Begoña baina beste leku, bai beste leku batera badoa

—Eta zer denbora eskegita?

—Beno eskegi, guk gutxitan edukitzen dugu ze gurea hiltzen duena beti dator prisaz, baina da onena da eskegitzea, goizean hil, eta arratsaldean, arratsaldean, ba txiker-tu txerria, e? hori da beti egin dena, beti egin dena, gurean ba etortzen da eta, Begoña ba prisa daukat eta ez dakit zer eta, eta beno beti, zera deitu nion lehengoan telefonotik, beno ez etorri hainbeste prisagaz, e? ze beti, bai Begoña baina, da diruzale bat itzela, gixajoa da diruzalea beno! baina dago egun, urte guztian dago, ilusioarekin hona etortzeko, ez dakit hortik emango badiote saria baina, Begoñak ematen dion legez sari ona beti, eta gure aitarekin lagun handia izaten zen ere, ze gure aita izaten zen, a, depositarioa deitzen zitzaion, erremandada, behiak, oraingo legez ez baina lehen, ba, elkarte bat izaten zen eta, hiltzen zenean bat, behi bat, ez da oraingo legez, orain badaroakizue, ez dakit nora eta, igual onena ematen dizute, baina lehen ez, lehen ez zen egiten, eta gero denak elkartearen artean denak behi hura ordaintzen zen, eta aita, horretan, urte asko egin zuen, eta hori hiltzen, etortzen dena mutila, ba da laguna itzela hemengoa, eta esan nion ez zaitetz etorri hainbeste prisaz, bai Begoña baina beste leku, bai beste leku batera badoa

Berango

—Gure amak hori esaten dau askotan, maketoak, honek zelan ez daki euskera? honek mutilak, eze hamaika izan gara gu, ai maketoak sartu ziran etxera baina ez da hori, e, kasua ze berak ez, orduan izan zan sasoi, ze gerrakoa da, Sollube bonbardeaten egon ziranean jaio zan nire nebea, eta Gatikako Butroitik Kimerak, dago halan etxe bat, erdia, ba hangoak egon dira hemen gure etxean, errefuxiatuta eta orain bizi dira, hango han neskatoa

—Kimerak badakit zein dan

—Kimerak

—Urdorantza goazela, ezta?

—Eta gero be zelan dagoan beste tabernatxu bat eskinan, aurreratxuago

—Bai

—Taberna kamino eskinakoa, hango neskatoa egon da hemen, gugaz, hemen errefuxiatuta gure aitak koiuta, ze egon zan etxea beterik, etorri ziran Sollube bonbardeaten egon ziranean - bai - eta urte bete eta erdi, eta gero amak esan eban ze, gure aitak hau mutila gobernau ondo, hau seina, eze da gerrakoa, eta halantxe egiten dau gure amak, e? beti esaten deuntsat, gizonak esan eutsuna ondo beteten dozu, ze ez dauka, ezin esan dozu bera horregaitik semeagaitik ezer, ez dauka faltarik, gero esan eban ze gura dot bizi sei hilabete gerrea akabetan danean, noren fabor lotzen dan.

—Gure amak hori esaten du askotan, maketoak, honek zelan ez daki euskaraz? mutil honek, ezen hamaika izan gara gu, ai maketoak sartu ziren etxera baina ez da hori, e, kasua ze berak ez, orduan izan zen sasoia, ze gerrakoa da, Sollube bonbardeatzen egon zirenean jaio zen nire neba, eta Gatikako Butroitik Kimerak, dago halan etxe bat, erdia, ba hangoak egon dira hemen gure etxean, errefuxiatuta eta orain bizi dira, hango han neskatoa

—Kimera badakit zein den

—Kimerak

—Urondorantz goazela, ezta?

—Eta gero ere zelan dagoen beste tabernatxo bat eskinan, aurreratxoago

—Bai

—Taberna kamino eskinakoa, hango neskatoa egon da hemen, gugaz, hemen errefuxiatuta gure aitak hartuta, ze egon zen etxea beterik, etorri ziren Sollube bonbardeatzen egon zirenean - bai - eta urte bete eta erdi, eta gero amak esan zuen ze, gure aitak mutil hau gobernatu ondo, sein hau, ezen da gerrakoa, eta halantxe egiten du gure amak, e? beti esaten diot, gizonak esan zizuna ondo betetzen duzu, ze ez dauka, ezin esan duzu bera seme horregatik ezer, ez dauka faltarik, gero esan zuen ze gura dut bizi sei hilabete gerra amaitzen denean, noren fabor lotzen den.

Sopela

—Ba joaten ginan, soloan ibiltzen ginan ba arto jorrea edo, patata jorrea edo zer dan, egoten ginan hamabietara artean edo egoten ginan, eta gero, ba hemengo auzokiak eta Luisa gurea eta kuadrilatxu batzen ginan, ze ordutan joan? bainu hartzen horra hareatarra, eta, joaten ginan baina haonainoko ba zerakaz, gonakaz, inok ikusi ez daian, eta hatxaraino izara handi bat eroaten genduan, ganera, izara handi bat, eta bi egoten ziran, hari izareari, a, eusten, ba inok ikusi ez daian mudateko atara eizu kontua, ha batea ipinteko, beno ba akabeko dogu, eta ni izaten nintzan, ba drogea izaten nintzan neu bere ba Bene, barre egiteko ez dakit zer egingo neban eta, horreek Gregoria Sainderekoa eta Maria, eta Luisa gurea eta lau edo bost neska, eta holako baten mutilak, a, lau edo mutil hatxatik, ezikusia egiten deuskuela guri, baina, egin eben, a, inuzente burua eta joan ziran, hatx okoiluren batera segun trazea, eta nik hareek buruak ikusi nebazanean zer egin neban? hori izarea, kanpora bota

—Apropos?

—Neskak fastidietarren, lagunak fastidietarren, eta horreek okerreriak, enei! gero handik itsasotik etorri eta hor goiko soloetan, (ezpata) edo jotea dantzan batek kantau eta besteak jotzen, atara eizu kontua.

—Ba joaten ginen, soroan ibiltzen ginen ba arto jorra edo, patata jorra edo zer den, egoten ginen hamabietara artean edo egoten ginen, eta gero, ba hemengo auzokiak eta Luisa gurea eta kuadrilatxu batzen ginen, ze ordutan joan? bainu hartzen horra hareatarra, eta, joaten ginen baina haonainoko ba zerekin, gonekin, inork ikusi

ez dezan, eta haitzeraino izara handi bat eroaten genuen, gainera, izara handi bat, eta bi egoten ziren, izara hari, a, eusten, ba inork ikusi ez dezan mudatzeko atera ezazu kontua, bata hura ipintzeko, beno ba amaituko dugu, eta ni izaten nintzen, ba droga izaten nintzen neu ere ba Bene, barre egiteko ez dakit zer egingo nuen eta, horiek Gregoria Sainderekoa eta Maria, eta Luisa gurea eta lau edo bost neska, eta holako baten mutilak, a, lau edo mutil haitzetik, ezikusia egiten digutela guri, baina, egin zuten, a, inuzente burua eta joan ziren, haitz okoiluren batera antza, eta nik haiek buruak ikusi nituenean zer egin nuen? izara hori, kanpora bota

—Apropos?

—Neskak fastidiatzearren, lagunak fastidiatzearren, eta okerreria horiek, enei! gero handik itsasotik etorri eta hor goiko soroetan, (ezpata) edo jota dantzan batek kantatu eta besteak jotzen, atera ezazu kontua.

Barrika

—Txarrikumak eta?

—Txarrikumatxua gurean, ekarten zan, gure aitak hiltzen eban txarria beti, eta hemen danak esaten, umeak ez ei deutsee txingorrik jan gura ze, erosten merkeago izaten zan lez horretarango zuri-zuria, koipe hutsa izaten zan, eta gero umeak ezetz, eta gure aitak esaten eutsen beti, familiakoak izango bazinie lez emoten deusuet kontseilua, neuk erosten dodan lakoa zergaitik ez dozue erosten? ze horrek dauka, urdaia daukala, dauka ba pentsetako, gurean pentsetan eben danak, pernilak dirala, behin bere dino (...) zenbat txarri hil dozue, hamar?

—Txarrikumeak eta?

—Txarrikumatxoa gurean, ekartzen zen, gure aitak hiltzen zuen txerria beti, eta hemen denak esaten, umeek ez ei diete txingorrik jan gura ze, erosten merkeago izaten zen legez horretariko zuri-zuria, koipe hutsa izaten zen, eta gero umeak ezetz, eta gure aitak esaten zien beti, familiakoak izango bazinate bezala ematen dizuet kontseilua, neuk erosten dudan lakoa zergatik ez duzue erosten? ze horrek dauka, urdaia daukala, dauka ba pentsatzeko, gurean pentsatzen zuten denek, pernilak dirrela, behin ere dio (...) zenbat txarri hil dituzue, hamar?

Urduliz

—Artoa heltzen dan sasoi izaten da iraila, akabuan

—Piperrak, madariak, sagarrak

—Eta horreek egiten dozuz, baina egiten dozu ba, labasua egiten dozu artoak, ezta? ba batu, soloan ba zarankadak, ezta? eta gero gauean edo zer egiten ziran? zuritu

—Bai

—Beharbada ba partidea eta gero kamarara, eta gero egun batzuetan han kamaran zabal-zabalean eta gero labasua egiten zan, ba edo, erramakaz basoetakoak, edo pinu erramakaz, edo sasia, edo labasua egiteko preparauta egoten zan

—Otabarra

—Eta dana erreten zan holako jenero garbia, eta botaten zan barrura iraurkeagaz, iraurkea da

—Bai, bai

—Ba holan palu bat eta halan punta bi, eta gero egoten zan, ba egiten zan, ba harri bat egoten zan, gure labeak, gureak eukiten eban sikan be kanpoan, ze izaten zan ha zurituten zanean ja egoten zan berotuta

—Ja markea koiuta ja.

—Artoa heltzen den sasoia izaten da iraila, amaieran

—Piperrak, madariak, sagarrak

—Eta horiek egiten dituzu, baina egiten duzu ba, labasua egiten duzu artoak, ezta? ba batu, soroan ba zarankadak, ezta? eta gero gauean edo zer egiten ziren? zuritu

—Bai

—Beharbada ba partida eta gero kamarara, eta gero egun batzuetan han kamaran zabal-zabalean eta gero labasua egiten zen, ba edo, adarrakaz basoetakoak, edo pinu adarrakaz, edo sasia, edo labasua egiteko preparatuta egoten zen

—Otabarra

—Eta dena erretzen zen holako jenero garbia, eta botatzen zen barrura iraurkearekin, iraurkea da

—Bai, bai

—Ba holan makila bat eta halan punta bi, eta gero egoten zen, ba egiten zen, ba harri bat egoten zen, gure labeak, gureak edukitzen zuen behintzat ere kanpoan, ze izaten zen hura zuritzen zanean ja egoten zen berotuta

—Ja marka hartuta ja.

Plentzia

—Orduan egon zan gerratean, egin eben zubi bat, zubia egin eben, ba horreetarikoak, zerakaz, bidoiakaz, marea altxetan zanean gorantza, gora egiten eban ba zubiak eta bajetan zanean ba beherantza egiten eban, gerratean eginekoa edo zera, gero belu egin eben

—Urte-barri egunean zuek urteten zenduen txikerretan agilando koiten?

—Bai, bai, urte barri txarri belarri

—Eta zelan da letrea horrena?

—Urte-barri txarri belarri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri ezpabere txarri belarri

—Eta zer emoten eutsuen?

—Ba orduan, a, txorizoak eta emoten ziran, intxaurrak eta gaztainak eta, bai gero merienda egiten zan

—Eta Santa Agedan?

—Santa Ageda bere bai, Santa Agedan joaten zan jentea Santa Agedan, jente asko etortzen zan Santa Ageda batzen.

—Orduan egon zen gerratean, egin zuten zubi bat, zubia egin zuten, ba horietarikoa, zerekin, bidoiekin, marea altxatzen zenean gorantz, gora egiten zuen ba zubiak eta baxatzen zenean ba beherantz egiten zuen, gerratean eginekoa edo zera, gero belu egin zuten

—Urte-barri egunean zuek irteten zenuten txikerretan agilando hartzen?

—Bai, bai, urte barri txarri belarri

—Eta zelan da letra horrena?

—Urte-barri txarri belarri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri ezpabere txarri belarri

—Eta zer ematen zizueten?

—Ba orduan, a, txorizoak eta ematen ziren, intxaurrak eta gaztainak eta, bai gero askaria egiten zen

—Eta Santa Agedan?

—Santa Ageda ere bai, Santa Agedan joaten zen jendea Santa Agedan, jende asko etortzen zen Santa Ageda batzen.

Gorliz

—Bat baino ez dago, gero dira lemoiztarrak, eta horreek datozenak hemendik, ze orain be gure etxe ondoan dago bat, artzaina, baina bera lemoiztarra da, han dauka etxea, gure etxe ondoan dauka, haor, a, ze ni hor auzotegian bizi naz Sante auzotegian bizi naz ni, hor horko auzotegian, eta hor dauka, bera bakarrik, gero han fagoetan edo han mendian dago beste bat ha hemengoa da, ha badakit, hemengoa da

—Bat baino ez dago, gero dira lemoiztarrak, eta horiek datozenak hemendik, ze orain ere gure etxe ondoan dago bat, artzaina, baina bera lemoiztarra da, han dauka etxea, gure etxe ondoan dauka, haor, a, ze ni hor auzotegian bizi naiz Sante auzotegian bizi naiz ni, hor horko auzotegian, eta hor dauka, bera bakarrik, gero han pagoetan edo han mendian dago beste bat hura hemengoa da, hura badakit, hemengoa da

Lemoiz

—Izan ziran neskatila bi, hor neskatila bat egon zan tabernan eta uzaba eta joan ziran (...) zerera, euron herrira edo aste bat pasetan, eta lagun bat edo euki eban beragaz lo egiten gauean, eta gero mutilak etorri ziran, santomasak izan eta Armintzatic Le-

moizerantza, eta ikusi eben bentanan argia, argia, santomasetan argia, eta joan ziran bentanara, bentanara, Jatabekoak izan ziran, eta Jatabekoak horreek ekanduak, e, beti, igan eben bentanara topau egin eben eskilarea, handia behar zan eta igan eben eta, holan izan zan gero, eta gero hori egin zan epaitegira, mutilak eroan eban uzabak, a, epaitegira

—Baina zelan izan zan?

—Eta gero uzaba hor ibili ziran zerak mutilak joan Laukizera, eta bertsoak atara neskatuari, bai eta ja hasten zan

“kantau gura geuskio bertso bat edo bi,
Santo Tomas bigarren gaueko lanari,
hiru lehengusu ginan bidean etorri,
geure pasadizuak kontetan alkarri”

—Gero asko izan zan eta ez dakit gero, baia gero

“(…) argia
lo gero argi bat bentanara agertu zanean,
gaueko hamabiak inguru ziran,
eta akordau jakun,
etorri etorri egoan gauza bat gogora,
igan behar geunkela goiko bentanara,
eta eskilarea behar zan gorputz handikoa,
txikerra ez zan gauza labur eginekoa,
eta baita topau genduan behar zan modukoa,
eta igan genduan bentanara,
igan, eta hasi ginan bentanea egoten
Maria Urtubairi gedarrak egiten,
gero, geure uste bagarik baita bere euken,
Maria Eskondrillas ohea lagun egiten
eta etorri ziran biak behingo baten
beste askori sarri egineko moduan”

—Izan ziren neskatila bi, hor neskatila bat egon zen tabernan eta ugazaba eta joan ziren (...) zerera, euron herrira edo aste bat pasatzen, eta lagun bat edo eduki zuen beragaz lo egiten gauean, eta gero mutilak etorri ziren, santomasak izan eta Arminztatik Lemoizerantz, eta ikusi zuten leihuan argia, argia, santomasetan argia, eta joan ziren leihora, leihora, Jatabekoak izan ziren, eta Jatabekoak horiek ekanduak, e, beti, igan zuten leihora topatu egin zuten eskilara, handia behar zen eta igan zuten eta, holan izan zen gero, eta gero hori egin zen epaitegira, mutilak eroan zituen ugazabak, a, epaitegira

—Baina zelan izan zen?

—Eta gero ugazaba hor ibili ziren zerak mutilak joan Laukizera, eta bertsoak atera neskatuari, bai eta ja hasten zan

“kantau gura geuskio bertso bat edo bi,
Santo Tomas bigarren gaueko lanari,
hiru lehengusu ginan bidean etorri,
geure pasadizuak kontetan alkarri”

—Gero asko izan zen eta ez dakit gero, baina gero

“(…) argia
lo gero argi bat bentanara agertu zanean,
gaueko hamabiak inguru ziran,
eta akordau jakun,
etorri etorri egoan gauza bat gogora,
igan behar geunkela goiko bentanara,
eta eskilarea behar zan gorputz handikoa,
txikerra ez zan gauza labur eginekoa,
eta baita topau genduan behar zan modukoa,
eta igan genduan bentanara,
igan, eta hasi ginan bentanea egoten
Maria Urtubairi gedarrak egiten,
gero, geure uste bagarik baita bere euken,
Maria Eskondrillas ohea lagun egiten
eta etorri ziran biak behingo baten
beste askori sarri egineko moduan”

2.3. LEXIKOA

Atal honetan CDaren testu eta esaldi erduetan agertzen diren eta geroago landu gura diren berbak emango ditugu. Gogoan hartzeko oharrak:

1. CDko testuetan erabili arren, hiztegiño honetara ez dira ekarri *3000 Hiztegian* eta badaudenak.
2. Ikus jarri zaie, bizkaieratik bizkaierarako terminoei, bitzuak bizkaierako izanik erabiltzailea euskara batuaren antzekoenera bidaliz.
3. Beltzean agertzen diren berbak edo sintagmak bizkaierarako gordetzeko dira. Letra etzanez agertzen direnak euskara baturako dira. Bere horretan laga diren berbak -ez beltzez, ez etzanez- bai bizkaierarako zein euskara baturako dira.
4. Arteragokoa erabakitzeko, irakaslearen liburukian azaltzen ditugun iritziei egin diegu jaramon.

A

Abe: olo (*Avena sativa*): gramineoen familiako laboretariko bat: oiloari oloa, astoari lastoa

Abemariak/abemarietakoak: Angelusaren deia eta ordua, batez bere arratsaldekoa, iluntzen **hasi ezkerokoa**

Adi-adi: begira-begira.

Afariketan: afaltzen

Ahizta: *ahizpa*

Aitaita: *aitona*: aitajaun: aitatxi

Aldea-etxe: baserri

Alkarte: *elkarte*

Amuts: *kamuts*

Andra: andre

Andragai: andregai

Antxina: *antzina*

Apaborro: **Txarriaren** zilbegia -puxikaren muturra- hil **barritan** kendu eta gatz bage eskegita usteldu barik irauten **dauana**, batez bere hedak eta koipeztatzeko erabilia

Arazo: *arazi*: “Ura irakinarazo dabe”.

Ardau: *ardo*

Armozu: gosari

Artzakada: bahekada

Artza: bahe

Atrapatu: harrapatu, atzeman

B

Bagil: ekain

Bakotx: *bakoitz*

Banaka: 1.- urria: bakana: bere antzekorik oso **gitxi** baino ez **dauanaz**, **gitxi** da goenaz edo nekez topatzen **danaz** esaten da. 2.- banan: bakarka: berazka: aldian bat soilik: banaka sartu **zaitze**

Barausi: barautsi: goizean baraua hautsi edo gosaria hartu

Bardin: *berdin*

Barik: gabe

Bariku: ostiral

Barri: *berri*

Barriro: *berriro*

Barriz: *berriz*

Bateatu: bataiatu

Bedar: *belar*

Bedarleku: larre, landa

Begitu: begiratu

Bildur: *beldur*

Bildurtu: *beldurtu*

Bueltaka: biraka

Burdi ikus gurdi

Burkada ikus gurkada

Burzotz ikus gurzotz

Buztarri: *uztarri*

Buztartu: *uztartu*

D

Domeka: igande

Doniane ikus Donibane

E

Ebagi: *ebaki*

Edur: *elur*

Eleiza: *eliza*

Eralgi: dirua edo ondasunak xahutu

Ernamin: *ernamuin*, ernakatz, kimu

Erradura: ferra

Errama: adar (zuhaitz)

Erratura ikus erretura

Erretura: soloan **bedarrak** eta zaborrak
piloetan jartzeari eta erretzeari eta **hareen**
errautsa ongarri modura lurrean zabaltze-
ari deitzen **jako** erretura (erreturak egin)

Erremendade: ermandade

Erreztasun ikus erraztasun

Erropa: *arropa*

Eskegi: *eseki*

Eskilara: eskailera

Eskoara: eskuinera

Eskutak: azao, sorta: gari-eskutak

Ete: *ote*

Euki: eduki

Exatu: exagaz egin ildoa

Exa: hortz bakarreko goldea

Eztabere: *ezpere*

F

Fago: *pago*

Fraile: *fraide*

G

Gane: *gain*

Ganean: *gainean*

Ganera: *gainera*

Gantzagi: gantz

Garaiteko: gainerako

Garatxa: *garatxo*

Garaun: burmuin, zerebru

Gariburu: galburu

Garri: *gerri*

Gedar ikus kedar

Ginbalet: zuloak bira-biraka egiteko gai-
lu txikia

Gitxi: *gutxi*

Gitxiago: *gutxiago*

Gurdi: orga

Guzur: *gezur*

H

Halandaze: beraz

Haretx: *haritz Quercus*

Hatx: *haitz*

Hausi ikus hautsi

I

Igitai: landareak ebakitzeko balio **dauan**
aho makurreko tresna kirtenduna

Igon: *igo*

Ilusino: ilusio

Imitazino: imitazio

Ingatu: lur arola trinkotu

Iretargi : ilargi

Iruntza : ihintz

Irurka: egurrezko urkulua, hortz luzeak
dituana

Isuski: erratza, isatsa: **Labarako** erratza,
txilarrez egindakoa

Isiotu: argia edo sua piztu

J

Jabon ikus jagon

Jagi : *Jaiki*

Jungada: ingude

K

Kainabera: *kanabera*

Kakarraldo: *kakalardo*

Kakasi: kakagura

Kamara: ganbera

Kanporamartxo: basatoste: sasimartxo: inauterien arteko domeka, harateguna, basora taldean joanda, tortilla, txorizoa, txokolatea eta janez ospatzen **dana**

Karu: garesti

Keriza: *gerezia*

Kito: zeozer beste zerik barik han amaitzen **dala** adierazteko esamoldea: etxera joango **naz** eta kito!

Kodaina: sega

Koiu: harrapatu

Kokotu: lelotu, tenteldu

Kolko: jantziaren eta bularraren arteko hutsunea: "hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru"

Kopu ikus kopau: mokadu, ahamen

Korridu: korritu

Kortatxur: *kortaitzur*: hortz punta zorrotzak **dituan** sardea: kortatxurraren hortzak zorrotzak dira eta satsatxurrarenak ia biribilak

Kuntzurrun: giltzurrun

Kurtze: gurutze

L

Laba : labe

Labasu: labesu

Labrantza: laborantza

Laratzu: laratz

Lasatu: lasaitu

Lehengoan: denboraz arteragoan: lehen-goan esana orain bere errepikatu egiten **deutsut**

Lepazur: 1.- garondoa. 2.- bizkarrezur

M

Maldezino: maldizio, madarikazio, birao

Motz: 1.- itsusi. 2.- labur. 3.- kamuts

Muna: muino

N

Nahastean: nahasian

Nardei: 1.- Gurtedan jartzen **diran** kateen muturra, gurzotza sartzeko zuloak **dituana** 2.-zuhaitzak narrazka ekartzeko erabiltzen **dan** haga

Narru: *larru*

Neskatxi: neskatxa, neskato, neskatila

Nobio-nobiak: ezkongaiak

O

Okerreria ikus okerkeria

Ondinokarren ikus oraindainokarren: oraindik

Oraindino ikus oraindaino

Oraindinokarren: oraindik

Oraleku: helduleku, euskarri

Orkatz: 1.- hortz biko urkulua. 2.- orei-
nen familiakoa **dan** Europako lau oineko
hausnartzailea

Ortusantu: kanposantu, hilerri

Ostera bere: berriz ere

Ostetik: atzetik

Otabar: ota zaborrak: otabarra lango ogi
latza

P

Parau: jarri: gaztagin guztien aurrean
paratu **zan**.

Parean: batera: parean heldu **ziran**

Parra: **bardintasuna** erakusteko berba:
gaurkoan parra egin **dabe** irabazietan

Parrastada: gatza sutara botatzean entzu-
ten **dan** hotsa (onomatopeiazko berba)

Partida: kopuru handia: ehiztariak txori
asko, **partidea** ekarri **dau**

Partika: gurdiaren bizkarra, erdiko haga,
alboetako aldamenakaz garraiorako kaxa
osotzen **dauana**

Pentsuorde: abereei pentsuaren orde
emoten jaken jatekoa

Pernil: urdaiazpiko

Pujamanta: partidera: zaldi nahiz behien
apatxa jateko, murrizteko labana, altzai-
ruzkoa, ertz makurra eta zorrotza **dauana**

S

Sakeleria ikus saskeleria: sastarreria, sa-
tsukeria

Sartukera: sarrera

Sikeran: behintzat, **gitxienez**

Sinestu: sinetsi

Solo: *soro*

Solomilo: azpizun

Sorki: 1.-buruan suila eta eroateko jar-
tzen **dan** zapia. 2.- suetean erabiltzen
dan oihala

Sudurtzilo: sudurzulo

Sugoi ikus sugo

Suhin: *suhi*

T

Taka-taka: 1.- oinez ibiltzea adierazten
dauan berba: taka-taka joan **zan** eta ez
bizikletan. 2.- pausu txiker eta azkarrez
ibiltzea nahiz zeozer apurka-apurka bai-
na gelditu barik egitea adierazten **dauan**
hitza: taka-taka joaten bagara, helduko
gara. Tapa-tapa

Trapazeri: tresnategi

Triskila: gaztaina oskolak batzeko egu-
rrezko kurrikak

Troinu: tronbil: korapilo

Txarri: *txerri*

Txarrikume: *txerrikume*

Txikertu: txikitu

Txirikil: bi muturrak kono eran zorrotzu-
rik **dituan** makila txikia

Txirikilan olgatu: olgeta, beronen zera
honetan datza: bi muturrak kono eran zo-
rrotzurik **dituan** makila txiki bat beste
makila batez kerruan jo eta lurretik jaso
ondoren, airean beste kolpe batez albait
urrunen jaurtitzean

Txirrinka ikus txirringa: ibilgailuen igi-
dura errazteko bere ardatzaren inguruan

biraka ibiltzeko egokiturik **dagoan** pieza
biribil edo uztai formakoa

Txirrin-txarran: onomatopeiazko berba

Txizasi: txizagura

Tzist-tzast: txingarra kafedun lapikoan
sartzean entzuten **dan** zaratotsa (onoma-
topeiazkoa)

U

Uhel ikus uhal

Ule: *ile*

Urtebarri: *urteberri*

Urten: *irten*

Urun: *irin*

Uzaba: 1.- ikus ugazaba. 2.- itzela, onena
dala adierazteko erabiltzen **dan** berba:
uzaba **haz eskupelotan!**

Z

Zarankada: saski handi bete

Zikin: lohi

3. ARIKETAK

Atal honetan CDan ipini ditugun ariketa guztiak agertzen dira, lau multzotan banatuta, CDaren egituraren arabera. CDan ikasleek ikusi eta egin behar dituzten ariketak agertzen diren moduan, gida honetakoek irakasleentzako bilduma osotzen dute. Horrela, behar diren erantzunetarako batzuk ematen ditugu orientabidetzat.

3.1. ESALDI EREDUAK

Ariketa hauetan ikasleek eurek CDan ikusiko dituztenak ipini ditugu. Erantzunak edukien atalean bertan aurki daitezke. Ariketon ardatza euskara batua da eta bizkaiera haren ondoan doa, esaneko lekuan.

Entzun eta bizkaiera literarioko laukia bete

JUNTAGAILUAK

ETA

	Ez du ezer erosi eta dena jan du.
--	-----------------------------------

	Har ezak ume hori jausiko duk eta.
--	------------------------------------

BE/BERE

	Afaria egin dut eta etxea ere garbitu dut.
--	--

	Ekarri dut jatekoa eta ogia ere erosi dut.
--	--

BE BAI/BERE BAI

	Bazkaria ekarri dute eta oraindino ardaa ere bai.
--	---

	Horrek egin du bazkaria eta afaria ere bai.
--	---

BE EZ/BERE EZ

	Umea ez da etorriko eta aita ere ez.
--	--------------------------------------

BAITA BE

	Ekarri dut jatekoa eta baita ere ogia erosi dut.
--	--

BAITA...BE BAI

	Amak egin du bazkaria eta baita afaria ere.
--	---

...BAKARRIK EZ...BE

	Eurak bakarrik ez dira etorri neu ere eurekin etorri naiz.
--	--

...BAKARRIK EZ ...EZPABE

	Umea bakarrik ez da etorriko ezpabere ama ere bai.
--	--

...BAKARRIK EZ...EZPADAZE

	Ez bakarrik ekarriko du ogia ezpadaze ardoa ere bai.
--	--

EDO

	Neu joango naiz edo umea bidaliko dut.
--	--

ALA

	Ez dakit hemengoak diren ala Bilbokoak diren.
--	---

BAI...BAI...

	Bai basoan eta bai etxean beti dabil beharrean.
--	---

BE...BE...

	Porruak ere ekarri dituzte eta piperrak ere ekarri dituzte.
--	---

BE BAI...BE BAI...

	Etxean ere bai eta kalean ere bai beti daude berbetan.
--	--

BE EZ...BE EZ...

	Ez da ekarriko jana ere ez eta afaria ere ez.
--	---

BE EZ...BE EZ...

	Nik ez dut salduko ez automobilik eta ez etxerik.
--	---

EDO...EDO...

	Edo etxean edo basoan beti dabil beharrean.
--	---

ZEIN

	Etxean zein kanpoan bero handia dago.
--	---------------------------------------

ZEIN...ZEIN...

	Zein etxean zein kalean beti euskaraz egiten du.
--	--

NAHI

	Zuek joan nahi gu joan berdin da.
--	-----------------------------------

NAHI...NAHI...

	Nahi kalean nahi etxean beti daukagu beharra.
--	---

...EZ EZE

	Ogia ez eze ardoa ere ekarriko dute.
--	--------------------------------------

BATA...BESTE...

	Batak ekarri zuen ogia eta besteak ekarri zuen ardoa.
--	---

ALDE BATETIK/ALDERDI BATETIK

	Ba alde batetik beldurra daukat baina beste alde batetik joan gura nuke.
--	--

	Alde batetik beldur naiz baina bestetik joan egin gura dut.
--	---

BATETIK

	Batetik etorri gura dutela diote baina bestetik autorik ez daukatela.
--	---

PARTE BATETIK

	Alde batetik etorri gura dute, baina bestetik bada ez daukate autorik etortzeko.
--	--

BAINA

	Etorri dela esan du, baina nik ez diot sinesten.
--	--

	Eguraldi ona dago, baina arratsaldean euria egingo du.
--	--

OSTERA

	Txakurra beltza da, baina katua osterazuria.
--	--

	Txakurra da beltza, katua osterazuria.
--	--

BARREZ/BARRETZ

	Txakurra beltza da, baina berriz katuzuria.
--	---

	Atzo berriz jendez beterik egon zen, eta gaur, gaur bat ere ez.
--	---

BARREN

	Zelan esango deusut ba! Ez dakit barren.
--	--

HALAN ETA GUZTI BE/BERE

	Hiruretan etorriko dira eta hala eta guztiz ere berandu da.
--	---

HORI ETA GUZTI BE

	Etorriko da hiruretan, baina hori eta guzti ere berandu da.
--	---

HALAN BE/BERE

	Hiruretan etorriko dira eta hala ere berandu da.
--	--

	Autoan datozen, baina hala ere belu izango da.
--	--

HOLAN BE

	Hiruretan etorriko dira, baina hala ere berandu izango da.
--	--

HALAN ETA GUZTI BE

	Etorriko dira hiruretan, baina hala eta guzti ere izango da berandu.
--	--

	Bai etorriko dira autoan, baina hala eta guzti belu izango da.
--	--

HOLAN ETA GUZTI BERE

	Hiruretan etorriko dira, hala eta guzti ere belu izango da.
--	---

OSTERANTZEAN

	Dena jan behar duzu osterantzean txiki geratuko zara.
--	---

EDO OSTERANTZEAN

	Etxean egongo da edo osterantzean tabernan.
--	---

ZE OSTERANTZEAN

	Hementxe ipini behar dut ze osterantzean ez dago lekurik.
--	---

EZPERE

	Neu joango naiz ezpere umea bidaliko dut.
--	---

EZPABE/EZPABERE

	Egongo da etxean ezpabere tabernan.
--	-------------------------------------

	Har ezazu ume hori ezpabere jausiko da eta.
--	---

EDO EZPABE/EZPABERE

	Neu joango naiz edo ezpabere umea bidaliko dut.
--	---

ZE EZPABE/EZPABERE

	Kotxean joan beharko dugu ze ezpabere berandu ailegatuko gara.
--	--

EZPADAZE

	Hori ez da berdea ezpadaze urdina.
--	------------------------------------

BESTELA/BESTELAN

	Hementxe ipini behar dugu bestela ez dago lekurik.
--	--

	Dena jan behar duzu bestela txiki geratuko zara.
--	--

EDO BESTELA/EDO BESTELAN

	Ondo egin behar da edo bestela ezer ere ez.
--	---

	Neu joango naiz edo bestela umea bidaliko dut.
--	--

ZE BESTELA/ZE BESTELAN

	Hementxe ipini behar dut ze bestela ez dago lekurik.
--	--

	Hementxe ipini behar dut ze bestela ez dago lekurik.
--	--

ZE

	Eroan ezazu aterkia ze euria egingo duela pentsatzen dut.
--	---

ZE...ETA

	Banoa ze trenak behingoan irteten du eta.
--	---

EZE

	Hori ikusten badut gauza hori etxean ikusten badut hori, eta esaten dut ezen, e! Hori neuk erosikoa da.
--	--

	Ez da etorri ezen belu da.
--	----------------------------

ZEGAITIK ZE

	Ba eroan aterkia ze euria egingo du.
--	--------------------------------------

HAIN

	Hain dago bero handia ezin da beharrik egin.
--	--

HAIN...ZE

	Hain da handia ze atetik ezin sar daiteke.
--	--

HAIN...ZEIN

	Hain da handia zein ez da sartzen atetik.
--	---

HATAINOAN

	Hatainoan handia da atetik ere ez da sartzen.
--	---

HAGAITIK

	Hagatik ezin dezakegu honela ezer egin.
--	---

HALANDAZE

	Halandaze badakizu zer egin behar duzun.
--	--

HOLANDAZE

	Holandaze badakizu zer egin behar duzun.
--	--

ASIKE

	Halandaze ezin dugu ezer ere egin.
--	------------------------------------

MENPERAGILUAK

-LA

KONPLETIBOA

	Esan diat neuk egingo dudala.
--	-------------------------------

MODALA

	Argia joan da afaltzen gaudela.
--	---------------------------------

-LA + SUBJUNTIBOA

	Esaiok horri etor dadila.
--	---------------------------

BAZE...-LA

	Esan du baze etorriko dela.
--	-----------------------------

ZE...LA

	Esan liteke ze ez duela euririk egin behar.
--	---

EZE...-LA

	Mikelek esan du ezen beraren laguna etorri dela.
--	--

-LAN

	Itxita egongo delan etxean lotu naiz.
--	---------------------------------------

-LAKO

	Ez da etorri belu delako.
--	---------------------------

-LAKOA

	Etorri direlakoa daukat.
--	--------------------------

-LAKO GOGORRA

	Bota diodalako gogorra eduki dut.
--	-----------------------------------

-LAZKOA

	Nago, ekarri duelakoan.
--	-------------------------

-LAKOAN

	Egin du dakielakoan.
--	----------------------

	Damutu zait ez dudalako jan dena.
--	-----------------------------------

-LAKOTAN

	Hau esate baterako hau ekarriz gero bada ekarri duelakotan nago.
--	--

-LAKOTZAT

	Hori etorri delakotzat egon naiz.
--	-----------------------------------

-LA-ETA

	Egon naiz, etorri egin dela-eta.
--	----------------------------------

-LA BERE/BE

	Edo gura ez dela ere egin egin du.
--	------------------------------------

	Gura ez duela ere egin egin du.
--	---------------------------------

-N**ERLATIBOA**

	Etorri den gizona kanpoko da.
--	-------------------------------

ZEHAR GALDERA

	Ez zakiat nor etorri den.
--	---------------------------

	Ez dakit etorri den.
--	----------------------

SUBJUNTIBOA + N

	Jagon ezak ume hori jausi ez dadin.
--	-------------------------------------

	Ez dut gura egin dezazun.
--	---------------------------

ZEIN + SUBJUNTIBOA + N

	Hartu ume hori zein jausi dadin.
--	----------------------------------

ZE + SUBJUNTIBOA + N

	Har ezazu aterkia euria egin ze dezan.
--	--

-NA

	Konturatu naiz hor dagoena.
--	-----------------------------

-NIK

	Ez dute esan amaitu dutenik.
--	------------------------------

-NEZ

	Berak esan duenez, gero etorriko da.
--	--------------------------------------

-NEAN

	Etortzen denean esango zioat.
--	-------------------------------

-NEKO

	Ixten joan naizenean giltza apurtu da.
--	--

	Datorreneko amaituta dauka.
--	-----------------------------

-NERAKO

	Ba gu joan ginenerako eurak joanda egon ziren.
--	--

-NETIK

	Esan dutenez gero etorriko dira.
--	----------------------------------

	Etorri denetik ez dut ikusi.
--	------------------------------

	Hori kanpokoia denez gero, ez daki euskaraz.
--	--

-NDIK

	Bada esan duenez bihar etorriko dira.
--	---------------------------------------

-NENTZ

	Ea hori bakarrik dagoenentz.
--	------------------------------

-NAGAITIO

	Esan duenagatik bihar etorriko dira.
--	--------------------------------------

-NEZ GERO

	Etorri denez gero ez dut ikusi.
--	---------------------------------

	Hemen gaudenez gero ikustera joango gara.
--	---

	Hasi zarenez gero amai ezazu.
--	-------------------------------

-NIK HONA

	Etorri denik hona ez dut ikusi.
--	---------------------------------

-NIK HARREZKERO

	Etorri denik harrezkero ez dut ikusi.
--	---------------------------------------

-NETIK HONA

	Hori ekarri duenetik hona ez da etorri.
--	---

-N ORDUAN

	Etorri zaren orduan ikusi zaitut.
--	-----------------------------------

-N ORDURAKO

	Gu etorri ginen ordurako horiek joanda egon ziren.
--	--

-N ORDUKO

	Gu joan ginen orduko joanda egon ziren.
--	---

-N ARTEAN

	Beno zuek amaitzen duzuen artean etxera joango naiz.
--	--

-N ARTE

	Zuek amaitzen duzuen arte ni errekaduak egitera joango naiz.
--	--

-N BITARTEAN

	Zuek amaitzen duzuen bitartean joango gara etxera.
--	--

-N BAKOTXEAN

	Datorren bakotxean dakar zer edo zer.
--	---------------------------------------

-N BAKOTXEKO

	Berba egiten duen bakoitzeko lelokeriaren bat esaten du.
--	--

-N GUZTIETAN

	Datorren guztietan ekartzen du zer edo zer.
--	---

-N GUZTIAN

	Datorren guztian dakar zer edo zer.
--	-------------------------------------

-N LEZ

	Gaur astelehena den legez lanera joan gara.
--	---

	Lehen egiten zen legez egiten da hori.
--	--

-NA LEZ

	Hori kanpoko dena legez, ez daki euskaraz.
--	--

-N LAKOA

	Erosi dut gazta bat zeuk ikusi duzun lakoa.
--	---

-N MODUKOA

	Ekarri da gazta zeuk ikusi duzun modukoa.
--	---

	Hau da neuk ekarri nuen moduko txikia.
--	--

-NA MODUKOA

	Bada ekarri dut gazta bat zuk ikusi duzuna modukoa.
--	---

-N MODUAN

	Egin dugu zuk esan duzun moduan.
--	----------------------------------

	Horrek ez daki ezer baina dakien moduan berba egiten du.
--	--

	Gaur astelehena den moduan beharrean joan gara.
--	---

-N MODURA

	Egin dugu zuk esan duzun modura.
--	----------------------------------

	Horrek gastatzen du aberatsa balitz moduan.
--	---

-N MODULEZ

	Horrek egiten dik berba dakien modulez.
--	---

-N ERARA

	Horrek hartzen dituen erara jan egiten ditu.
--	--

-N ANTZERAKOA

	Bada erosi diot jaka bat amak daukan antzerakoa.
--	--

-NAREN ANTZERAKOA

	Erosi dut jaka bat amak ekarri zuenaren antzekoa.
--	---

-N GAIN

	Irabazten duten gain gastatu egiten dute.
--	---

-N GAINA

	Ama! Zeuk esan didazun gaina ekarri dizut, e?
--	---

-N BESTE

	Ekarri dugu amak esan duen beste.
--	-----------------------------------

-N BESTEAN

	Egiten dituen bestean saldu egiten ditu.
--	--

-N BESTEKO

	Hau da zeuk ekarri duzun besteko txikia.
--	--

-NAREN BESTEKO

	Hau da zeuk ikusi zenuenaren besteko handia.
--	--

-N NEURRIAN

	Bada egiten duen neurrian saldu egiten ditu.
--	--

-N GAINOAN

	Den gainoan ireki.
--	--------------------

-N MEDIDAN

	Egiten duen neurrian saltzen ditu.
--	------------------------------------

-N TAMAINUAN

	Hartzen duen neurrian gastatzen du.
--	-------------------------------------

ZELAN...-N

	Konturatu naiz zelan etorri diren.
--	------------------------------------

	Zelan datozen halan jesartzen dira.
--	-------------------------------------

	Gaur ere zelan astelehena den joan gara lanera.
--	---

ZEIN...-N MODUAN

	Horrek gastatzen du zein aberatsa den moduan.
--	---

ZEINDA...-N MODUAN

	Hark hau esan du zeinda berak dena dakien moduan.
--	---

SEGUN...-N

	Zelan hartzen den jaten da.
--	-----------------------------

SEGUN...-N MODUAN

	Batzen ditudan moduan jaten ditut.
--	------------------------------------

	Horiek esan dutenez gero etorriko dira.
--	---

SEGUN...-NEZ

	Horiek esan dutenez saldu egingo dute etxea.
--	--

ZENBAT...-N

	Zenbat eta gehiago dakarzun hobeto.
--	-------------------------------------

AUNKE...-N

	Eguraldi txarra dagoen arren basora joango gara.
--	--

IAKE...-N/IAKETA...-N

	Hasi dugunez gero amaitu.
	Zeuk dakizunez gero esazu zeuk.

BA-

BALDINTZA ERREALA

	Etortzen bada berba egingo dut beragaz.
	Etxera joan baginen ikusi egingo genuen.

BALDINTZA IRREALA

	Basora joango bazina galdu egingo zinateke.
	Joango balira basora galdu egingo lirateke.
	Etxera joan bagina ikusi egingo genukeen.

ZEHAR GALDERA

	Ez dakit etorri diren.
--	------------------------

BA-...BERE/BE

	Eguraldi txarra egiten badu ere ez da gelditzen etxean.
	Hamarretan amaitzen baduzu ere berandu izango da.

BA-...LEZ

	Horrek gastatzen du aberatsa balitz legez.
--	--

BA-...LAKO

	Materia balitz lako esneak irteten dio hasieran.
--	--

BA-...MODUAN

	Horrek egiten du berba jakingo balu moduan
--	--

BA-...MODURA

	Horrek gastatzen du aberatsa balitz modura
--	--

3.2. ULERMENA: TESTUEN GANEKO ITAUNAK

ARRATIA

Galdakao

Aitita difuntuak nozko etorri behar dala etxera esaten eban?

Abemarietako

Igorre

San Joan egunean zer kantetan zan?

San Joan bagilea, denporak erreak, atsoak eta sorginak erre.

Dima

Zegaz ebagiten eben garia?

Igitaiaz

Zer da metatu?

Pilo handian ipini.

Zeberio

Noz esaten eben hau esnea. "txuri gora, txuri gora"

Esnea irakiten gora doan orduan.

Zeanuri

Gizon horrek neskaxia nora joango zala pentsatu eban?

Hainbatera.

Ubidea

Galbahean zer eralgi behar dozunean erabiltzen dira otzara zabalak?

Abe apur bat

BUSTURIALDEA

Bermeo

Zertan etorri zan Napoleon Euskal Herrira?

Gerrea emoten

Noz etorri zan Napoleon Euskal Herrira?

Antxina

Napoleonek 80 urteko gizona eta haren 100 urteko aita topatu ostean, zer esan eutsen soldaduei?

Ene bada! Hemen jendea indartsu asmetan dot eta korridu eizue!

Zer pentsatu eben karlistek bekerekakaitik?

Soldaduak dirala.

Busturia

Zertarako zan triskilia?

Gaztainak, oskolak atrapetako.

Forua

Eta eguzkia sartukeran, ona dagoanean, ezer esaten da?

Eguzkia badoa beraren amagana, bihar etorriko da denpora ona bada.

Morga

Kanta entzunik, bete egizuz 2. eta 4. lerroa.

Gaur dala, bihar dala donianez

etzi San Joan biharamonez

zapoak eta sugoiak erre

gure soloan sorginik ez

badago bere erre.

Axangiz

Garatzak noz gehitzen ziran?

Ernamina emoten baeben.

Arratzu

Nortzuk egiten dabe apostua?

Sakristauak eta errementariak.

Zer jokatu eben?

Azunbra bar ardao.

Nork galdu eban?

Errementariak.

Kortezubi

Giputzak, mutil eder bi, rekete jantziekin. Zelan jantzita?

Txapel gorriakin eta borla horiagaz.

34ko mitinera, Elorriora, zer oinetako eroan eben?

Abarketa zuriak kordel gorriakin.

“Geuri hil eragin deuskue” dino, baina nor eta non?

Lauaxeta, Bitorian.

Arteaga

Zeri esaten jako edur txingorra?

Edurra hasten danean, zati txikitxuei.

Elantxobe

Sorginak zer egingo eutsola esan eutson gizonari, ikusi dauala esan ezker?

“Galdu egingo zaitut!”

DURANGALDEA

Zornotza

Kanta entzunik, bete bigarren lerroa:

“Maria gona gorria
eutsi hagin zaharra
eta ekarzu barria”.

Gero zer egiten eben haginagaz?

“Teilatura botaten genduan hagina”.

Durango

Gerra geuk irabaziko dogu, baina zelan?

Frantsez bakotxak aleman bat hilda.

Zegaz okupatu eutsien ospitale aldea?

Bostehun tanke ingurugaz.

Abadiño

Lehen asko ugariago egon ziran. Zergaitik?

Zikin gehiago, amarauna edo...

Arrazola

San Joan bezperan erretzeko, zer batzen zan?

San Joan sobrak.

Zeintzuk ziran San Joan Sobrak izeneko bedarrak?

Bat ira modukoa, beste bat lora zuriak daukazana...

Kanta entzunik, bete egizan/egizak lerro hutsak:

“San Joan, San Joan

arrautza bi kolkoan

beste bi altzoan

sorginak eta lapurrak erre, erre,

artoak eta gariak gorde, gorde,

biba San Joan, biba San Joan”.

Zer egiten zan ereinotzarekin?

Erre egiten zan.

Berriz

Gatzagaz bai, baina gatzagaz zer egiten zan eta nora bota?

Hiru gurutze egin eta gatza sutara jaurti.

Mallabia

Zelan joan behar zan landara?

Ortozik.

Ermua

Orain biak harrapatzen ditue. Zertzuk?

Erregeak eta Olentzaro.

Zerezkoa zan tximinoa?

Latorrizko hondoakin.

Zertara jokutzen eben neskak mutilen moduan?

Txirikiletan.

Otxandio

Umeak jan gura ezik egoten ziranean, zer esaten eutsen?

Zazpi hankako atsoari deituko eutsela.

Umeak hori entzutean, zelan egoten ziran?

Bildur-bildur eginda.

HEGO URIBE

Begoña

Zer ortuari ereiten dabe oraindainokarren?

Tomatea, piperra eta azatxu batzuk.

Larraskitu

Patatea betatu arren eta lurra bota arren, zer gertatzen jako hilabete barru?

Ugerrak koiuten dau.

Buja

Kanporamartxo egiten ebenean, zelan ipinita jaten ebezan txorizoa eta urdaia?

Zotzean sartuta.

Basauri

Umeak eskolan egiten dabe euskera, baina non ez dabe egiten?

Euren artean, olgetan eta ez dabe egiten.

Arrigorriaga

Nortzuk joaten ziran umea bateatuten?

Amabitxi edo aitabitxi edo aita.

Zeri deritzo eliza urteera?

Ama umeagaz eta beste bategaz kandlea harturik elizara joateari.

Zaratamo

Kanporamartxo egiteko, zer koiuten eben Semeni puntara joaten ziranean?

Koiuten gendun txorizoa eta urdaia erretako.

Arrankudiaga

Kafea egin ostean, zer sartu eta ataratzen zan lapikotik tzist-tzast?

Txingarra.

Zollo

Zer da lekuko honek entzuna bakarrik dakiena eta ikusi be egin ez dauana?

Andra bati bularra edaten eutsala sugeak.

Orozko

Txarriari zer sartzen eutsoen okotzetik eskegita eukiteko?

Makila handi bat, muturrean orkatza eukana.

Noz kentzen jakoz gantzagiak txarriari?

Tripak atara orduan.

Lepazurra kendu orduan, zer kentzen da?

Saihetsak.

Zenbat urdai mota izaten ditu txarriak?

Urdai lodia eta urdai mehea.

Zelan apartatzen dira garaunak?

Burua aizkoreagaz erdibituta.

LEA-ARTIBAI

Nabarniz

Zertzuk ziran gorutan erabiltzen ziran tresnak?

Gorua eta ardatza.

Ereño

Buztarria idien adarretara lotzeko, zer erabiltzen da?

Hedak.

Ispaster

Maestrak entzuten baeutsen euskeraz egiten, zer ipintzen eutsen?

Gantxoak sudurtziloetan eta belarrien puntan.

Morroi batzuk tabernara doazenean –euskerara ederto jakin arren- txikitoak kobratze-ko erdaraz egiten dau. Zergaitik?

Eskolan erdaraz ikasi daualako.

Lekeitio

Zelango etxea eukan Peruk? Zelangoa Mariak?

Peruk gatzezkoa, Mariak oholezkoa.

Zerk galdu eban Perun etxea eta zerk Mariana?

Perurena euri zaparradak, Mariarena su handiak.

Arbola handiaren ganean dagozala, zer gertatzen jakon Peruri?

Txizasi zan.

Zelan amaitzen da istorioa?

Palazio handi bat egin eta hantxe bizi ziran.

Markina

Oinez etorri eta gero, zera egin eben Markina-Etxebarrian:

Txondorra egin eben ikatza egiteko.

Otzarak buruan eroateko, zer ipintzen zan buruan?

Sorkia.

Aulestia

Nork bialdu eban beragana?

Abade batek bota eban beragana.

Nongoa eta non egondakoa dala esaten eutson?

Amorebietakoa zala, Karmenen egondakoa zala.

Munitibar

Nora joan eta nondik etortzen ziran oinez?

Gernikara nahiz Markinara joan zein etorri.

Zenbat kobratzen eban Zubialdeko zerak eta zenbat Errotak?

Zubialdekoak pezeta bi, Errotak bat.

MUNGIALDEA

Jatabe

Joniko nongoa zala dino?

Bestaldekoa.

Non eta zertan egoten ziran laminak?

Erreketan, burua orraziakaz orraztuten.

Gatika

Zer zan erreturak egiteko teknika?

Ganetik bota lurra eta sikatuten danean, sua emon.

Zertarako egiten ziran erreturak?

Bedarrak gitxiago urten daian.

Laukiz

Baten, gari jotzen ibili ziranean, zer etorri zan hara?

Lukia.

Zer lotura daukie, iretargiak, putzuko urak eta taloak?

Iretargiaren argia putzuan islatzean, taloa zirudian.

Mungia

Zenbat urte dira Brijida izeneko andra hori hil zala?

Berrogeita zortzi urte.

Teodoro izeneko gizon hau guzurretan bizi izan da beti?
“Ni egiagaz bizi izan naz beti” -dino.

Noz agertu jakon hildakoa?
Hirugarren egunean.

Zelan joan zan etxe ondoraino?
Dardarkadan.

Gamiz

Altxatu eta kortan hasi baino lehen, zer egiten dau?
Barausi kafesnea edo hartuta.

Fruiz

Garatxak kentzeko, zer egiten eben?
Kontatu gariagaz, sagarraren barruan sartu eta lurpean sartu ikusi barik.

Arrieta

Nor hil jakon Afrikan?
Nebea.

Atean agertu zanean, zer esan eutson amari Juan Luisek?
Ilun dago hamen.

Amak kanpoko atean zer ipini eban?
Argitxu bat.

Meñaka

Hasieran, zer ikusten dauala uste dau kaminoan batetik bestera dagoana?
Soka edo sugoia.

Zenbat biderrez zapaltzen dabe sugoia?
Hiru bider.

Zer hiltzen da hurrengo egunean zerbaitek pikatuta?
Karmeloren mandoa.

Bakio

Zer da apaborroa?
Txarriaren zilbegia, urdai mehea.

Zer erabiltzen zan burkotza egiteko?
Gorostia.

Zertarako erabiltzen zan ginbaleta?
Zuloa egiteko.

TXORIERRI

Leioa

Zer ebagiteko da pujamanta?
Apatxa ebagiteko.

Erandio

Zer zan Zezilio gosetxekoa?
Bertsolari nahiko ona.

Barrikako San Blasetao bertsoan, zenbategaz ezkondu zala inoan?
Bigaz.

Loiu

Mutil batek zelan egiten eutsen berba aitari, abadeari eta guztiei?
Eztok eta badok.

Abadeari zelan esaten jako, zelan berba egiten jako?
Abadeari zu esaten jako.

Sondika

Zohia laiagaz nora botatzen zan beti?
Eskoara, beti alde batera.

Zelaian norantz botatzen zan zohia?
Nahiz batera nahiz bestera.

Derio

Gurdia astiroago joan daiten, edo gelditu daiten, zer erabiltzen zan?
Galgea.

Zamudio

Hiru mutil joan eta bat desagertu egin jaken. Gero non agertu zan?
Haretxaren ganean.

Mutil hori non erabili eben sorginek?
Basartean.

Lezama

Zertarako sartzen jakon kafeari ilentia?
Borrea bajatu dakion.

Larrabetzu

Euren aita zelangoa zala dinotso Ferminari?

Bizia eta odoltsua.

Bizkargira joan ezkeru, zerk urtengo eutsan han?

Hilda egon zan batek.

Farola koiuta, zer ordutan igon eban Bizkargira?

Gaueko hamabietan.

Han urtetan eutsan gizonak, zelan jantzita urtetan eutsan?

Izara zuri bategaz.

Bildurra dala eta, noz arte egiten eban lo ahizteagaz?

Ezkondu zanera arte.

URIBE KOSTA

Getxo

Txarriagaz, zer egiten da goizean, eta zer arratsaldean?

Goizean hil eta arratsaldean txikertu.

Euren aitaren zereginari depositario deitzen jakon, baina non?

Erremendadean.

Berango

Noz jaio zan haren nebea?

Sollube bonbardeaten egon ziranean.

Sopela

Zertan ibiltzen ziran soloan?

Arto jorrea edo patata jorrea egiten.

Erropak aldatzeko, zer eroaten eben hareatzara?

Izara handi bat.

Lau edo bost mutilek zer egiten eben hatxetik?

Ezikusia egiten euskuen, inozente buru.

Itsasotik etorri eta goiko soloetan, zertan jarduten eben?

Jotea kantatu batek, besteak kantatu eta jo.

Barrika

Zenbat txarri hil dabez?

Hamar.

Urduliz

Labasua egiteko, pinu erramak, sasia eta otabarra, zein tresnagaz botatzen zan barrura?

Irurkeagaz.

Irurkea deritzan makilak, zenbat punta ditu?

Bi.

Plentzia

Zelan da agilandoa batzeko abesten eben urte barriko kantaren letra?

*Urte barri, txarri belarri,
daukanak, ez daukanari,
ez daukat eta niri,
ezpabere, txarri belarri.*

Zer emoten eutsien?

Txorizoak, intxaurreak, gaztainak eta.

Gorliz

Nontarra da etxe ondoan dagoan artzaina?

Lemoiztarra.

Lemoiz

Testua entzunik, bete egizuz 2, 4, 6, 8, lerroak:

“Kantau gura geunskio
bertso bat edo bi

Santo Tomas bigarren
gaueko lanari

hiru (...) izan ginan
bidean etorri

geure pasadizoak
kontetan alkarri”

3.3. BERBA EGITEKO ARIKETAK

Entzun ostean zeuk kontatu edo errepikatu, narratzaileak darabiltzan azentua eta intonazioa plagiatur.

1. Bermeoko Napoleonen eta karlisten istorioak.
2. Lekeitioko Peru eta Mariaren gertaera.
3. Arrietako testuak dakarren Juan Luisi buruzko kontakizuna.

4. Igorreko “San Joan Bagilea, denporak erreak, atsoak eta sorginak erre”.

5. Morgako

“Gaur dala, bihar dala Donianez
etzi San Joan biharamonez
zapoak eta sugoiak erre
gure soloan sorginik ez
badago bere erre”.

6. Zornotzako

“Maria gona gorria
eutsi hagin zaharra
eta ekarzu barria”.

7. Arrazolako

“San Joan, San Joan
arrautza bi kolkoan
beste bi altzoan
sorginak eta lapurrak erre, erre,
artoak eta gariak gorde, gorde,
biba San Joan, biba San Joan”.

8. Plentziako

“Urte barri, txarri belarri,
daukanak ez daukanari,
ez daukat eta niri,
ezpabere, txarri belarri”.

9. Lemoizko

“Kantau gura geunskio
bertso bat edo bi
Santo Tomas bigarren
gaueko lanari
hiru (...) izan ginan
bidean etorri
geure pasadizoak
kontetan alkarri”.

3.4. HIZTEGI ARIKETAK

Egizu ariketa hau aurkezten zaizun hurrengo hiztegian:

1. Azpimarra itzazu bizkaierarako baino ez diren berbak edo sintagmak. Esate baterako: **barri**.

(Irakasleak bizkaierarakoak beltzez jarrita dauzka.)

2. Ingura itzazu lauki batez euskara baturako baino ez diren berbak edo sintagmak. Esate baterako: (**gutxiago**).

(Irakasleak euskara baturakoak letra etzanez dauzka.)

3. Azpian puntuak ipiniz markatu bizkaierarako nahiz euskara baturako balio daben berbak. Esate baterako: **artza**.

(Ikasleari ezelango marka barik datozkio.)

A

Abe: olo (*Avena sativa*): gramineoen familiako laboreetariko bat: oiloari oloa, astoari lastoa

Abemariak/abemarietakoak: Angelusaren deia eta ordua, batez bere arratsaldekoa, iluntzen **hasi ezkerokoa**

Adi-adi: begira-begira.

Afariketan: afaltzen

Ahizta: *ahizpa*

Aitaita: *aitona*: aitajaun: aitatxi

Aldea-etxe: baserri

Alkarte: *elkarte*

Amuts: *kamuts*

Andra: andre

Andragai: andregai

Antxina: *antzina*

Apaborro: **Txarriaren** zilbegia -puxikaren muturra- hil **barritan** kendu eta gatz bage eskegita usteldu barik irauten **dauana**, batez bere hedak eta koipeztatzeko erabilia

Arazo: *arazi*: "Ura **irakinarazo dabe**".

Ardau: *ardo*

Armozu: gosari

Artzakada: bahekada

Artza: bahe

Atrapatu: harrapatu, atzeman

B

Bagil: ekain

Bakotx: *bakoitz*

Banaka: 1.- urria: bakana: bere antzekorik oso **gitxi** baino ez **dauanaz, gitxi**

dagoenaz edo nekez topatzen **danaz** esaten da. 2.- banan: bakarka: berazka: aldian bat soilik: banaka sartu **zaiteze**

Barausi: barautsi: goizean baraua hautsi edo gosaria hartu

Bardin: *berdin*

Barik: gabe

Bariku: ostiral

Barri: *berri*

Barriro: *berriro*

Barriz: *berriz*

Bateatu: bataiatu

Bedar: *belar*

Bedarleku: larre, landa

Begitu: begiratu

Bildur: *beldur*

Bildurtu: *beldurtu*

Bueltaka: biraka

Burdi ikus gurdi

Burkada ikus gurdada

Burzotz ikus gurzotz

Buztarri: *uztarri*

Buztartu: *uztartu*

D

Domeka: igande

Doniane ikus Donibane

E

Ebagi: *ebaki*

Edur: *elur*

Eleiza: *eliza*
Eralgi: dirua edo ondasunak xahutu
Ernamin: *ernamuin*, ernakatz, kimu
Erradura: ferra
Errama: adar (zuhaitz)
Erratura ikus erretura
Erretura: soloan **bedarrak** eta zaborrak
piloetan jartzeari eta erretzeari eta
hareen errautsa ongarri modura lu-
rrean zabaltzeari deitzen **jako** erretu-
ra (erreturak egin)
Erremendade: ermandade
Erreztasun ikus erraztasun
Erropa: *arropa*
Eskegi: *eseki*
Eskilara: eskailera
Eskoara: eskuinera
Eskutak: azao, sorta: gari-eskutak
Ete: *ote*
Euki: eduki
Exatu: exagaz egin ildoan
Exa: hortz bakarreko goldea
Eztabere: *ezpere*

F

Fago: *pago*
Fraile: *fraide*

G

Gane: gain
Ganean: *gainean*
Ganera: *gainera*
Gantzagi: gantz
Garaiteko: gainerako
Garatxa: *garatxo*
Garaun: burmuin, zerebru
Gariburu: galburu
Garri: *gerri*
Gedar ikus kedar
Ginbalet: zuloak bira-biraka egiteko gai-
lu txikia

Gitxi: *gutxi*
Gitxiago: *gutxiago*
Gurdi: orga
Guzur: *gezur*

H

Halandaze: beraz
Haretx: *haritz Quercus*
Hatx: *haitz*
Hausi ikus hautsi

I

Igitai: landareak ebakitzeko balio **dauan**
aho makurreko tresna kirtenduna
Igon: *igo*
Ilusino: ilusio
Imitazino: imitazio
Ingatu: lur arola trinkotu
Iretargi : ilargi
Iruntza : ihintz
Iurka: egurrezko urkulua, hortz luzeak
dituana
Isuski: erratza, isatsa: **Labarako** erratza,
txilarrez egindakoa
Isiotu: argia edo sua piztu

J

Jabon ikus jagon
Jagi : *Jaiki*
Jungada: ingude

K

Kainabera: *kanabera*
Kakarraldo: *kakalardo*
Kakasi: kakagura
Kamara: ganbera

Kanporamartxo: basatoste: sasimartxo: inauterien arteko domeka, harateguna, basora taldean joanda, tortilla, txorizoa, txokolatea eta janez ospatzen **dana**

Karu: garesti

Keriza: *gerezia*

Kito: zeozer beste zerik barik han amaitzen **dala** adierazteko esamoldea: etxera joango **naz** eta kito!

Kodaina: sega

Koiu: harrapatu

Kokotu: lelotu, tenteldu

Kolko: jantziaren eta bularraren arteko hutsunea: "hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru"

Kopu ikus kopau: mokadu, ahamen

Korridu: korritu

Kortatxur: *kortaitzur*: hortz punta zorrotzak **dituan** sardea: kortatxurraren hortzak zorrotzak dira eta satsatxurrarenak ia biribilak

Kuntzurrun: giltzurrun

Kurtze: gurutze

L

Laba : labe

Labasu: labesu

Labrantza: laborantza

Laratzu: laratz

Lasatu: lasaitu

Lehengoan: denboraz arteragoan: lehengoan esana orain bere errepikatu egiten **deutsut**

Lepazur: 1.- garondoa. 2.- bizkarrezur

M

Maldezino: maldizio, madarikazio, birao

Motz: 1.- itsusi. 2.- labur. 3.- kamuts

Muna: muino

N

Nahastean: nahasian

Nardei: 1.- Gurtedan jartzen *diran* kateen muturra, gurzotza sartzeko zuloak *dituana* 2.-zuhaitzak narrazka ekartze-ko erabiltzen *dan* haga

Narru: *larru*

Neskatxi: neskatxa, neskato, neskatila

Nobio-nobiak: ezkongaiak

O

Okerreria ikus okerkeria

Ondinokarren ikus oraindainokarren: oraindik

Oraindino ikus oraindaino

Oraindinokarren: oraindik

Oraleku: helduleku, euskarri

Orkatz: 1.- hortz biko urkulua. 2.- oreinen familiakoa **dan** Europako lau oin-neko hausnartzailea

Ortusantu: kanposantu, hilerri

Ostera bere: berriz ere

Ostetik: atzetik

Otabar: ota zaborrak: otabarra lango ogi latza

P

Parau: jarri: gaztagin guztien aurrean paratu **zan**.

Parean: batera: parean heldu **ziran**

Parra: **bardintasuna** erakusteko berba: gaurkoan parra egin **dabe** irabazietan

Parrastada: gatza sutara botatzean entzuten **dan** hotsa (onomatopeiazko berba)

Partida: kopuru handia: ehiztariak txori asko, **partidea** ekarri **dau**

Partika: gurdiazen bizkarra, erdiko haga, alboetako aldamenakaz garraiorako kaxa osotzen dauana

Pentsuorde: abereei pentsuaren ordez
emoten jaken jatekoa

Pernil: urdaiazpiko

Pujamanta: partidera: zaldi nahiz behien
apatxa jateko, murrizteko labana, al-
tzairuzkoa, ertz makurra eta zorrotza
dauana

S

Sakeleria ikus saskeleria: sastarreria, sa-
tsukeria

Sartukera: sarrera

Sikeran: behintzat, **gitxienez**

Sinestu: sinetsi

Solo: *soro*

Solomilo: azpizun

Sorki: 1.-buruan suila eta eroateko jar-
tzen **dan** zapia. 2.- suetean erabiltzen
dan oihala

Sudurtzilo: sudurzulo

Sugoi ikus suge

Suhin: *suhi*

T

Taka-taka: 1.- oinez ibiltzea adierazten
dauan berba: taka-taka joan **zan** eta
ez bizikletan. 2.- pausu txiker eta az-
karrez ibiltzea nahiz zeozer apurka-
apurka baina gelditu barik egitea
adierazten **dauan** hitza: taka-taka jo-
aten bagara, helduko gara. Tapa-tapa

Trapazeri: tresnategi

Triskila: gaztaina oskolak batzeko egu-
rrezko kurrikak

Troinu: tronbil: korapilo

Txarri: *txerri*

Txarrikume: *txerrikume*

Txikertu: txikitu

Txirikil: bi muturrak kono eran zorrotzu-
rik **dituan** makila txikia

Txirikilan olgatu: olgeta, beronen zera
honetan datza: bi muturrak kono eran
zorrotzurik **dituan** makila txiki bat
beste makila batez kerruan jo eta lu-
rretik jaso ondoren, airean beste kol-
pe batez albait urrunen jaurtitzean

Txirinka ikus txirringa: ibilgailuen igi-
dura errazteko bere ardatzaren ingu-
ruan biraka ibiltzeko egokiturik **da-
goan** pieza biribil edo uztai formakoa

Txirrin-txarran: onomatopeiazko berba

Txizasi: txizagura

Tzist-tzast: txingarra kafedun lapikoan
sartzean entzuten **dan** zaratotsa (ono-
matopeiazkoa)

U

Uhel ikus uhal

Ule: *ile*

Urtebarri: *urteberri*

Urten: *irten*

Urun: *irin*

Uzaba: 1.- ikus ugazaba. 2.- itzela, onena
dala adierazteko erabiltzen **dan** ber-
ba: uzaba **haz eskupelotan!**

Z

Zarankada: saski handi bete

Zikin: lohi

BIBLIOGRAFIA

- AUSUBEL, D. P.; NOVAK, J. D.; HANESIAN, H. (1993): *Psicologia Educativa*. Mexico: Trillas.
- BASTERRECHEA, J. "OSKILLASO" (1984): *El libro negro del euskera*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- BAXOK, E. (1986), "Euskara Euskalkiak", in *Nazio eta herri mailako barietateen erabilera*. ASJU-XXVIII.
- CALVET, L. J. (1987): *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot.
- COLL, C. (1988): "Significado y sentido en el aprendizaje escolar. Reflexiones en torno al concepto de aprendizaje significativo", in *Infancia y aprendizaje, nº 41*. Barcelona.
- COLL. C. et Al. (1990): *El constructivismo en el aula*. Barcelona: Graó.
- ELEXPURU, J. M. (2000-07-05): Herri-Euskararentzat lekutxo bat, mesedez, in *Jagon Saila*. Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (1979a): "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Euskaltzaindiaren agiria", in *Euskera-XXIV*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1979a): "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Euskaltzaindiaren agiria", in *Euskera-XXIV*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1995): Euskalkien erabilera administrazioko 1. eta 2. hizkuntza eskakizunetan", *Euskera 40*, 1019-1024 or.
- EUSKO JAURLARITZA (1982): Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. "Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan", Gasteiz, EJAZN.
- FERGUSON, C. A. (1996): "Diglossia", in *HUEBNER, T.* (ed.) (1996) 25-39 or. (lehenengo, 1959an argitaratua, in *Word 15*, 325-340 or.)
- FISHMAN, J. (2000): Elkarrizketa, in *IVAP-27*. Vitoria-Gasteiz.
- GAMINDE, I. (1999): "Lekuan lekuko euskalkiaren ikerketak irakaskuntzan", in *Hezkuntza Saileko H Ikastaroa Txorierriko irakasleei hogeitau orduz*. Testu idatzia eta grabatua. Derio: Txorierri Institutua.
- GARATE, G. (1995): "Aramaio, bizkaiera", *Euskera 40*, 1995-2, 2/3, 699-701 or.
- GOIKOETXEA, J. L. -lankidetzan- (1995, 2, 3): "Euskalkien erabilera administrazioko 1. Eta 2. Hizkuntza eskakizunetan", in *Euskera*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- GOIKOETXEA, J. L. (1994): "Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak", in *Euskera*. Euskaltzaindia.
- GOIKOETXEA, J. L. (1999): "Euskalkiak ikasgelan", *Euskaldunon Egunkaria*, 1999-10-02, 3. or.

- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. (1992): *Oinarrizko Curriculum Diseinua*. Gasteiz.
- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. (2000): *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Proiektua*. Gasteiz.
- HILGARD, E. R. (1964): "A perspective on the relationship between learning theory and educational practices", in *Psicología educativa* (1993). México: Trillas.
- KRASHEN, S. D. et al. (1979): Age, rate and eventual attainment in *second language acquisition*. *Tesol Quarterly*.
- LARRINGAN, L. M. (1993): "Euskara batua eta euskalkiak. Aintzat hartu beharreko praktikak", in *Jakin-76*, maiatza-ekaina, 11-39 or.
- LASPIUR, I. (1999): *Eibarrera jatorraren bidetik. ...eta kitto!* Eibar: Euskara Elkarte.
- LEWIN, K. (1948): "Resolving Social Conflicts", in *Idioma y poder social*. Madrid: Tecnos.
- LOPEZ DEL CASTILLO, LL. (1976): *Llengua standard y nivells de llenguatge*. Barcelona: Laia.
- MACKEY, W. F. (1976): *Bilinguisme et contact des langues*. Paris: Klincksieck.
- MARTINEZ DE LUNA, IÑAKI (2001): Euskararen ajeak eta sendabelarrak, in *Jakin*.
- MENDEBALDE KULTUR ELKARTEA (1997): *Mendebaldeko euskera XX. mende goian*. Bilbo.
- MITXELENA, K. (1970): Pro domo. *EGAN 1-3*.
- MITXELENA, K. (1981): Lengua común y dialectos vascos. *ASJU- XV*.
- MUJKA, J. A. (1996): Bakarka: *Método de aprendizaje individual del euskera*. Donostia: Elkar.
- OCHOA, B.; IDIAZABAL, I. (1990): Estandarización y escolarización Procesos paralelos e interdependientes. El caso del euskara, in *Lengua del alumno, Lengua de la escuela*. Barcelona: ICE Universitat.
- OIHARTZABAL, B. (1996): "Euskara batua eta euskalkiak", *Euskera 41*, 511-515 or.
- HARITSCHELHAR, J. (1993): "Euskaltzaindiaren 75. urtemuga", *Euskera 38*, 1993-1, 9-12 or.
- SANCHEZ CARRIÓN J. M. (1976): "Bilingüismo, disglosia, contacto de lenguas", in *FIHZ, VIII-3*.
- SIGUAN, M.; MACKEY, W. F. (1986): *Educación y bilingüismo*. Madrid: Santillana-Unesco.
- TRUDGILL, P. (1983): *Accent, dialect and school*, London, Edward Arnold.

- TXILLARDEGI. (1990): “Soziolinguistika egunak”, in *Hizkuntza/Hezkuntza*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- URIBARREN, P. (1981a): “Euskal Dialektologiaren atarian”, in *Iker-2*, Euskaltzaindia. Bilbo.
- VILLASANTE, L. (1988a): *Euskararen Auziaz*. Arantzazu: Colección Eleizalde.
- VYGOTSKI, L. S. (1977): *Pensamiento y lenguaje*. Buenos Aires: La Pléyade.
- WEINREICH, U. (1979): *Languages in contact*. The Hague: Mouton Publishers.
- ZABALETA, F. (1994): *Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza murgiltze-erduan*. Bilbao: Zubia.
- ZALBIDE, M. (1994): “Eskola-munduan erabiltzen den euskara”, *Euskera* 39, 1994-1, 153-181 or.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia



mende
kultur a

Sig.: 811.361'282 GAM biz
Tit.: Bizkaiko euskararen esaldi eta
Aut.: Gaminde, Iñaki
Cód.: 1011253



ISBN 84-457-1937-8



9 788445 719374


Salneurria: 15 €

Eusko Jaurlaritzaren Argitaerak

Servicio Central de Publicaciones



BIZKAIKO EUSKARAREN ESALDI ETA TESTU EREDUAK CD





**BIZKAIKO EUSKARAREN
ESALDI ETA
TESTU EREDUAK**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

I.S.B.N.: 84-457-1937-8
L.G.: BI-78-03

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

Euskaldunen berbak, inoiz galduko ez diren testu ereduak dauzkazu CD honetan, 2.100. esaldi eta 71 herritako testuak.

Ikasteko erarik egokiena, belarrietatik bihotzerako bidea zabaltzea duzu, eurena zeure egitea.

Zaharren esanak izan bitez berri umeen ahoetan.

CD-a erabiltzeko:

- (1) Internet Explorer moduko nabigatzaile bat behar da.
- (2) CD-a sartu eta Sarrera artxiboan sakatuta martxan hasiko da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia



mendebalde
kultur alkartea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 84-457-1937-8



9 788445 719374

Salneurria: 15 €